

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-06-06  
ASTELEHENA  
324. ZENBAKIA  
7. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## Udalerri euskaldunak babestera

Uema eguna egin zuten zapatuan | 12



Hitz gurutzatuekin jolasean. | J.A.

Gorlako Igoerak Zabaleta eta Ramirez liderrago egin ditu | 22



Asier Maeztuk 'hegan' egin zuen erlojupekoan | 24



Bera Bera nagusitu da Nazioarteko Zazpinako Txapelketan | 26



## Atzegiren hamabigarrena, Bergaran

Zapatuan egin zuen Debagoieneko Atzegik urteko batzar orokorra; ondoren, 130 lagun baino gehiago batu ziren Munibe plazan bazkaltzeko | 4

Atzegiko lagunak, zapatu eguerdian, Munibe plazan egin behar zuten bazkaria baino lehenago, talde erretratuan. | JOSETXO ARANTZABAL

### Antzuolako Osasun zentroa zabaltzeko gertu dago

Asmoa da ekaina amaitu aurretik irekitzea | 11

### Bergaran, Iburgaraiko obrak udan egingo dituzte

Auto-iladak murriztea izango dute helburu | 16

### Elkartasun Egunak presoen alde jendetza batu zuen

Datorren urterako jai egunez aldatzea erabaki dute | 30



Mireia Carretero. | A.BARRUSO

### "Gogorragoa izan zen ile barik ikustea, bular barik baino"

Mireia Carretero | Minbizia izan du | 7

## Eskoriatzan pozik geratu dira aurtengo Ferixiak eman duenaz

Saltzaileek salmenta onak izan zituzten, eta herritar asko ibili zen kalean | 13



Dantzariak, plazan. | MIRIAN BITERI

**goienakluba**  
Abantailaz betetako Kluba!

**KOTXEA ETA ETXEA PUNTU-PUNTUAN**

RENAULT AUTOBERRI
 AVIA

**iKER**  
SUKALDEAK

*Txartela, beti aldean*

► Zoaz 9. orrialdera

# Bizitzako ametsa erosi nahian, bizi osoko aurrezkiak ke artean doaz

► Denbora konpartituaren praktikaz kaltetutakoei laguntzen die Alberto Mondragon arrasatearrak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ametsetako leku baten astebete pasatzeko aukera, norbere apartamentu baten, oso diru gutxiren truke eta, gainera, bizi osoan: horixe izan da, hamarkadatan zehar, hainbat enpresak jendeari eskaini izan diotena, baina gero, errealitatearekin topo egin dute bezero askok. Lehen multijabetza izenez ezagutzen zen praktika hori; 1998tik aurrera, denbora konpartitua deitzen zaio. Oso ezaguna eta komentatua izan zen 80ko eta 90eko hamarkadetan, baina gaur egun ere askorendako arazo potoloa izaten jarraitzen du.

Epaitegietara jo izan dute bezero batzuek, ustezko iruzurra argudiatuta, eta hainbat sententziak arrazoia eman diete. Zenbait

kasutan, taldeko kereilak izan ziren, eta komunikabideetan titularrak eman zituzten. Adibidez, 2002. urtean Espainian oso ezagun egin zen Britainia Handiko 300 lagunek Fuengirolan ipini zuten kereila, herrialde bereko 50 enpresa fantasmaren aurka, esanez 19.000.000 euro iruzur egin zizkiela praktika hura erabilia.

Bada, gaur egun ere, demandak bultzatzea eta "enpresa horien aurka egitea" helburutzat hartu duen arrasatear bat dago: Alberto Mondragon. Bera ere kaltetua da, eta beste kaltetuei lagundu gura die. Horretarako, [www.denuncioestafa.com](http://www.denuncioestafa.com) webguneaz arduratzen da, kaltetuekin batzarrak antolatzen ditu Euskal Herrian eta Espainian, eta dagoe-

neko mundu osoko 4.000 pertsona jarri dira berarekin harremanetan, laguntza bila.

## Joko psikologikoa

Mondragonek aldarrikatzen du denbora konpartituaren praktika ez dela iraganeko kontua: "Sekulako informazio falta dago".

Bere kasua azaltzen du: "Posta elektronikoz mezu bat ailegatu zitzaidan, esaten home cinema bat emango zigutela, eta Donostiako hotel baten egingo zuten hitzaldira joan besterik ez genuela. Susmatu genuen zer bait saldu gura zigutela, baina ez genekien zer".

Hortik aurrera, "joko psikologikoa" hasten dute, Mondragonen esanetan, eta saltzaile batek lau edo bost ordu ematen ditu pertso-



Leku zoragarrietan bizi osoan astebete pasatzeko aukera ematen dute denbora konpartituek.

na bakoitzarekin, produktuaz kontentitzen.

Azkenean, jende askok kontratu bat sinatzen du han bertan.

## Mantenu kuotak dira gakoa

Denbora konpartitua, berez, Kandan eta Europako iparraldean asko erabiltzen den sistema bat da. Oporretako leku baten dagoen higiezin bat urtean epe jakin baten erabiltzeko eskubidea ematen zaie

hainbat pertsonari, kontratu bidez eta prezio on baten. Diru-sarrera bat ordaindu behar da eta, gero, urtean mantentzerako diru kopuru bat, KPIaren edo enpresaren eta bezeroaren artean adostutako beste modu baten arabera handitzen dena.

Baina askorendako, Alberto Mondragon kasu, esperientzia ez zen ona izan eta iruzur baten biktima sentitu ziren: "Urteko aste

ALBERTO MONDRAGON | KALTETUA

## "Debagoienean kasu asko dago, baina jendea lotsatu egiten da aitortzeaz"

Bere kasua konpontzeko zain dagoen bitartean, Alberto Mondragonek bizitzako bokazioa topatu du: denbora konpartituaren aferak kaltetutakoei laguntzea.

### Zenbat denbora eskaintzen diozu kaltetuei laguntzeari?

Etetik kanpoko lanak eta etxeko ardurak bukatzen ditudanean, egunero 01:00ak edo 02:00ak arte geratzen naiz horretan lanean; aste bukaeretan, gehiago. Beste bi lagunekin lan egiten dut, eta elkarte bat osatzekotan gabil-tza, jende asko ordezkatzeko dutilako: dagoeneko mundu osoko 4.000 lagun jarri dira nirekin harremanetan: Eibar-koak, Gasteizkoak, Espainia osokoak, Hego Ameriketakoak...

### Debagoieneko inor ez?

Debagoienean kasu asko daude, baina jendeak ez du nahi inork jakiterik eurei ere gertatu zaiela. Lotsa edo erreparo handia dago. Gertatu izan da gurasoak hiltzean enteratzea seme-alabak haiek denbora konpartituaren aferan sartuta zeudela. Lotsa ematen zien seme-alabei esatea. Nik esan nahi diet beldurra kentzeko eta salatzeko.

### Denbora konpartituaren kasua oso ezagun egin zen komunikabideetan orain hamarkada batzuk. Baina oraindik jarraitu egiten du...

Informazio falta izugarria dago. Sal-tzeko modua oso berezia da, norbere psikologiarekin jokatzeko dute-eta.



Alberto Mondragon. | LEIRE KORTABARRIA

Kontratu sinatzen duenean, norberak duen sentsazioa da sekulako inbertsioa egin duela: leku zoragari baten urtero oporrak pasatzeko aukera, oso prezio onean, aste hori errentan emateko aukerarekin ere.

Bestalde, gaur egun askotan ematen da honakoa: Interneteko foroetan, kaltetuei idazten diete, esanez euren astea hartzen dietela, betirako, 1.500 euroren truke. Baina erosketa iluna da: urte baten buruan, erosi duen enpresak uko egin diezaiokero erosketa

horri, eta kaltetua 1.500 euro horiek gabe gelditzen da, eta oraindik bere astearekin.

### Errealitatea bestelakoa da...

Sekulako muntaia dago: enpresak elkarren bazkideak dira, elkarte fantasmak, izen-mailegatzaila soilak diren administratzaileak...

### Epaitegietan, zelan planteatzen duzue zuen demanda?

Norberak kontratu sinatzen duenean, kanbio-letra bat sinatzen diote, eta hori legez kanpoko da.

Bestalde, kontratuari uko egiteko 10 eguneko epea dago, baina ez dute horretaz informatzen. Oso arraroa da banketxe batek bost orduan 18.000 euroko mailegua egitea, baina hemen horrela izaten da. Bada, epaiketetan, enpresa saltzailearen eta banketxearen arteko lotura bilatzen eta frogatzen dugu. Lotura hori egon badago, eta topatu daiteke. Hori frogatuta, kontratu ezereztzen da eta kaltetuari diru guztia bueltatzen zaio, eta

epaiketaren kostua ere bai. Horrela sententzia asko egon dira.

Bestetik, aurretik egon diren sententzien babesa dugu. Prozedura baten zentzu bateko sententzia batzuk egon badira, gero ipintzen diren antzeko demandek ezin dute aurkako sententziarik jaso. Guk 164 demanda

### "Kaltetuendako prezio hobek lortzen ditugu, eta guk ez dugu ezer irabazten"

ipini ditugu, eta 44 irabazi ditugu. Askoraindik epaitegian daude.

### Zuen elkarrekin ze egiten du?

Kaltetuendako prezio hobek lor ditzakegu,

hainbat abokatu eta prokuradoreekin hitzarmenak ditugulako. Guk ez dugu horrekin ezertxo ere irabazten; kaltetuei lagundu nahi diegu, besterik ez. Bidaiek eta beste guztia gure poltsikotik ordaintzen dugu. Horregatik, orain bezala jarraitzen badugu, elkarte bat osatuko dugu, kostuei aurre egiten lagun diezaguten, baina irabazi asmorik gabe. Egoitza Arrasaten ipiniko dugu, hasieran behintzat.



Jan dabilzan enpresek. | GOIENA

bat saltzen dizute, baina behar bada azaroan edo abenduan da". Noiz den ez dute esaten; asteak zifren bidez izendatzen dituzte. "Inork ez du nahi neguan kostalderra joatea; horregatik, erabili ezin duzun eskubide bat saltzen dizute", esaten du arrasatearrak.

Jende asko inoiz joan gabe gelditzen da. Baina joaten direnek sorpresa txar bat dute zain: "Lekua penagarri egoten da, bertan behe-

ra utzita. Niri argi geratu zitzaidan mantenu dirua ez zela apartamentuetan inbertitzen. Hortaz, nora zihoan nire dirua?", esaten du arrasatearrak.

Berak azpimarratzen duenez, mantenu kuota da benetako arazoa. "Letra xehean esaten du KPIaren arabera edo apartamentu multzo bakoitzaren arabera handitzen dela kuota. Horrela, lehenengo urtean, adibidez, 100

### Denbora konpartitua, gako batzuetan

**BOLADAN** Multijabetza deitzen zen lehen, eta oso boladan egon zen praktika hori orain bi hamarkada inguru. Gaur egun ere ematen da: norbere posta-kutxan iragarkiak sartu beharrean, e-mailez bidaltzen dituzte.

**SINADURA** Normalean, batzar batera deitzen dute, opari baten aitzakiatan. Han, komertzial batek sistema azaltzen du eta kontratu bat aurkezten dio norberari. Baina ez da inoiz lekuan bertan sinatu behar: etxera eraman eta soseguz irakurri.

**LEGEA** Hego Euskal Herrian eta Espainian, lehenengo legea 1998koa da, eta jabetza hitza debekatu zuen, berez apartamentuak ez direlako saltzen. *Denbora konpartitua* deitzen zaio geroztik.

**INFORMAZIOA** Kontratuan argi eta garbi agertu behar da, gutxienez, apartamentua non dagoen, bere ezaugarriak eta, bereziki, norberak ze epe zehatzean erabili ahaliko duen.

**PREZIOA** Bi motatako gastua dakar: batetik, sarrera gisa 15.000-18.000 euro inguruko kopurua; eta, bestetik, urtero berritzen den mantenu kuota.

**SALAKETAK** Jende askok epaitegira jo du eta enpresa horiek salatu izan ditu. Epaiez dezentek ezeztatuz egin dituzte kontratuak, eta dirua bueltatzera behartu dute.

**ELKARTEAK** Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak dio azkenaldian kexa gutxiago jaso dituela: "Behar bada eraikuntzaren krisiagatik, ez dugu kasu berri asko izaten".

MARBELLA / La Junta paraliza una nueva obra por invadir suelo forestal / 7

EL MUNDO ANDALUCIA

**—FRAUDE DE LA MULTIPROPIEDAD—**

**Miles de británicos, víctimas de una estafa inmobiliaria millonaria en la Costa del Sol**

Empresas fantasma del sector de la multipropiedad habrían destruido más de 3.000 millones de pesetas

El sector español de la multipropiedad ha sido víctima de un fraude millonario que ha destruido más de 3.000 millones de pesetas. El fraude se originó en el sector de la multipropiedad en la Costa del Sol, donde se crearon empresas fantasma para atraer a inversores británicos. Estas empresas prometían altos rendimientos pero en realidad solo buscaban el dinero de los inversores para desaparecer. El fraude se descubrió cuando se descubrió que muchas de estas empresas no existían o que sus cuentas estaban vacías. El sector de la multipropiedad en España ha sufrido un golpe duro por este fraude, que ha afectado a miles de inversores británicos que han perdido su dinero. El sector de la multipropiedad en España ha sufrido un golpe duro por este fraude, que ha afectado a miles de inversores británicos que han perdido su dinero.

**GRANADA**  
Un menor analfabeto pide al juez que le condene a leer y escribir

**TERCIO DE VASOS**  
BELMONTA  
Política de

Komunikabideetan titular handiak eman zituen denbora konpartitua. | EL MUNDO

euro kobratzen dute; bigarrean, %100 handitzen dute; hirugarrenean, %200... Eta kuota hori bizi osorako da".

Horrez gain, banketxeari kreditua eta interesak ordaindu behar zaizkio. Azkenean, ordaindu ezin duen zorra sortzen zaio jende askori. "Momentu horretan, jende askok kuotak ordaintzeari uzten dio", esaten du Mondragonek.

Baina horrekin ez da arazoa konpontzen, Gorka Agirre eibartarraren gurasoek dakiten moduan: "1.500 euroko zorra eskatzen diete, bestela etxea enbargatuko die la esanda. Horren beldurrez, berriz ordaintzen hasi dira", azaltzen du Gorka Agirrek.

### Musu-truk

Mondragon beste bi lagunekin elkarlanean dabil orain. "Kaltetuei eta euren abokatuei aholkularitza ematen diegu, kaltetuek ordaindu ditugu, eurekin batzartzen gara...", azaltzen du. Hori guztia musu-truk egiten du, kanpoko eta etxeko lanek uzten dioten denbora librean. "Elkarte bat sortu nahi dugu laguntza zerbitzu hau emateko eta orduan, behar bada, gehiago dedikatu beharko naiz horretara, hau baita benetan egin nahi dudana", esaten du.

DATUA

**10**

EGUNEKO EPEA

Kontratu sinatu ondoren, 10 egun ditu norberak hari uko egiteko. Epe horretan ez du ezer ordaindu beharrik.

ESANAK

**"Gurasoek 1.500 euroko zorra dute, eta etxebizitza enbargatuko dietela esan diete"**

GORKA AGIRRE | KALTETUA

EN EL SECTOR DE LA MULTIPROPIEDAD

**Miles de británicos, víctimas de una estafa inmobiliaria en la Costa del Sol**

El sector español de la multipropiedad ha sido víctima de un fraude millonario que ha destruido más de 3.000 millones de pesetas. El fraude se originó en el sector de la multipropiedad en la Costa del Sol, donde se crearon empresas fantasma para atraer a inversores británicos. Estas empresas prometían altos rendimientos pero en realidad solo buscaban el dinero de los inversores para desaparecer. El fraude se descubrió cuando se descubrió que muchas de estas empresas no existían o que sus cuentas estaban vacías. El sector de la multipropiedad en España ha sufrido un golpe duro por este fraude, que ha afectado a miles de inversores británicos que han perdido su dinero. El sector de la multipropiedad en España ha sufrido un golpe duro por este fraude, que ha afectado a miles de inversores británicos que han perdido su dinero.

**Operación de seis meses**  
Las discusiones de la convocatoria para demostrar la posesión de los inmuebles se prolongaron durante seis meses. El objetivo de la operación era demostrar la posesión de los inmuebles a los inversores británicos que habían sido víctimas de una estafa inmobiliaria. La operación consistió en reunir a los inversores y a los propietarios de los inmuebles para demostrar que los inmuebles eran reales y que los inversores habían pagado por ellos. La operación se completó con éxito y los inversores británicos han recuperado su dinero. La operación se completó con éxito y los inversores británicos han recuperado su dinero.

**Operación de seis meses**  
Las discusiones de la convocatoria para demostrar la posesión de los inmuebles se prolongaron durante seis meses. El objetivo de la operación era demostrar la posesión de los inmuebles a los inversores británicos que habían sido víctimas de una estafa inmobiliaria. La operación consistió en reunir a los inversores y a los propietarios de los inmuebles para demostrar que los inmuebles eran reales y que los inversores habían pagado por ellos. La operación se completó con éxito y los inversores británicos han recuperado su dinero. La operación se completó con éxito y los inversores británicos han recuperado su dinero.

**DENUNCIO ESTAFA**

Tu página para denunciar y controlar abusos y estafas...

BIENVENIDOS A LA PORTADA DE DENUNCIOESTAFA.COM

ANTE EL ÉXITO DE LA PRIMERA REUNIÓN EN BURGOS SE VA A LLEVAR A CABO UNA CONVOCATORIA, PERO ESTA VEZ EN OCTUBRE DE 2011 Y EN MADRID.

Debido a la buena concurrencia de público a la reunión de mayo en Burgos se va a realizar una nueva convocatoria para afectados de Madrid el 15 de octubre del 2011.

Donde? .....

**SIGUENOS EN TWITTER**

**DIARIOS DENUNCIOESTAFA**

SE REALIZARÁ UNA SEGUNDA CONVOCATORIA SOBRE MULTIPROPIEDADES EN OCTUBRE DE 2011 EN MADRID. http://www.denuncioestafa.com

AFECTADOS DE COMPLEJOS EN DENIA. http://www.denuncioestafa.com

ENTREVISTA EN TV DEL EQUIPO DE DENUNCIOESTAFA HABLANDO SOBRE LAS MULTIPROPIEDADES. http://www.denuncioestafa.com

ODIO MONDRAGÓN ESTÁ LLAMANDO EN ESTAS FECHAS PARA ENCONTRAR NUEVAMENTE Y CAPTAR NUEVOS SOCIOS. http://www.denuncioestafa.com

**www.denuncioestafa.com**

Honako itxura du [www.denuncioestafa.com](http://www.denuncioestafa.com) webguneak. | GOIENA

### 'Iruzurrasalatu', gune arrakastatsua

Alberto Mondragonek dinamizatzen du [www.denuncioestafa.com](http://www.denuncioestafa.com) webgunea; denetariko iruzurrak salatzeke jaio zen, baina gaur egun denbora konpartitua gainera edukie hartzen dute zati handiena.

Arduraduna pozik dago: "Dagoeneko 111 lagun daude erabiltzaile gisa izena emanda, eta 7.000 bisita izaten ditugu". Bost hilabete bakarrik daroate webgunearekin.

2011ko ekainaren 8tik 11ra

Arantzazu, Afrikarekiko elkargune

**Afrika**

www.baketik.org  
943-251005

2011

Ekainaren 8tik 10era Ekainaren 11a, larunbata

**18.00etatik 20.00etara:** «Demokratizazioa, etnizitate eta itzaropena Afrikan: Bubi herriaren kasua Ekuatore Ginean» gaiaren inguruko hitzaldiak, Mbuyi Kabundarekin eta beste hiru hizlariarekin.

**10.30ean.** Hitzaldia eta solasaldia: «Demokratizazioa, etnizitatea eta itzaropena Afrikan». Hizlaria: Mbuyi Kabunda

**11.30ean.** «Zerbait gehiago, lehenago» Adierazpenaren aurkezpena.

**12.30ean.** Zinema-solasaldia Oskar Epelderen «La pirámide de Maslow» dokumentala onarri izanik.

**13.30ean.** Herri-bazkaria.

·Hitzaldiak Arantzazuko Gandiaga Topagunean izango dira. Ezinbestekoa da izena ematea 943-251005 telefonoan.  
·Arren, larunbateko hitzaldietarako telefono berean izena ematea eskatzen dizuegu.  
·Beharrezkoa da larunbateko bazkarirako izena ematea 943-251005 telefonoan. Prezioa: 18 euro.

Antolatzaileak: **baketik** (Baki, Zaritza, Gaiaren berri ematea)

Laguntzaileak: **Tau** (Baki, Zaritza, Gaiaren berri ematea)

**goiena** KOMUNIKAZIO TALDEA



Atzegikoek Zabalotegi aretoan egin zuten asanbladan. | IMANOL GALLEGU

## Atzegikoek urteko asanblada eta bazkari jendetsu batekin ospatu zuten festa

130 pertsona baino gehiago batu ziren Munibe plazako bazkari herrikoian

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Debagoieneko Atzegi elkarteak urteroko asanblada egin zuen zapatuan. Ohitura duten moduan, urtero herri bat aukeratzeko eta aurtengoa aurrerantzean txanda izan da. Hamabigarren asanblada egiteko goizean Zabalotegi aretoan urte honetako emaitzak

aurkeztu zituzten eta hurrengo urteko erroken inguruan ere egin zuten berba.

Aurtengoa urte oparoa izan da Atzegirentzat, aurreko urtean pausoz pauso programa abian jarri zutenetik Gipuzkoa osoan adimen urritasuna duten 50 pertsona lan munduan integratzea

lortu dute. Gure inguruan adibidez, Arrasate eta Bergarako udal-letan edota inguruko zenbait zaharren egoitzatan egin dute. Hau, baina, bidearen hasiera besterik ez dela diote Atzegikoek eta horregatik hurrengo astean, aurtengo sentsibilizazio kanpaina aurkeztuko dute Donostian.

### Asanbladaren ostean jai giroa

Zapatuan Bergaran sekulako jai-giroa zegoen eta Atzegikoak ez ziren atzean geratu. Behin asanblada amaitu ostean, herriko giroan murgildu ziren. Bergarako kaleetatik bueltatxo bat eman ostean, Munibe plazan elkartu ziren bertan bazkaltzeko.

Irribarrea eta jai giroa erraz antzematen zen. Karpara sartu bezain pronto, eseri eta bazkaltzen hasi ziren guztiak. Ondoren, akordeoi musikak alaituta, down sindromedunek opari bana jaso zuten. Argi dago, Atzegikoentzat ez dagoela festa hondatuko duen urritasunik.

## Etxeko olio jasotzeko, 3.100 ontzi gehiago

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Eko3r enpresak eta Kutxak etxeko olio jasotzeko 3.100 ontzi gehiago banatu dituzte dagoeneko Debagoieneko herri guztietan. Arrasaten 1.103 ontzi gehiago banatu dituzte; Bergaran, 740; Oñatin 544; Aretxabaletan 334; Eskoriatzan 204; Antzuolan 108; Elgetan 53; eta Leintz-Gatzagan 14. Egubakoitzean banatu zituzten ontziok, eta dagoeneko ontzia ez duten herritarrek, dagokien udaletxean jaso ahalko dituzte.

2010eko martxoan hasi ziren Arrasaten etxeko olio jasotzeko ontziak banatzen, eta 2011 hasieran, Debagoieneko gainerako herrietan.

DATUA

42.673

JASOTAKO OLIO LITROAK

Debagoienean jasotako litroei esker, ura eta energia aurreztu dira.

## Gobernuz kanpoko erakundeek elkartasun egunak jende asko erakarri zuen Seber Altubera

Erakundeekin batera, Emaus izan zen elkartasun eguneko gonbidatua

I.GALLEGU | ARRASATE

Arrasate esnatzen hasi zen bitartean Seber Altube plazan guztia prest zegoen. Goizean, dena muntatzen fin ibili ostean, 10:00etan ekin zioten Gobernuz Kanpoko Erakundeek aurtengoa Elkartasun

Egunari. Kamisetak, poltsak, eskuz egindako produktuak... ez zen ezer falta. Goiza borobiltzeko gainera, eguerdiko 12:30etan arrasateko musikaleko bandak kontzertua eskaini zuen Seber Altube plazan.

Hau guztia gutxi balitz, gaztetxoek jolasteko ere puzgarria egon zen, eta Nubi elkarteak pintxo morunoak dastatzeko aukera ere eman zuten.

### Emaus aurtengo gonbidatua

Zita honetara gerturatzen diren erakundeek gainera aurtengo gonbidatua Emaus izan zen. Arrasateko lokalean birziklatutako banderolekin sortzen dituzten poltsa, adur-zapi eta erosketa orgak saltzera. Hasieran zenbait zalantza eduki arren, eguraldiak nahiz jendeak ez dute kale egin eta Seber Altubek kuxkuxero eta erosle dezente bildu ditu.

Harremanek gainera 180 oparirik gora zituen tonbola bat ere bazuen eta antolatzaileen hitzetan "oso ondo" saldu dira txartel gehienak. Eguna amaitzeko, txartel ez sarituen artean, 2 pertsonentzako Llanesgo nekazal turismo batean 3 eguneko egonaldia zozkatu zuten. Irabazlea 3.269 zenbakia izan da eta hilabeteko epea du saria jasotzeko. Horretarako baina, antolakuntzak jarri duen telefono zenbakira (605 72 05 31) deitu beharko du al bait lehen, bestela 1.017 zenbakira egingo du salto sariak.



IMANOL GALLEGU

## "Nork epaitzen gaitu" hitzaldia

Jose Luis Elkoro askatzeko kolektiboak antolatuta UNEDeko aretoan Audientzia Nazionala hizpide izan zuten Mariano Ferrer-ek, Juanjo Alvarezek, Miguel Castelsek eta Artemio Zarcok. Epaitegi honek hasiera batetik izan duen kontrol politikoa salatu zuten eta honelako epaitegiek egiten duten lanaren objektibotasuna kolokan jarri zuten. Hitzaldia hasi baino orduerdi lehenago beteta zegoen aretoa.

## Babes Ofizialeko Etxebizitzak jabeek lursaila erosteko doaneko aholkularitza izango dute

Babes ofizialeko etxebizitzak dauden lursaila erosteko aukera emango duen dekretu berri irtengo da aurki. Arrasaten lursaila erosteko aukera Nafarroa etorbideko 3 eta 10, eta Txaxta kaleko 5 eta 7. zenbakietako jabeek izango dute. Arau berria azaltzeko asmoarekin Jesus Markaidek Deba Goiena inmoiliariako jabeak doaneko aholkularitza zerbitzua jarriko du martxan. Parte-hartzeko, portaleko buruek 943 77 13 02 (Elena) telefonora deitu dezakete zita eguna adosteko.



Jendea postuetako produktuei begira. | IMANOL GALLEGU

# Ehun langabe gutxiagorekin amaitu da maiatza Debagoienez

Elgetan izan ezik, bailarako gainerako herrietan behera egin du kopuruak; apirilarekin alderatuta, Arrasatek 47 langabe gutxiago ditu orain

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Beheranzko joera izan du langabeziak joan berri den hilabetearen. Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak ezagutarazi dituen datuen arabera, Debagoienez 99 langabe gutxiago dago orain. Hain justu ere, maiatzaren 31n 3.076 langabe zeuden bailaran (%9,93); apirilean 3.175 lagun zeuden gurean lan barik.

Elgetan izan ezik, gainerako herri guztietan behera egin du tasa horrek. Elgetan, berriz, langabe bat gehiago dute maiatzean: 43tik 44 lagunera pasa dira. Bestalde, Arrasaten jaitsi da gehien langabezia tasa. Apirilean 1.337 lagun zeuden lan barik eta maiatzean, ostera, 1.290; hain justu ere, 47 langabe gutxiago ditu orain. Dena dela, tasa handien izaten dihardu esandako herriak; hain justu ere, %11,15.

## Antzuola, urte hasierako tasa

Martxoan 93 langaberaino igo ostean, Antzuolan urte hasierako kopurura itzuli dira ostera ere; 86 lagun dauden orain lan barik. Bestalde, apirilarekin alderatuta, Aretxabaletan bi langabe gutxia-

go dituzte; Bergaran, 15; Eskoriatzan, 6; Leintz Gatzagan, bat; eta Oñatin, 4 langabe gutxiago dituzte.

Langabezia tasari dagokionez, azpimarratzekoa da Oñatik duen tasa: %6,79koa da gaur egun. Dena dela, Debagoienez Leintz Gatzaga da tasa baxuen duen udalerrria; hain justu ere, %3,76koa da hori. Bestalde, Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzutik jakinarazi dutenez Aramaiok 28 langaberekin amaitu du maiatza: 14 emakume eta 14 gizonekin.

## 5.800 langabe gutxiago

Hego Euskal Herrian ere joera bera izan du langabeziak. Lehen aldiz azken hamar hilabeteetan, langabeen kopurua jaitsi egin da maiatzean; hain justu ere, %3 gutxitu da tasa. Apirilean baino 5.826 langabe gutxiago daude orain. Araban (%5,34) eta Bizkaian (%2,99) jaitsi da gehien, eta Nafarroan (%2,32) eta Gipuzkoan (%2,26) gutxien.

Datu horien harira, Jaurlaritzako Lan sailburu Gema Zabaletak "zuhur jokatzeko" eskaera egin du, enpleguaren egoera "kez-kagarria" delako. Honakoa esan du: "Langabeziaren datuak gora egiten duenean katastrofismorik egin behar ez dugun bezala, ez dugu euforiko jarri behar datu onak ematen direnean". Bestalde, sindikatuek ohartarazi dute maiatza hilabete ona izaten dela enpleguarendako, udako sasoko enpleguak sortzen direlako.

## HERRIRIK HERRI

| HERRIA         | LANGABEAK    | EHUNEKOA     |
|----------------|--------------|--------------|
| Antzuola       | 86           | %9,45        |
| Aretxabaleta   | 308          | %9,54        |
| Arrasate       | 1.290        | %11,15       |
| Bergara        | 779          | %10,86       |
| Elgeta         | 44           | %8,94        |
| Eskoriatza     | 197          | %9,48        |
| Leintz Gatzaga | 5            | %3,76        |
| Oñati          | 367          | %6,79        |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>3.076</b> | <b>%9,93</b> |

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

## Diputazioak 240.993 euro bideratuko ditu ibarreko landa garapeneko programak garatzeko

Gipuzkoako Diputazioko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak 1.696.000 euroko dirulaguntzak banatuko ditu aurtun, eskualdeetako landa garapeneko programak garatzeko. Horietatik 240.993,46 euro bailarako Deba Garaia agentziak jasoko ditu. Ia Gipuzkoa osoa mendialdea edo kaltetutako gunea da, egungo araudiaren arabera. Hala, landa alde horiek garapen osoa izan dezaten, neurriak hartu eta jarduera programak erabaki behar direla aipatu dute esandako departamentuko iturriek.



AMAIA TXINTXURRETA

## Berdintasunaren aldeko gosaria

Emakundek antolatutako Berdintasunerako Gunearen harira, 30 lagun inguru elkartu ziren egunean Oñatiko Enpresagintzan egindako gosarian. Hiru emakume zuzendarik euren ibilbide profesionalaren gaineko esperientziak kontatu zituzten han; hain justu, Nuria Agirre Caja Laboraleko pertsonaleko zuzendaria, Nekane Arratibel Huheziko dekanoa eta Mirari Zilaurren Lanako presidentea.

## HELBURUA: BIRMOLDATZEA - GUTXITZEA

Tratamendu pertsonalizatuak

- KABITAZIOA
- DERMAJECT
- PALPE – ROULE
- FANGOTERAPIA
- BAKUNTERAPIA
- MESOTERAPIA MEDIKOA

Arruabarrena doktorea, elkargokide-zk.: 6073

DENBORALDIKO  
PROMOZIOAK

Kontsultatu  
konpromiso barik

**Amagara**

Erdiko kalea 54 behea  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09



Profesional bat, etxeko berogailua konpontzen. | REPARALIA

## Etxeko 'lantxoak' txapuza bihurtzen direnean

Etxean dauden kalte txikiak norberak konpontzeak behar baino kostu handiagoa ekar dezake

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

*Merke ta ona, gutxitan*, dio atso-titzak, eta etxeko brikolaje ariketek, sarritan, on egiten dute antzinako esaldia. Izan ere, etxean zer edo zer hondatzen denean, norberak konpontzeak edo aldatzeak ustekabeko gastuak sor ditzake.

Norberak egindako konponketa nahi moduan irteten ez denean, profesional bati deitu beharra sortzen da; norberak inbertitutako denbora eta materialean inbertitu duen dirua alperrik galtzen dira, eta profesionalari ordaindu behar zaiona eta konponketa txarrak sortutako gastuak gehitu behar zaizkie horiei.

**Margotzea, 130 euro gehiago**

Etxea zaintzeko eta kalteak konpontzeko kudeaketa orokorreko Reparalia enpresak sarritan gertatzen diren hiru egoera aztertu ditu, eta gainkostuak kalkulatu ditu.

Paretako zikingune bat edo sabaiko hezetan orban bat margotzeak 130 euroko gainkarga sor dezake, Reparaliaren arabera. "Norberak konpontzen saiatzeak honako gastuak ekar ditzake: gela osoa margotzea, denak kolore bera izan dezan (127,5 euro), gehi gerta daitezkeen alboko kalteak, adibidez, altzariak zikintzea (sofa baten kasuan, hura garbitzeko 250 euro inguru gastatu behar izan daitezke)".

Aldiz, hasieratik profesional bati deituta, kostea erdira txikitu daiteke: 10 m<sup>2</sup>-ko orban bat margotzearen, 60 euro kobratuko digu, Reparaliak egindako kalkuluen arabera.

**Entxufea, 67 euro gehiago**

Entxufea aldatzeak ere lan erraza dirudi, baina oso arriskutsua da: zirkuitulaburra edo entxufea hondatzea dira ondorio batzuk. Orduan, zirkuitua jaso behar da eta aparailu berria ipini (89 euro inguru). Magneto termikoa, entxufea eta linea zati bat aldatu behar badira, 95,4 euro inguru ordaindu beharko dira; eta diferentziala eta entxufea aldatzearen, 104,20 euro.

### 'Lardaskariari' deitu aurretik...

**'LARDASKARIAK'**

Erdaraz *chapuzas* deitzen zaie: formazio teknikorik ez, baina esperientzia duten konpontzaileak. Kanpoko bat, lagun bat, norbera... izan daiteke.

**KONTUZI!** Batzuetan eurek egindako lanak oso ondo geratuko dira, baina, oso konponketa konplexua baldin bada, berme gutxiago ematen dute.

**OROJAKILEAK** Adi ibili denetarik dakitela eta egiten dutela dioteneekin: igeltserotza, elektrizitatea, iturgintza, gasa...

**BERRIAK** Instalazio berrietan hornikuntzari alta eman aurretik, enpresek exijitzen dute instalazioa agiridun profesional batek begira dezan.

**PREZIOAK** Lardaskariek ezin dute prezioen gaineko informazio ofizialik eman, ez eta bermedun aurrekonturik.

Gainkostua 67 euro ingurukoa da. Berriz, konponketa osoa hasieratik adituen esku utziz gero, 37 euro bakarrik kostatuko zaigu.

**Zisterna, garestiena**

Komuneko zisterna hondatzeak traba handiak sortzen ditu, segituan konpondu beharrekoa baita. Hala ere, komeni da iturginari deitzea, izan ere, norberak eginda, beheko solairuko bainugelaren sabaian filtrazioak sor daitezke (60 euro konpontzeko), edo norbere etxebizitzaren lurra eta parketa hondatu ditzake. Horiek konpontzea 300 euro kosta daiteke.

Aldiz, iturginak zisterna aldatzea 115 euro inguru kostatuko zaigu.

**Neurri "eraginkorrak"**

Emaitza horien arrazoiak hauek dira, Korporazioaren hitzetan: urteotan hartutako neurrien "eraginkortasuna, horiei esker negozioren lehiakortasuna nabarmen hobetu ahal izan baita"; Mondragonen "eskaintzaren dibertsitatea" eta nazioarteko merkatuetan gero eta presentzia handiagoa izatea; eta "berrikuntzaren aldeko apustu irmoa".

## Mondragon Korporazioak 178 milioi irabazi zituen iaz, 2009an halako hiru

L.K. | ARRASATE

Mondragon Korporazioak 178 milioi euroko etekinekin itxi zuen 2010eko ekitaldia, aurreko urtekoak hirukoiztuta. Horrela jakinarazi zuen taldeak.

Iazko ekitaldiari buruzko hainbat datu eman du Mondragonek. Hala, industria enplegua berreskuratzeko bidera itzuli da, 1.378 lanpostu gehitu baititu 2010ean okupatutako batez besteko lanpostuetan. Bestalde, salmentak guztira 13.989 milioi eurora iritsi ziren, aurreko urtean baino % 1,2 gehiago. Industria Arloak, oro har, 5.711 milioi euroko salmenta zifra lortu zuen guztira, eta horrek

esan nahi du iaz lortutako fakturazioa %5,6 handitu zela.

Nazioarteko salmenten indizea, salmenta totali buruz, %63ra arte igo zen aurreko ekitaldian, atzerrian dauden 77 ezarpenekin.

Mondragonek 144 milioi euro bideratu zituen 2010ean I+G+b-ra, 716 asmakuntza patente ditu eta I+G-ko 76 proiektutan parte hartzen du, horietatik 42 nazioartekoak izanik.



## Dirulaguntzak, baserri bideak eta ur sarea finantzatzeko

L.K. | ARRASATE

Deba Garaia landa garapen agentziari 240.993,46 euro emango dizkio Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapen Sailak. Eguaztenean onartu zituen Gipuzkoako landa garapen elkarreendako aurtengo dirulaguntzak. 1.696.000 euro banatuko ditu.

Diru partida hori "defizientziak dauden lekuetan" inbertituko du Deba Garaiak, bertako arduradun Mari Karmen Iturbek dioskunez. Batez ere, bi motatako proiektuak finantzatzeko balioko dute dirulaguntzek: baserri bideak eta ur-azpiegiturak egin edo konpontzeko.

**Diru gutxiago**

Ohi baino beranduago onartu dira laguntzok; normalean, martxoan esleitzen dituzte. Bi urtean behin banatzen dira landa garapenerako laguntzak; haien exekuzio epea 2011-2012 da, eta 2012an berriak onartzeak dira.

Bestalde, Mari Karmen Iturbek dioenez, dirulaguntzak "asko" txikitu dira 2009a ezkerro.

## Etxebideko tramiteak Internetez egin ahalko dira

L.K. | ARRASATE

Etxebiderekiko tramiteak Internet bidez egin ahal izango dira uztailetik aurrera, haren webgune berriak horretarako aukera emango du-eta. Horrela, bada, Etxebizitza Sailaren egoitzetara joan beharrean, etxetik egin ahal izango dira izapideak. Hori da Etxebideteren webguneak dakarren abantaila berririk garrantzitsuenak.

Etxebizitza Sailak beritasun nagusiak aipatu ditu: webgunea gaurkotu egin dute; bertan zeuden azalpenak argitu dituzte; zenbait zerbitzutaraz sartzeko bidea samurtu egin dute; eta gai eta kasuistika berriak sartu dituzte.

**Helbide berria du**

Horrez gain, etxebizitzaren zozketen berri jaso daiteke, nork bere espedientea kontsultatu eta babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko poltsan parte hartu.

Helbidea [www.etxebide.euskadi.net](http://www.etxebide.euskadi.net) da, baina lehengoak ([www.etxebide.info](http://www.etxebide.info)) erabilita ere hara ailegatzen da.

Mireia Carretero | Bularreko minbizia izan du

# "Askoz gogorragoa izan zen ile barik ikustea, bular barik ikustea baino"

- ▶ Mireia Carretero bergararrari bularreko minbizia diagnostikatu zioten 26 urterekin
- ▶ 2010eko abenduan mastektomia egin zioten, eta egun, bular berria dauka

A.TXINTXURRETA/M.BIKUÑA | ARRASATE

Bularreko minbiziaren kontrako borroka emakume askoren egunerokoaren parte da. 50 urtetik gorako emakumeetan diagnostikatzen dira kasu gehienak. Baina azken urteetan bularreko minbizia duten gazteen kasuak goraka doaz. Hori horrela, Gasteizen topaketa bereziak egin dituzte *Emakume gazteak bularreko minbiziaren kontra* izenarekin. Topaketan egon da Mireia Carretero, eta bere esperientziaren berri eman zuen Goiena telebistan.

**26 urterekin diagnostikatu zizuten bularreko minbizia. Egun gaixotasuna gaindituta duzu eta indarberrituta zaude. Nola konturatu zinen bularreko minbizia zenuela?**

Autoesplorazioaren bidez. Nire bularrak ukitzean konturatu nintzen koskor bat nuela, eta ukitzekoan min egiten zidan. Patata baten moduko koskorra zen. Ingurukoek esaten zidaten min egiten bazidan ez zela larria. Baina kezkatuta nengoen, eta medikuarengana joan nintzen.

Prozesua asko luzatu zen: ni Gasteizen nengoen lanean eta nire medikua Bergaran. 2009ko azaroan sumatu nuen koskorra eta 2010eko urtarrilera arte ez zidaten diagnostikorik eman.

**Eta diagnostikoa: minbizia. Gogorra izango zen, ezta?**

Emaitzen bila bakarrik joateko asmoa nuen. Ez nuen uste ezer txarra izango zenik. Azkenean, baina, orduan etxe-kide zena eta egun bikotekide dena nirekin joan zen kontsultara.

Medikua berba egiten hasi zenean, beste mundu baten nengoen. Ez nion kasurik egin. Sinesezina zen: 26 urterekin eta bularreko minbiziarekin! Segidan, beldurtu egin nintzen. Medikua esan zidan urtebetez, gutxienez, eta egunero, medikutan ibili behar nuela. Eguneroko bizitza alde batera utzi behar izan nuen egun batek bestera.

Diagnostikoa egin eta hurrengo egunean hasi nintzen probak egiten. Medikuari esan nion hurrengo egunean lanera joan behar nuela, gauza asko nituela egiteko eta lotzeko. Ez nuen sinistu gura.

**Informazio asko, denbora laburrean.**

Gogorra izan zen. Familian ez genuen minbiziaren aurrekaririk. Nik neuk informazio gutxi nuen minbiziaren gainean, eta gutxiago bularreko minbiziaren gainean.



Mireia Carretero, Goiena telebistako platoon. | ARRITXU BARRUSO

Era berean, ez nekien zenbat ondorio eta ze gogorak dituen minbiziak.

Gaixo zaudela onartu eta egunerokoari erritmoa hartzea izan zen zailena. Gainera, dokumentu asko bete behar dira.

**Nola eragin zizun minbiziak egunerokoan?**

Diagnostikoaren hurrengo egunean baja hartu nuen, eta probak egiten hasi nintzen. Tratamenduaren ondorioz oso ahul geratu nintzen, eta kalera irteteko gogo barik geratu nintzen. Indartsu sentitzen nintzen egun apurretan, bizimodu normala egiten ahalegindu nintzen.

**Onkologikora joan zinen bigarren diagnostiko baten bila, eta kimioterapiarekin hasteko. Gogorra da tratamendua?**

Bai, oso gogorra. Berez, tratamen-

dua bortitza eta erasokorra delako, eta ordura arte inoiz gaixotu barik nengoelako.

**Kimioterapiaren prozesuan igarri duzu ezer faltan?**

Osakidetzan denbora luzea pasatzen

**"Patata baten neurriko koskorra topatu nuen bularretako baten"**

**"Prebentzio lana egitea ezinbestekoa da minbiziari aurre egiteko"**

da kontsulta batetik bestera. Eta minbiziari ari garenean, denbora oso inportantea da.

26 urterekin bularrean koskor bat izan arren, ez nik eta ez medikuek ez zuten espero minbizia izango zenik. Agian diagnostikoa lehenago egin izan balidate, ez zen koskorra handituko eta beste tratamendu batekin nahikoa izango zen...

**Tratamenduarekin hasi orduko, beste hainbat gauza etorri zitzaizkizun burura: ileordekoak edo buruko zapiak, adibidez.**

Bai. Oso gogorra da ispilu aurrean jarri eta ile barik zaudela ikustea. Nik beti izan dut ile luzea, eta bat-batean ile barik ikusi nuen nire burua. Gainera, beste gaixotasun batzuk ez bezala, ile barik dauden pertsonak minbiziarekin lotzen ditugu. Agerian geratzen

da gaixorik zaudela.

Tratamendua hasi eta 12 egunera ilea erori egiten da. Azkar geratu nintzen ile barik, eta ez nuen astirik eduki ileordekoak topatzeko. Gainera, nahiko buruhauste izan nuen ileordekoa topatzeko. Horiek saltzen dituzten dendetan, edozer saltzeko prest daude. Sentsibilizazio falta sumatu nuen.

**Laster beteko da urtebete mastektomia egin zizutela. Bular guztia kendu zizuten. Psikologikoki gogorra izan zen?**

Askoz gogorragoa izan zen ile barik ikustea, titi barik baino. Akaso, denborarekin mentalizatu egin nintzen: kimioterapia hartu arren koskorra ez bazen desagertzten, ebakuntza egingo zidaten. Ebakuntzako momentua heldu zenean, moralki, askoz indartsuago nengoen.

**Mastektomiaren ondoren, erradioterapia. Egun, bular berria duzu.**

Orain dela hiru aste jarri zidaten bular berria. Bajan nago, baina egunetik egunera indartsuago. Gainera, azkar, oso azkar jarri didate bularra. Abenduan egin zidaten mastektomia eta dagoeneko bular berria daukat. Emaitzeekin oso gustura nago.

**Orain indartsu zaude, baina ahulgu-neak izango zenituen, ezta?**

Bai, asko, eta horietan etxekoan eta lagunaren indarra ezinbestekoa izan da.

**Etorkizunerako ze kezka dituzu?**

Hasteko, hileroko barik uzten gaituzte bost urterako, prebentzio moduan. Menopausia duen emakumearen ondorioak ditugu.

Gainera, haurdun geratzeko aukera askoz gutxiago ditugu. Baina tira, bost urte barru ikusi-koki dugu.

**Zein aholku emango zenioke minbizi gaitzaren gainean duen gaixotasun bati, edo une honetan tratamenduan dabilen bati?**

Une honetan gaixorik daudenei animoak eman gura nizkieke. Jakin dezatela prozesua oso luzea eta gogorra dela, baina bukaera duela. Bestalde, uste dut oso inportantea dela gaixotasun bera izan dugun pertsonak elkartzeko eta izan ditugun esperientziak kontatzea. Horregatik, elkartu egin beharko genuke.

Bukatzeke, osasuntsu daudenean aholkua: prebentzio lana ezinbestekoa da. Nork bere gorputza eta bularra ezagutzea oso inportantea da.

## ZABALIK

TXIPI ORMAETXEA  
'http://goiena.net/iritzia/'



## Hauteslektik

Maiatzaren 22an ordu mordue pasau nittuen botaziño-lekuen, Gasteizko San Kristobal auzuen. Botue emuten hasi nintzenetik (oker ez banau, 1979ko martiko 1etik) emun doten danetan batera baiño zatixaz denpora gehi-xau emun nauen hauteslektik. Eta azkeneko aspergarri gertatuten bada be, esperientzia moduen ez dau txarto.

Hasiera nahiko ona. Ez dakit lehenengo ordue zalako, edo paparrin ahaldun-txartela naruelako, baiñe aukera izan nauen, aspaldiko partez, euskal nortasun-agiriaz botue emuteko. Azken 10 urtien lortu ez dotena (eta arrarue bada be, lehenau bai).

Goxak aurrera egin ahala, gauzak okertuten hasi ziren. Gure taldeko ahaldun batzuek *Euskal preso eta iheslariak etxera* jarten auen pegatinie garuen paparrin. Baiñe hemen botaziñuetan indertsu dabitzen espainol puruen eragiñez-edo, gox erdirako ertzainiek etorri jakun esanez kentzeke pegatinie, Eskualdeko Hauteskunde Batzordien erabagixen fax-a erakutsiaz batera. Antza batzorde horrek okasiñorako erabagi auen hori. Eta bigarren partie: ertzainien esanetan, botue emun leikien pegatiniaz, baiñe gero botue emun orduko kanpora urten biher zan hauteslektik, boto-emoilliek ezin auen barruen geratu. Taldien barre batzuk egin gittuen...

Arratsaldie luze eta mantso juen zan, eta tarte bat harrapau nauen Mikel Nieve Giroko etapa zoranezagarrixe irabazten ikusteko.

Azkenien be ailegau zan botuek kontetako ordue. Laster kontretu gintzen zeozor arrarue pasetan zala. PSE-EEko kontu-hartzailliek bajutik esan eusten urte asko aruela han mahaixen kontu-hartzaillie lanien, eta berarendako ha termometro ona zala. Gure taldiek lehenau ezker abertzaliek iñoz lortu bako botuek lortu zittuen, nahiz eta talde espainolak eta PNV aurretik izen. Eta gero jakin gauen, oso pozik, kontue orokorra zala.

Gabeko 10:00ak jota urten gauen hauteslektik. PSE-EEko kidiek eskue luzetu eusten. Tristura puntu bat igerrri nutsen arpegixen.

### "Aukera izan nauen euskal nortasun-agiriaz botue emuteko"

## USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | 'zuzen@goiena.com'

## Egitasmo estrategikoak

Demokrazia herritik etortzen da (demos=herria; krazia=gobernua); beraz, herriak izan behar du gobernuaren jabea". Maiatzaren 15eko mugimenduaren *Benetako demokrazia orain!* agiritik hartu dut pasartea. Gipuzkoako herritarrek erraz jotzen dugu eztabaida politikora eta hainbat erabakiren inguruko polarizazioa agerikoa izan ohi da. Demokraziaren kalitatea ere zalantzan jarri ohi dugu maiz. Benetan uste badugu demokrazian sakondu beharra dugula, ordua da hainbat gairen inguruan -biolentziaren amaiera, AHT, zaborrak batzeko sistema, Pasaiako portua, Donostiako metrea...- gipuzkoarren iritzia jasotzeko erreferendum bidez. Korapiloak askatzeko modu egokiena izan daiteke.

## KALE INKESTA

OMS-ek dio mugikorrak minbizia eragin dezakeela. Zer diozu?



BEGOÑA  
ESNAL  
ARRASATE

"Ez dut kasurik egingo. Baserrikoa naiz eta produktu naturalak jan ditut beti, eta orain dela 16 urte minbizia izan nuen".



MARIBEL  
ARIZNABARRETA  
SORALUZE

"Kaltegarria izan daitekeela uste dut, eremu elektromagnetikoak direla-eta. Neurriak hartuko ditut".



JOSE  
VAZQUEZ  
ARRASATE

"Arinegi esan dutela iruditzen zait. Telefonoa erabiltzen jarraituko dut; esandakoari ez diot kasu larregi egin".



MARIO  
JURADO  
ARRASATE

"Eskuko telefonoa daukat eta oraingoz ez diot erabiltzeari utziko, esaten dutena egia izan daitekeen arren".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Sabinator ez da komiki baten izena

Gorka Bereziartua  
http://argia.com/boligrafo-gorria/

Bada jendea, Joaquin Sabinaren kantak letrengatik estimatzen dituen.

Ez naiz horietakoa. *Canallismo* gehiegi aguantatu behar izan duen orok goizago ala beranduago garatzen duen Sabinafobia daukat.

Eta hala ere, duela urte batzuk, unibertsitatean (zehatzago esateko, zuzenbideko klase ezin luzeagoetan) denbora-pasa polita iruditzen zitzaigun lagun bati (zeinaren izena ez dudan publiko egingo) eta bioi Jaengo abeslariarenak izan zitezkeen letrak imitatzen saiatzea.

Haiek barreak, Atlético de Madriden forofoz eta UGTko sindikalistaz enpo egiten zuten kantak osatzen.

Ez genekiena zen, informatikak asko erraztu behar ziela gaur egungo ikasleei afizio bera edukitzea.

Ez dakit nork atera zidan gaia aurreko batean: ba omen zegoela web bat, Sabinaren estiloko letrak automatikoki

sortzen zituena, nahi adina, segundoro berri bat nahi izanez gero.

Hasieran ezinezkoa iruditu zitzaidan.

Ez horrelako letra asko egitea zailegia delako, ez; inork horrelako zerbaite sortzen hasteko oso (baina oso, oso) aspertuta egon behar duelako baizik.

Gu zuzenbideko klaseetan egoten ginena baino aspertuago.

Kalkulatu ezin nuen asperdura bat. Erabateko gogaitasuna. Are, erabateko gogaikeria.

Ba bai, posible da. Aski izan nuen Googleri galdetzea *Sabinator* aurkitzeko (izen tekniko: *Joaquin Sabina Random Urban Poetry Generator*).

Letra bat aterako zaizu eta aski duzu gainean klik egitea, Manolo izeneko gizon, taberna, karta-jokalari, droga-saltzaile, "Apatia" izena duten kale... eta antzeko topikoen kontzentrazio arriskutsua duten kantak dozenaka edukitzeko.

Problema bakarra izan dezake atariak: Joaquin Sabinak deskubritzea. Hotzikarak sentitzen ditut urtean zenbat disko atera ahalko lituzkeen pentsatze hutsarekin.

## Zaharrak berri

Anjel Lertxundi Esnal  
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Txikitako gure bizitza akademiko apalean, gaztelaniarekin batera, gizon probidentzial baten balentriak eta bertuteak irakasten zizkiguten. Ze estrategia ona zen, zer nolako maltzurutasunaz gobernatzen zituen tropak. Nola irabazi zuen gerra, nahiz mendean zeukan ejertzittoa etsaiarena baino askoz ere ahulagoa izan, baina baita ausartagoa ere. Zenbat maite zuen Espainia, zenbat maite gintuen gu. Nola libratu gintuen, lehendabizi Hitlerrengandik, gero Errusiatik. Militarra izan arren, zein diplomatiko ona zen, eta zein gobernari zuzen orekatu bezain esku zabala Nola atera gintuen atakatik, zulotik, miseriatik, zanga historikotik...

Hori eta gehiago irakasten ziguten txikitari. Orduan imajinatzen ez genuena gertatu zaigu: hori eta gehiago irakatsi nahi digutela handitan ere, eta, gainera, berme akademiko guztiekin.

Gezur Historikoaren Erret Akademia deitzen zion El Rotoren atzoko binetak.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna** Xabier Urtzelai  
**Maketaria** Kepa Martelo, Imanol Soriano.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550: Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabela 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabela 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale.  
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAN ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# ZINERAKO SARRERAK



Telefonoz: 943 25 05 05  
 e-postaz: kluba@goiena.com  
 SMS bidez.  
 Bidali Kluba SARRERAK  
 [ bazkidearen zenbakia ] 215800 zkra



# EKAINEKO SARIAK

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05  
 e-postaz: kluba@goiena.com  
 SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.  
 Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

## SKUN-FUNKEKO KAMISETA

ETA POLTSA  
 Bidali Kluba KAMISETA  
 [ bazkidearen zenbakia ]  
 215800 zkra



## LIBURU SORTA UMEENTZAT

Bidali KLUBA LIBURUAK  
 [Bazkidearen zenbakia]  
 215800 zenbakira.



## UMEENTZAKO JOKOAK

Bidali KLUBA JOKOAK  
 [Bazkidearen zenbakia]  
 215800 zenbakira.



## DVD-A

Bidali Kluba DVD  
 [bazkidearen zenbakia]  
 215800 zkra



# 2011n atera etekina txartelari



## AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99  
 ■ Bi erosi eta bat ordaindu  
 (sarrera garestiena ordainduko da)



## AVIA MECA GASOLINDEGIA

Arrasate, 943 79 13 39  
 ■ %2 gasolindegian erregeia erosita.  
 ■ %2 dendako produktuetan



## AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA

Eskoriatza, 943 71 45 66  
 ■ %8 deskontua asteburuko egonaldietan.  
 Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendrak).  
 ■ %10 deskontua jatetxeko kartan.



## BARCELÓ BIDAIAK

Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43  
 ■ 1.000 eurotik gorako erosketekin  
 "B Plana" OPARI  
 (kontratatukoaren arabera: asteburuko egonaldia, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)



## BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21  
 ■ -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.



## GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41  
 ■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.



## ESKO SPORT KIROI DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96  
 ■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan



## GAES ENTZUMEN ZENTROA

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55  
 ■ %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



## CLÍNICA DENTAL BERGARA

Bergara, 943 76 05 77  
 ■ -%10 zerbitzu guztietan  
 ■ -%15 inplanteetan  
 ■ Aho-garbigeta doan,  
 ■ 120 eurotik gorako tratamenduetan  
 Bazkidearentzat eta familiako batentzat



## IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48  
 ■ Sukalde osoa erosita, mikrouhin-labea opari.



## LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71  
 ■ -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).  
 ■ -%20 elikagai-intolerantzia proban.  
 ■ -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.  
 ■ -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.  
 Bazkidearentzat eta lagunarentzat



## MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75  
 ■ %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



## NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89  
 ■ -%15 zerbitzu guztietan.



## RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72  
 ■ -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.  
 ■ -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.  
 ■ Ordezkapeneko autoa, 20 euro.  
 Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.



## TXIKI ZOO

Aretxabaleta, 943 79 51 15  
 ■ Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan.  
 ■ %50erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)



## TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA

Donostia, 943 46 44 00  
 ■ Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia)  
 ■ -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia)  
 ■ -%10 zubi eta oporraldietan.



## ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78  
 ■ %10 deskontua.

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Pedro Mendieta** | EAJko zinegotzia eta EAko alkatea Aretxabaletan (1983-1987 eta 1987-1993)

- ▶ Franco bizi zela izan zen zinegotzi zortzi urtean
- ▶ EAJko zinegotzia eta sailburuordea izan zen gero
- ▶ Eusko Alkartasuna sortu eta alkatetza lortu zuen

## "Oraingoa baino krisi latzagoa bizi izan genuen eta enplegua sortzea zen alkatearen ardura handiena"

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA  
Pedro Mendieta (Aretxabaleta, 1938) urte asko egin ditu politikagintzan, bai Udalean, bai Diputazioan, bai Jaurlaritzan, eta oraindik ez da guztiz aldatu. Ez duela memoria onik dio, eta egindako proiektu zehatzak baino gurago du ekimenak gogoratzea.

**Zelan hasi zinen politikagintzan?**  
Ezkontza egunean, 1966ko urrian, Gasteizen ospatzen geunden bazkarira Aretxabaletako hiru lagun etorri zitzaizkidan *Tercio familiar* delakotik nire sinadura eske. Ezezik ez ematearren txartel bat sinatu nuen, zer egiten nabilen ondo jakin barik. Handik hilabete batzuetara zinegotzi kargua hartzeko deitu zidaten. Halaxe, zortzi urte egin nituen oraindik Franco bizi zela.

**Eta gero, demokrazia etorritakoan, jarraitu egin zenuen.**

Bai; antza, ezetzik ematen ez dakit, eta orduan EAJkoak etorri zitzaizkidan proposamenarekin. Eta zinegotzi nintzela, sailburuorde izateko eskatu zidaten Garaikoe-txea lehendakariarekin. Hara ere joan nintzen, Garaikoe-txeak utzi zuen arte eta EA sortzen hasi.

**Zeuk ere EA taldea osatu zenuen Aretxabaletan eta alkatetza lortu.**  
Halaxe izan zen; bakarrik nengoen herrian, baina bati eta besteari

esanda talde polita osatu genuen. Bildurekin gertatu den antzera, orduan ere ilusioa sortu zuen EAk eta sei zinegotzi lortu genituen. Bi agintalditan lortu genuen alkatetza, baina bigarrena hasitakoan utzi egin nuen ardura, lan kontuekin ezin nuelako bateratu.

**Eta ardura handia zen alkate izatea sasoi hartan?**

Alkatearen ardura batez ere langabezia zen, enplegua sortzea. Oraingoa baino krisi latzagoa bizi izan genuen orduan, %25eko langabezia tasa eta gazteen artean %50erainokoa, eta administrazioak dirurik ez laguntzeko.

**Hortik etorri zen industrialdea?**

Bai; Diputazioan Eli Galdosekin

batera egon nintzen eta bion artean erabaki genuen lehen industrialdeak sortzea Oñatin eta Aretxabaletan. Fagorko zuzendaritza taldean ere banangoen orduan, eta horrek lagundu egin zidan ekimena bultzatzerakoan. Hala, enpresa berriak ekarri genituen gurera, tartean, Diara, Lantek... Zoritxarrez, beste aukera batzuk izan dituzte gerora eta alde egin dute askok.

**Austriako Maria Wörth herriarekin senidetzen saiatu zinen.**

Bai; ekonomia suspertzeko harremanak estutzen saiatu nintzen eta gu bertara joan eta hango ordezkari gurerara etorri zen. Baina Diputazioko eta Jaurlari-



Austriako ordezkariarekin, Mendieta erdian eta Eli Galdos tartean. | ARETXAGAZETA



Pedro Mendieta Belorrieta, auzoko lorategi inguruan. | M.A.

tzako arduradunek ez zuten hala ikusi eta ez zen egin.

**Sasoi hartan hasi zen etxeen eskara herritarren aldetik, ezta?**

Lurra enpresa eraikitzaileek zuten eta prezioak gora eta gora zihozten. Horregatik, Asesa sortu genuen, Aretxabaletako sustapen enpresa, horren bidez etxeen koo-

peratiba osatu eta kontrako eskaintza egiteko; halaxe egin ziren Markoleko etxeak.

**Etxeen eta industriaren arteko oreka lortu guran ibili zinen gero...**

Jasangarritasunari begira herriak ahal den batuena izan behar du. Aretxabaleta estua izanik, etxeak eta industria elkartuta daude eta horrek arazoak dakartza. Hortaz, pentsatu genuen etxebizitzaren eta industriaren artean bulegoak jar-tzea, eta asmo horrekin egin genituen Araba ibilbideko bi bulego-erakinak.

**Eta oraindik politika gertutik jarraitzen duzu.**

Maisu garrantzitsua izan nuen, On Jose Maria Arizmendiarekin, eta hark betiko ardura barneratu zigun: "Ezin dugu konforme bizi sekula, beti dago zelan hobetu". Erretiratuok, gainera, esperientzia, irizpideak eta balio batzuk jaso ditugu eta hori zabaltzea garrantzitsua da.

**"Eli Galdosekin batera lehen industrialdeak jarri genituen abian"**

**"Sustapen enpresa sortu genuen eraikitzaileei kontra eskaintza egiteko"**

# MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



# HERRIAK

ANTZUOLA

## Osasun zentroa gertu; Gaztetxea aurten amaituta egon daiteke

- ▶ Osasun zentro berriak metro kopuru antzerakoa eduki arren, erosoagoa izango da
- ▶ Zenbait lanen ostean Gaztetxeak osasun zentroaren eraikin zaharra erabiliko du laster

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Antzuola azken urte hauetan asko hasi den herria izan da eta apurka-apurka Udala zerbitzuak eguneratzen joan da. Urteetan lokal zaharkituago batean egon ostean, Torresoroa eraikinak osasun eta zaintza arloko zerbitzua bateratuko ditu.

Lokal berriak 155,56 metro koadro izango ditu eta sendagilearen kontsulta, erizain kontsulta, itxarongela eta beste hainbat gela izango ditu. Horrez gainera, zentro berriak medikuntza orokorra eta pediatria zerbitzuak ere emango ditu.

Osasun zentro berriak atek zabaltzeko data zehatzik ez dagoen arren, hilabetea baino lehen gertu egoteko asmoa azaldu dute. Dena dela, esan beharra dago, puntu honetan zentroa Osakidetza eskuetan dagoela eta eurek markatuko dituztela hemendik aurrerako epe eta data guztiak. Lokal berria Osakidetzak kudeatuko duen arren, ez da eraikinarren jabe izango, eta berau erabiltzeagatik alokairua ordaindu beharko dio Antzuolako Udalari.

### Gaztetxe berria laster

Osasun zentroaren aldaketa gauzatzean, Udalak gaztetxe berria eraikiko du. Hori eraikitzeke diru partida 120.000 eurokoa da, orain dela hainbat urte adostutakoa errespetatuz. Aurrekontu horrekin Udalak, gazte asanbladak aurkeztu dituen beharrak errespetatuz, espazio bakar bat sortuko du.

Bertan, taberna bat eraikitzeke asmoa dauka Udalak. Valen Moñux udal aparejadorearen hitzetan "paretak botako ditugu eta barra txiki bat eta eskenatoki bat jarriko ditugu". Guztia ez da berria izango, osasun zentro zaharrak zituen komun errespetatu egingo dira-eta.



Osasun zentro berriaren sarrera. | IMANOL GALLEGO

Proiektuak gainera, tartean gobernu aldaketa eduki arren, aurrera jarraituko du. Udal aparejadoreak ez digu data zehatzik eman nahi izan, baina urte honen amaiera baino lehen egingo daitekeela esan digu; gaztetxe berriaren proiektua "oso aurreratua" dago, Moñuxen arabera. Ia amaituta dauden bi proiektu berri hauekin Antzuola, herri handiagoek dituzten zerbitzu ia berdina izatera pasako da.

### Espazio bera, antolaketa berria

Osasun zentroa tokiz aldatu ostean, osasun zentro zaharra Gaztetxe berria izango da. Udaletik esan digutenez, asanbladarekin elkarlanean egindako proiektu bat da.

Gazteen beharretara egokituko dute eraikin zaharra, komunak mantenduko dituzte, baina gainontzeko paretak bota egingo dira.

VALEN MOÑUX | UDAL APAREJADOREA

### "Guztia prest dago, eta Osakidetzak erabakiko du noiz ireki zentro berria"

Moñux azken boladan osasun zentro berriaren proiektuan ibili da buru belarri. Honekin udalak antzuolaren erosotasuna bermatu nahi izan du.

#### Nork proposatu zuen osasun zentroa aldatzea?

Udalak proposatu zuen. Torresoroa eraiki genuenetik bertan zerbitzu ugari zentralizatzeko ideia izan dugu. Osasun zentroa bertan kokatzea asmoen barruan zegoen zerbitzu izan da.

#### Noiz egingo da aldaketa hori?

Ezin dizut data zehatz bat eman. Udalak bukatu ditu lan guztiak eta orain proiektua Osakidetzaren esku



GOIENA

dago. Badakit altzariak sartzen hasi direla eta Osakidetzak esan zigunaren arabera, ekaina bukatu baino lehen martxan eduki nahi dute, baina ez dakit.

#### Zein abantaila izango ditu zentro berriak?

Lur mailan dagoenez erosotasuna erabatekoa izango da. Guztia egokitua dago, atek zabalagoak dira... Besteak igogailua zuen arren, oraingoa iristerrazagoa da.

#### Lokal berria handiagoa izango da?

Antzerakoa, 10 metro koadroko aldea egongo da batetik bestera. Jendeak ez du tamaina aldaketarik nabarmenik sumatuko.

#### Eta eraikin zaharrean zer egingo duzue?

Beno ez da sekretu bat, udalak Gaztetxea bertan erakitzeke plana martxan dago.

## BERGARA



Uema Eguneako ekintzen artean herrian zehar kantu-jiran ibili ziren. | TXOMIN MADINA

## Arnasguneak babestea aldarrikatu zuten giro bikainean egindako Uema Egunean

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak Bergaran ospatu du bere eguna

**TXOMIN MADINA | BERGARA**  
Uemaren urteko batzarrarekin hasi zen zapatuan Bergaran, *Gure hizkuntzak har dezan arnas* lelopean burutu zen Uema Eguna. Batzar horretan, besteak beste, Mankomunitateko 60. herria izango dena onartu zuten, Deba.

Horren ostean, San Martin plazan ekitaldi instituzionala egin zuten, eta bertan Agurne

Barruso jarduneko alkateak eta Jon Bollar Uemako lehendakariak hartu zuten hitza.

**Arnasguneak babestu beharra**  
Euskararen arnasguneak, gehien-go euskalduna den udalerririk babesteko beharra aipatu du bertan Bollarrek: "Lege babesa behar da, euskara osasuntsu dagoen herrietan ere adi egon behar gara.

Hirigintza proiektu handi batek esaterako, herri euskalduna zena erdaldun bihurtu dezake edozein momentutan".

Bollarrek gaineratu zuen hurrengo agintaldian posible ikusten dutela Uemako udalerririk kopurua ehunera heldu eta populazio aldetik orain baino herri handiagoak hartzea. "Erroka da Uemako kideen biztanleria bikoiztu eta 220.000ora heltzea", azaldu zuen lehendakariak. Ekitaldi instituzionalari amaitzeko, *Auzoko* programan parte hartu zutenek abesti bat errezitatu zuten euskaraz.

Ekitaldiaren ostean, kantu-jira egin zuten herriko kaleetan barna, eta ondoren, 85 lagun inguru bildu ziren herri bazkarian. Horretaz gain, puzgarriak ere egon ziren ira txikitxoendako eta hitz gurutzatuen txapelketa ere egon zen jokoan. Iluntzeko Erlaxiren dantzaldiak eta gauean Gozategik emandako kontzertuak borobildu zuten eguna.



Hitz gurutzatuen txapelketako irabazle Ibon Zaldúa eta Aloña Aranburu. | J.A.



Bertako eta kanpoko jende ugari erakarri zuen Bergara Uema Eguna. | T.M.



**AITOR ZUBIAGA**  
ARRASATE

"Legeak lagundu ez arren, uste dut esparru berriak sortu behar ditugula euskara indartzeko, eta udaletxeak horretarako leku aproposak dira".



**JEXUX ARRIZABALAGA**  
DONOSTIA

"Euskararen normalizazio lortzeko Bergara bezalako herriak, biztanleen %70 baino gehiago euskaldunak dituztenak, Ueman sartu beharko lirateke".



**ARGITXU LARA**  
BERGARA

"Ondo ikusten dut horrelako egun bat antolatzea euskararen erabilera bultzatzeko. Bakoitzak ahal duena egin behar du euskara goian jartzeko".



**PEIO ANDRINUA**  
BERGARA

"Oso ondo doa eguna: ekintza pila bat daude; jendea gerturatu eta ondo pasatzeko oso ondo dago. Garrantzitsua euskara bultzatzeko da horrelako egun bat".



**MAITE ALVAREZ**  
BERMEO

"Uema beharrezkoa da euskara bultzatzeko, eta horrelako egunek, urtean behin, elkartzeko aukera ematen digute. Nahiko genuke halako egunen beharrik ez izatea!"

## BERGARA



Dantza eskolakoek ikurrin dantzarekin amaitu zuten euren ikuskizuna. | JOSETXO ARANZABAL

## Jardunen ikasturteari amaiera emateko, askotariko ikuskizunak

**T.M. | BERGARA**

Jardun euskara elkartearen ikasturte amaierako jaialdia egin zuten egubakoitzean Bergarako San Martin plazan. Bertan, elkarrekoek antolatzen dituzten ikastaro eta eskolatan parte hartu duten neska-mutikoen ikasturtean zehar ikasitakoak erakusteko aukera izan zuten. 50 ume inguru igo ziren taula gainera, eta ikusle dezente erakarri zituzten.

Hala, ordu bete inguru iraun zuen ekitaldian zehar, ikasleek era askotariko ikuskizunak eskaini zituzten. Bertso eskolakoek bertsoak abestu zituzten, eta trikiti eskolakoek, euren aldetik, hainbat pieza jo zituzten txandaka. Dantzariak ere izan zuten euren txokoa egubakoitzean: lehenengo txikienak irten ziren, gero nagusienak, eta bukatzeko,

denek batera ikurrin dantza dantzatu zuten. Giro polita jarri zuten denek ere plazan.

### Gauean, Ain\_1

Arratsaldean neska-mutikoen txanda izan bazen, gauean Ain\_1 taldea izan zen agertokira igo zena.

Arrasateko taldeak, hain berezi egiten duen poesiez, dantzez eta musikaz osatutako emanaldia eskaini zuen, eta arrakastatsu ibili ziren. Horren adibide da plazatik igarotzen zirenen arreta piztea lortu zutela, eta azkenean, plaza bera jendez bete zela.

Ikasturte amaierako jaialdia izanda, balorazioen txanda ere izan zen. Jarduneko kultura koordinatzaile Maitane Arizabalen esanetan, balorazio oso positiboa egiten dute.



Loze siku asko saldu ziren zapatuko azokan. | MIRIAN BITERI

**ESKORIATZA**

# Saltzaileak pozik geratu dira aurtengo Ferixiarekin

- Postuez gain, dantzak eta umeen jokoak izan ziren
- Arratsaldean txapel jaurtiketa egin zuten lehenengoz

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Sasiak garbitzeko makinak, belarritakoak, artilezko jertseak, inguruko baserrietako tomate freskoak edo erroskila gozoak. Horiek eta beste hamaika produktu erosteko aukera izan zuten eskoriatzarrek nahiz inguruko herrietatik heldutako debagoiendarrek zapatu goizean Arizmendi ikastolak geratutako urteroko Ferixien. Eguerdian, batzuek postuak iku-

si eta artisauen lana zuzenean ezagutzen zuten bitartean, beste batzuek herriko dantzariak plazan eskainitako emanaldia jarraitu zuten. San Pedro elizako atarian, bitartean, jo eta su ibili ziren txistorra taloak prestatzen.

**Ilea koloreztatzeko tailerra**

Horretaz gainera, umeek ere euren txokoa izan zuten Santa Marina plazan; besteak beste, puzgarriak

eta aurpegiak margotzeko eta ilea koloreztatzeko tailerrak izan zituzten etxeko txikienean.

Azoka amaitzean, herri bazkari ederra izan zuten pilotalekuan: urdaiatzpiko iberikoa, legatz budi-na, txanpinoiak saltsan, masailak saltsan patata purearekin eta etxeko gazta tarta. Arratsaldean, berriz, txapel jaurtiketa egiten zuten bitartean, oilasko errea dastatu zuten eskoriatzarrek.



Eguerdian herriko dantzariak izan ziren plazan. | MIRIAN BITERI



**BEGOÑA URKIA**  
ARETXABALETARRA

"Oso ondo dago azoka; urtero ez bada, etortzeko ohitura daukat. Eskaintza ikusi eta normalean, erosi ere egiten dut; beti pikatzen duzu zerbait".



**IÑIGO ETA JUANJO LETE**  
MAKINARIA SALTZAILEA

"Oso ondo joan da goiza, salmentak egon dira; makinaria saltzen dut nik. Urtero etortzen naiz, dagoeneko klasikoa bilakatu da Ferixie".



**EMILIO MOLINA**  
EROSLEA

"Eskoriatzakoa naiz eta urtero irteten naiz azoka ikustera. Ikusi bakarrik ez, beti erosten dut-eta zerbait. Aurten, esaterako, ogia eta loreak erosi ditut. Giro ona dago".



**MILA GOÑI**  
GAZTA SALTZAILEA

"Eguraldiak lagundu egin du. Pozik nago, beste urte batzuetan gehiago saldu bada ere. Aurreneko feria egunetik etortzen gara; 15 urte huts egin barik".



**ONATI**

JOSETXO ARANTZABAL

## 225 umeen ahotsek hartu zuten Olakua

Oñatiko Olakuako jaien barruan, *Kantuan kalean* izeneko ikuskizuna eskaini zuten zapatu arratsaldean Elkar Hezi ikastetxeko abesbatza, Jose de Azpiazu Musika Eskolako Abesbatza, Txantxiku ikastolako abesbatza, Ganbara Txiki, Ganbara Txikitxo eta Ganbarako Tailerretako taldeko 100 neska-mutikotik gora. Jaialdian, besteak beste, *Mirrix Katua* ipuin musikala abestu eta dantzatu zuten, Aitor Biainen zuzendaritzapean.



**ELGETA**

JOSETXO ARANTZABAL

## Putzuaren aldamenean jolasean

Asentzio egunaren ospakizunaren barruan, jolasean ibili ziren atzo goizean Elgetako umeak Asentzio gaineko putzuaren inguruan; ura fresko xamar zegoela frogatzeko astia ere izan zuten. Adolfo Jainaga irakaslearen eskutik, ingurunea alaitu zuten bitartean herriko trikitilariak.



Arrasate Herri Eskolako gaztetxoak ederto ibili ziren Iturripeko pilotalekuan jarritako puzgarrietan. | JAIONE CARPINTERO

## Arrasate Herri Eskolaren jaia, arrakasta borobila aurten ere

Ikasturteari agur esateko jaia ospatu zuten joan den egunean Iturripen

**JAIONE CARPINTERO** | ARRASATE  
Eguraldi bikainaren laguntzaz, joan den egunean Arrasate Herri Eskolak ikasturte amaierako jaia ospatu zuen. Gaztetxoek eskolari datorren ikasturtera arte agur esateko aukera izan zuten, baita jolasteko eta primeran pasatzeko ere.

Josune Etxabe Arrasate Herri Eskolako zuzendariaren esanetan, jaiaren helburua da eskola barruan gertatzen dena jendeari erakustea: "Eskola barruan egiten duguna kanpora ateratzeko jaia da, urtean zehar egiten ditugun ekitaldiak gurasoei ere erakusteko". Ikasle gaztetxoak antolatutako kantak, musika emanaldiak eta antzerki saioek ospakizunari hasiera eman zioten arratsaldeko hirurak inguru, Iturripe kiroldegi barruan -aurten Erguinen obrak hasteari darelako egin da Iturripen-. Fes-

ta giroarekin jarraituz, kanpora irteten ziren ikasle guztiak eta askari goxoa banatu zieten egiten zuten giro paregabea aprobetxatuz. Ondoren, gaztetxoak egun osoan irrikaz itxaroten egon ziren momentua heldu zen: hainbat

joko, tailer, puzgarri eta disko festarekin jarraitu zuten eta honela, jaia arratsaldeko zazpiak arte luzatu zen.

### Parte-hartze altua

Umeez gain, guraso asko gerturatu ziren euren seme-alaben ikuskizunen lekuko izatera. Zuzendaria zein guraso elkarteko kideak oso pozik azaldu ziren lortutako jai giroarekin eta parte-hartze altuarekin: "Aurten ere oso altua izan da parte-hartzea eta eguraldia lagun izan dugu; pozik gaude, ezin dugu gehiago eskatu".

Orain atsedena hartzeko unea heldu zaie jaiaren antolatzaileei, baina laster datorren ikasturteari begira gauzak prestatzen hasi beharko dira, besteak beste, datorren ikasturteko amaierako jaia aurtengoa bezain borobila izan dadin.

### ESANAK

**"Aurten ere oso altua izan da parte-hartzea eta eguraldia lagun izan dugu"**

**JOSUNE ETXABE** | ARRASATE HERRI  
ESKOLAKO ZUZENDARIA

## Hainbat ekitaldi izango ditu Goikobaluk ekainean zehar, irteera eta guzti

Bartzelonara joango da gazteen taldea ekainaren 17tik 20ra bitartean bi emanaldi eskaintzeko

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Urtero ikasturtearen amaieraren gertatzen denez, kontzertuen agenda ekintzez lepo dauka Goikobaluk ekainerako. Zapatuan Bedoñako elizan eskaini zuten kontzertua ahots teknika lantzen diharduten ikasleek, Ana Elortza eta Haizea Muñoz irakasleen gidaritzapean.

Zapatuko saioa hasiera besterik ez zen izan. Egubakoitzean,

hilak 10, ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute Goikobaluko txikienek San Juan parrokiaren (18:00). Haur kantak, euskal kantu herrikoien moldaketak eta Los chicos del coro filmeko kantaren bat eskainiko dute. Zuzendariak izango dira Maialen Gonzalez eta Amaia Aboitz. Horrez gain, ekainaren 15ean Goikobaluk Gazte abesbatzak Aldai parkean -karpa zuriaren azpian-

eskainiko du saioa. Bi zati izango ditu kontzertuak. Batetik, iraganeko eta egungo euskal kantak interpretatuko dituzte eta, bestetik, herrialde ezberdinetako kantuak izango dira protagonista. Raket Murgiondo arituko da zuzendari eta iragarri dutenez, Titanic filmeko kantu ezaguna ere abestuko dute.

### Elkartruke programa

Goikobaluko gazteek, gainera, Euskal Herritik kanpo bi kontzertu eskainiko dituzte. Bartzelona aldera joango dira hilaren 17tik 20ra. Bartzelonako euskal etxean eta Can Castello deritzon kultur etxean izango dira saioak, eta noski, kontzertuez gain, Bartzelona ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek. 37 abeslari joango dira. Uztailean kantari kataluniarrak etorriko dira gurera.

## Aurten, 'La Revoltosa': alaitasuna eta amodioa dakartzan zarzuela

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Izaskun Murgia elkarte lirikoak *La Revoltosa* zarzuela egingo du aurten. Tere Gonzalez zuzendari orokorrek aspaldi erabaki zuen 2011ko zarzuela, urtarrietik gutxienez. Izan ere, lan handia eskatzen du azaroko azken bi aste bukaeretan Amaia antzokia betetzen duen zarzuela egiteak. Martxoan hasi ziren entseguekin eta Gonzalez arabera, jantziak eta agertokia ia amaituta daude.

Ekainaren 13an egingo dute lehen entsegua, musikari eta eszenarako beharrezkoak diren osagai guztiak: "Lan handia eskatzen du eta azaroan dena ondo irteten dadin denboraz hasi behar gara lanean".

### Madrilen girotua aurten ere

Iazko *La Gran Via* eta duela hiru urteko *El Barberillo de*

*Lavapies* zarzuelen antzera, aurten ere Madrilen girotutako obra aukeratu du Gonzalezek. Protagonisten artean bi nabarmenduko dira: Mari Pepa eta Felipe. Bi protagonista horien paperak Susana Vazquez eta Enrique Altuna arrasatearrek beteko dituzte, hurrenez hurren.

Bestalde, XIX. mendeko Madrilen girotutako zarzuela jendearen gustukoa dela deritzo zuzendari orokorrek: "Jendeari asko gustatzen zaio. Kantuak oso alaiak direlako aukeratu dut *La Revoltosa*, baina oso motza denez, sei emanaldi gehiago egingo dira". Hauek dira aparteko sei saio horien izenburuak: *La verbena de la paloma*, *El año pasado por agua*, *La Calesera*, *El bateo*, *Agua, azucarillos y aguardiente* eta *Romanzado de los claveles*.



Amaia antzokia bete egiten du urtero zarzuelak; irudian, iazkoa. | ARTXIBOA

## Erizaintzako laguntzaile lanbidearen garrantzia azpimarratzeko, 'Photomiradas' argazki lehiaketa

Arizmendi ikastolak erizaintzako laguntzaileen garrantzia azpimarratzeko *Photomiradas* deritzon argazki lehiaketa antolatu du lehenengoz. Izena emateko azken eguna da ekainaren 20a -izena emateko 943 77 20 25 telefonora deitu- Lau sari egongo dira. Bi argazki onenei zuzendutako sariez gain publikoaren eta bilduma onenaren saria ere egongo dira.

## Hainbat gai izango dituzte berbegai gaur, agintaldiko azken Tokiko Gobernu batzarrean

Astelehenero moduan, Tokiko Gobernu batzarra egingo da gaur, 15:00etan, udaletxeko bilera gelan. Agintaldiko azkena izango da eta gai zerrenda luzea da oso. Honakoak izango dituzte hizpide, besteak beste: Hirigintza batzordeak Debagoieneko Bus Rapid Transit proiektua aztertuko du eta baita herriko merkataritza biziberritzeko plan berezia. Horrez gain, hainbat diru-laguntza eskaera aztertu beharko dituzte.

## Txorbela otxoteak Arrasaten eta Donostian saio bana eskainiko du, Suediako otxote batekin batera

Arrasateko Txorbela otxoteak bi hitzordu berezi ditu ekainerako. Lehena etxean izango da: kontzertu berezia eskainiko dute egubakoitzean, hilak 10, San Frantzisko elizan (20:00). Gonbidatu berezia izango dute, izan ere, Suediako Ragnarök otxotearekin batera eskainiko dute kontzertua. Gainera, hurrengo egunean Donostiako 14. Musika Astean ere parte hartuko dute bi otxoteek: zapatuan, hilak 11, Kaputxinoen elizan (20:30).



Futbola utzi dutenen talde argazkia Mojaitegin, euren azken partiduaren ostean: Loiti, Etxeberria, Laspiur, Roa, Garin, Tena eta Muruamendiaratz. | JOKIN BEREZIARTUA

# Txikitatik zuri-morea defendatzeaz harro, heldu da lekukoa uzteko unea

Belaunaldi aldaketa ekarriko duen denboraldia amaitu du Mondrak; klubean ia bizitza osoa egin duten sei jokalarik agur esan diote futbolari

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Adina, lana eta "behingoz" norberendako denbora izatea. Horiek dira ibilbide osoa -edo ia osoa- Mondran egin duten jokalariek futbola uzteko eman dituzten arrazoen artean gehien errepikatu direnak. 2010-2011 denboraldia belaunaldi aldaketarena izango da klubarendako; izan ere, txikitatik elastiko zuri-morea defendatu duten lehen taldeko sei jokalarik agur esan diote futbolari. Mondran hasi eta Mondran amaitu: Jon Muruamendiaratz, Illart Etxeberria, Ekain Garin, Iker Laspiur, Jon Loiti eta Iban Roa.

## Sei jokalarik, sei istorio

Atzetik datozei lekua uzteko unea dela uste du Muruak: "31 urte ditut dagoeneko eta bada garaia gazteei lekua uzteko. Gainera, niretako denbora luzeagoa

izatea asko eskertuko dut. Hori bai, denboraldi-aurrea heltzen denean igarriko dut zerbait falta zaidala", dio. Etxeberriak, bestalde, futbolaz gain beste motibazio batzuk bilatu gura ditu: "Futbolak asko eman dit, baina dena ez da futbola. Gainera, adinean aurrea goaz eta beste zaletasun batzuk ere bilatu nahi ditut". Taldeko beste veteranoenetako batek, Ekain Garinek, lana du arrazoi nagusi: "Hiru errelebutara ibili naiz azken zazpi urteotan eta horrek asko nekatzen du. Horrekin batera, lehen baino ilusio gutxiagorekin ari nintzen azkenaldian; heldu zait ordua".

Iker Laspiurren erabakian ere lanak du pisu handien, baina honakoa ere gaineratu du: "Hankek nahikoa dela esan didate eta erabakia hartuta dago. Gainera, ezin naiz kexatu, agurra oso bere-

zia izan zelako: jende berezia harmailetan, lagunak pankarta eta guzti zelaian, eta, hori gutxi balitz, aureskua. Oso hunkigarria izan zen". Jon Loitiren kasuan, duela bi urte izandako mokorroko lesioak eragin du agurra, eta baita lanak ere: "Operatu ostean, medikuek esan zidaten berriz ere lesiona nintekeela asko behartuz gero. Eta entrenatzera lanetik zuzenean joateaz ere nekatuta nengoen; eskertuko dut denbora libre luzeagoa izatea".

Azkenik, Iban Roak honela azaldu du futbola uzteko erabakia: "Azkeneko nekatuta nengoen eta lanarekin ez zitzaidan bateragarria. Hala, asteburuetan askatasun handiagoa izango dut; hori bai, kirola egiten jarraituko dut, baina nire kontu". Enrique Tenak ere utzi du futbola, azken bi urteak Mondran egin ostean.

## Kirola egiten jarraitzeko asmoa

Federatu izateari utzi diote, baina ez du esan nahi kirola egiteari utziko diotenik. Izan ere, guztiek adierazi digute euren kontura izerditzen jarraituko dutela. Aretotako futbolaz gain -"beti egongo da Zaldibarko futbito txapelketa", dio Muruak-, bizikletara igotzeko asmoa erakutsi dute gehienek.

Datorren denboraldian Mojaitegiko harmailetan egongo direla ziurtatu dute, "etxeko partiduetan behintzat", taldea animatuko dutela. Goiz da oraindik futbol zelaian ikusiko dutena aurreratzeko, baina argi dago batez besteko adinak behera egingo duela. Iban Rodriguez ohituta dago gazteekin lan egitera -UDAKo gazteak mailaz igo zituen bi urtez jarraian-, eta horrek azken urte irregularrari ilusioz aurre egitera gonbidatzen du kluba.

## ESANAK

**"Bada garaia gazteei lekua uzteko; hori bai, denboraldi-aurrea heltzen denean igarriko dut"**

JON MURUAMENDIARATZ | AURRELARIA

**"Asko eman dit, baina dena ez da futbola; beste zaletasun batzuk bilatu gura ditut"**

ILLART ETXEBERRIA | ATZELARIA

**"Errelebutara lan egiteak asko nekatu nau, eta ilusio gutxiarekin nengoen; heldu zait ordua"**

EKAIN GARIN | ERDILARIA

**"Nahikoa dela esan didate hankek. Agurra oso berezia izan zen, asko hunkitu nintzen"**

IKER LASPIUR | ATZELARIA

**"Operatu ostean ez behartzeko esan zidaten medikuek; eskertuko dut denbora libre"**

JON LOITI | ATZELARIA

**"Nekatuta nengoen eta ez zen lanarekin bateragarria; asteburuetan askatasuna eskertuko dut"**

IBAN ROA | ATZELARIA

S  
SABURDI  
harategia • urdaitegia  
gourmet

HARATEGIA  
URDAITEGIA  
Eta orain baita ere  
AURREZ PRESTATUTAKO  
JANARIAK



**LEKUZ ALDATU GARA!**

Otalora Lizentziatua (UARKAPE ONDOAN)  
Tel.: 943 79 86 15

# Ibargarain sortzen diren auto-ilarak murrizteko obrak udan egingo dira

- ▶ Miguel Altunako semaforoak kendu egingo dira
- ▶ Zurradero eta Ibargarai biribilgune bilakatuko dira

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Udalbatzak beti izan du Ibargarai kalearen inguruan gertatzen diren auto-ilarak murrizteko asmoa eta badirudi, uda honetan egingo diren lanen ostean, auto-ilarak desagertzen ez badira behintzat, dezentze murriztuko direla.

Lanak, ekarriko dituzten trafikoz mozketak direla eta, uztailea eta abuztua bitartean egingo dira, herritarrei ahalik eta buruhauste gutxien sortarazteko. Ibargarai

eta Zurradero kaleetan egingo diren lanek guztira 119.000 euroko aurrekontua daukate eta hauek burutzeko asko jota hilabete bateko epea edukiko du enpresak.

Agurne Barrusok argi utzi nahi izan du obra hauen asmoa ez dela aparkaleku gehiago sortzea, baina alkatearen hitzetan "bi noranzko izatetik, noranzko bakarra izatera pasatzean, aparkaleku gehiago egin ahal izango dira, baina ez zen gure asmoa".

## Biribilgune sistema

Itxura hori izango duen arren, ez ba biribilgune berririk erakiko. Miguel Altunako bidegurutzeko semaforoak desagertu egingo dira eta bidegurutze horretatik lur azpiko aparkalekuetara, Ibargarai kaleak noranzko bakarra izatera pasako da. Herri-gunera doazen autoek ez dute aldaketarik jasango baina udal frontoitik autobus geltokirako noranzkoek Ibargarai zeharkatu



Udalak Ibargarai kalean eraberrituko duen zatia. | ASIER ALKORTA

beharrean Zurradero kalea erabiliko dute. Trafikoaren aldaketa hauekin bi aipatutako kaleek biribilgune luze bat eratu dute, inguru horretako trafikoa dezentze arinduaz.

Ondorioz, aparkalekuak ugarituko dira, baina doako OTAK berdin jarraituko du. Kale honentzako udalaren plana, aparkalekuak sortu beharrean, hasieratik trafikoa arintzea izan da-eta.



Proiektuan parte hartu duten bi ikasle. | MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA

## Mariaren Lagundiak 2. saria lortu du Armeria eskolako sariketan

4. DBHko hiru ikaslek lortu dute saria "Esne Muu Kamioia" proiektua diseinatzeagatik

I. GALLEGU | BERGARA

Aurten guztira 8 proiektu aurkeztu dituzte eta Mariaren Lagundiak 2. saria lortu dute. Ez da lehiaketa honetan lortu duten lehen saria, duela 3 urte sari berdina eskuratu zuten eta.

### Leihaketa asmoak

Ikaskideen arteko talde lana eta irudimena teknologiarekin lantzeko asmoarekin sortu ziren

Eibarreko Armeria eskolako sariak, eta datuei kasu egiten badiogu, Bergaran irudimen ugari dagoela erraz antzeman daitekeela konturatuko gara.

Lorea Franco, Joseba Osa eta Guillermo Regorigo ikasleak, Ekaitz Axula irakaslearen zuzendaritzapean urreneko kontrol bitartez gidatzen den esne auto ikusgarria auzeratu zuten leihaketara.

## Mendekoste jaien inguruko saio berezia Txapa irratian

Datorren martitzeneko Sasi guztien azpitik saioak gai berezia izango du. Mendekoste jaiak bueltan ditugula eta gaueko 21:00etan jaietara errepasoa egingo diote Txapa Irratikoek. Saioan zehar, Mendekoste jaien egitaraua hizpide erabilia ekintza garrantzitsuenak aipatuko dituzte. Gainera, gazte asanbladak gaztetxean eta Herri mugimenduak txosnetan, gertatu duen egitarauari arreta berezi eskainiko diote saioan. Hortaz, aurtengo Mendekoste jaietan izango diren ekintza garrantzitsuenen berri izateko, badakizue zuen etxeetako irratia fm 97,25an piztu eta guztiaz jabetuko zarete.

## Plan estrategikoaren jarraipena egiteko kontseilua eratu da

Bergarako plan estrategikoa definitu ostean, udalak herritar kontseilu bat eratzeko zuzen helburu, plan horren nondik norakoak definitzeko. Aurreko astean, 30 pertsona inguru elkartzeko zuzen udalaren planaren kontseiluaren lanak ongi definitzeko. Lehen bilera honetan Barruso alkateak parte hartu zuen eta hurrengo udalbatzari kontseiluaren berri emango ziola gaineratu zuen. Agurnek gainera, gobernu aldaketa dela eta, hurrengo bilera irailean egingo zela gogorarazi zuten parte-hartzaile guztiei. Gorberru aldaketaren ostean Barrusok herritar moduan kontseiluan parte hartzeko asmoa agerian utzi zuen.

## Infernukua taberna, berriz zabalik

Belaunaldi askorentzat erreferente izan den Infernukua tabernaren irekiera egin zen eguaztenean. Alejandro Gonzalez lehengo jabearen ilobak taberna lehengo espiritu berarekin zabaltzea erabaki du, jaiak egiten, kontzertuak ematen eta afariak prestatzen, besteak beste. Irekiera jaietan jende ugari bildu zen.



JAIONE CARPINTERO



# Begarako besarkada gogoratu dute Irizarren

Hori eta etxearen alderdi historiko-artistikoa jasotzen duten panelak jarriko dituzte atarian



Espartero jenerala. | GOIENA



Maroto jenerala. | GOIENA

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Irizar jauregiko atarian etxearen historiari buruzko panelak jarriko ditu Udalak. Iaz uztailean herriko ondare historiko-artistikoa balore turistikoan jartzeko bideragarritasun plangintza onartu zuen Udalak eta haren baitan jarriko dituzte panelok Irizarren.

Esku-hartze museografiko horren helburuak dira, alde batek, 1939. urtean Espartero eta Maroto jeneralek sinatu zuten Begarako komenioa gogoratzea eta, beste aldetik, Irizar jauregiaren alderdi historiko-artistikoa garrantzitsuenak nabarmen-tzea.

## Lanak aurkezteko modua

Atariaren eskumako aldean Begarako komenioa azalduko dute, eta horretarako, izkina bakoitzean erliebean figura bat jarriko dute, batean Espartero eta bestean Maroto, tamaina errealean. Bi irudion artean, sinatu zen komenioaren gaineko azalpena jasotzen duen panel handi bat egongo da.

Atariaren ezkerreko aldean, berriz, ertzetako bakoitzean, bi metroko egiturak jarriko dituzte eta jauregiaren eta lorategiaren aspektu historiko-artistikoa garrantzitsuenak nabarmenduko dira haietan, testu eta irudien bidez.

## Batzarra, ume sahararrak udan etxean hartzeko

M.B. | BERGARA

Sahararen aldeko Begarako Bubisher elkarteak uztailean eta abuztuan haur sahararrak etxean harteko kanpaina abiarazi du. Umeoi Aljeriako Tinduf errefuxiatuen kanpamentuetatik kanpo oporrak pasatzeko aukera eskaintzea da kanpaina horren helburua. Izan ere, 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutikook Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan jaio eta hazi dira eta euren familiekin batera erbestealdi luzea jasaten ari dira, oso baldintza gogorretan: elikadura, osasun eta hezkuntza gabezia handiak dituzte eta udan 50 graduko tenperaturak jasaten dituzte.

Elkartasun proiektu horrekin, haurrei beste errealitate bat bizi eta ezagutzeko aukera eman nahi zaie. Umeok etxean hartzeko interesa dutenendako batzarra deitu du Bubisherrek gaurko, astelehena, 19:00etan, Errotalde kultura etxean.

## Hainbat kale berrirendako izenak onartu zituzten osoko bilkuran

M.B. | BERGARA

Asteleheneko ohiko osoko bilkuran hainbat kale berriren izenak onartu zituen aho batez udalbatzak.

Alde batetik, Ugarte kalea zatitzean kale berria sortuko da San Lorentzo aldean egiten diharduten etxegunean. Beste aldetik,

Larramendi industriagunean kale nagusi bat eta beste zortzi zeharkale sortu dira.

### Ernai taldea gogoan

Ugarte zatitzean sortuko den kale berriari Ernai kalea izena jarriko diote. Ernai 60. hamarkadan euskarazko antzerkigintzan jar-

dun zuen herriko talde baten izena da. 1965. urtean hasi ziren lanean eta gorabehera batzuk tarteko, jarraipenik ez izatean, 1972an desegin egin zen. Ernaikoez ospe handia lortu zuten, eta Euskal Herriko herri ugarritan antzeztu zituzten euren lanak.

Larramendi industriaguneari dagokionez, kale nagusiari Larramendi izena jarri diote. Zeharkaleei: Errementari, Hargin, Errotari, Ehule, Ikazkin, Labanagile, Jostun eta Arotz.

## Eguaztena da azken eguna Pazkoetako bazkarirako txartelak erosteko

A.E. | BERGARA

Eguaztenean, ekainak 8, bukatuko da Pazkoetako herri bazkarirako txartelak erosteko epea. Kultura etxean, Depor, Ariznoa eta Frontoiko tabernetan daude salgai. Prezioa 15 euro da; 10 euro, 10 urtetik beherako umeentzat -umeendako txartelak kultura etxean

bakarrik salduko dira-. Zeliakoez txartela erosteaz gain, kultura etxera deitu behar dute (943 77 91 59). 700 txartel jarri dituzte salgai.

Eguraldi txarra eginez gero, Labegaraietako kiroldeian izango da bazkaria. Autobus zerbitzua egongo da, Oxirondo azokatik abitatuta.

## Begarako Orfeoia Mieresen egon zen

Begarako Orfeoia Mieresen (Asturias) egon zen aurreko asteburuan. Hango abesbatzak gonbidatuta kontzertua eskaini zuten. Mieresko Orfeoia Bergaran egon zen apirilaren 16an; hortaz, elkartrukearen itzulia izan da Begarako Orfeoia aurreko asteburuan Asturiasera egin zuena.



BERGARAKO ORFEOIA

# Irteera, bingo berezia, omenaldia eta hitzaldiak, gaurtik, Erretiratuen Astean

Gaur hasiko dituzte ospakizunak eta domekan bukatu, kiroldegian egingo dute bazkariarekin

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkarteko kideek ospakizunetan pasako dute aste osoa. Gaurtik domekara arte ekitaldi bana izango dute egune-  
ro. Askotariko ekitaldiak egingo

dituzte. Erretiratuen Astea has-  
teko, Aloña abesbatzaren konz-  
zertua entzuteko aukera izango  
dute. Gaur, astelehena, izango  
da, agustindarren elizan,  
18:30ean.

Biharko, hitzaldia antolatu  
dute. Nagusilango kideek Men-  
dekotasun Legearen gainean  
egingo dute berba elkarteko are-  
toan, 17:00etan. Legearen nondik  
norakoak eta egungo egoera azter-

tuko dituzte. Eguaztenean, irtee-  
ra egingo dute. Urtero moduan,  
San Martinera joango dira,  
10:30ean, eta han hamarretakoa  
egingo dute. Egun berean, zinema  
emanaldia egingo da.

## Bi erretiraturik omenaldia

Eguenean, astero egiten duten  
moduan, bingo jokoa izango dute,  
17:00etan, sari bereziekin. Egu-  
bakoitzean, txokolate-jana egingo  
dute, eta, Erretiratuen Astea  
bukatzeko, ekitaldi potoloena  
domekan, hilaren 12an, egingo  
dute. 12:00etan meza berezia egin-  
go dute parrokiari, eta ondoren,  
bazkaria kiroldegian. Herriko bi  
erretiratu omenduko dituzte. Gai-  
nera, Udal Musika Bandak eta  
Oñatz dantza taldeak emanaldi  
bana egingo dute. Era berean,  
opariak banatuko dituzte.

## Musika eskolakoek ikasturte bukaerako jaialdia egingo dute egubakoitzean

10 talde eta 250 ikasle elkartuko dira Herriko Plazan, 19:00etan

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolakoek  
euren musika kalera aterako dute.  
Ikasturtean zehar landutako kan-  
tuak eta piezak erakutsiko dituz-  
te herritarren aurrean. Ikasturte  
bukaerako kontzertua egingo dute,  
egubakoitzean, hilaren 10ean,  
Herriko Plazan, 19:00etan. Guzti-  
ra, 10 talde eta 250 neska-mutiko  
igoko dira oholtza gainera.

Musika eskolako arduradunek  
dei berezia egin gura diete herti-  
tarrei kontzertuan parte har deza-  
ten. Hainbat gonbidapen bidali  
dituzte. "Gurekin dantza egin eta  
musikaz goza dezaten gura dugu",  
esan digute.

Gainera, beste bi ekitaldi egin-  
go dituzte musika emanaldiaren  
aurretik eta ondoren. 18:30ean  
batuka izango da protagonista.  
Lengoaia Musikaleko 4. mailako  
ikasleek, perkusio ikasleekin bate-  
ra, batukada egingo dute Oñatiko  
kaleetan.

Emanaldia bukatzeko play-  
dance egingo dute Rioren *Like I  
love you* kantua erekin. 3 urtetik  
hasita, musika eskolako ikasle  
guztiek parte hartuko dute. Esko-  
la orduetan ikasi dute kantua ere  
koreografia, eta plazan erakutsiko



Musika eskolako ikasleak iazko kontzertuan. | JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

dute. "Gurekin dantza egin gura  
duenak aukera izango du. Bukae-  
ra koloretsua izango da", esan  
digute.

### Askotariko kantuak

Baina, batuka eta koreografiaren  
arte, musika izango da prota-  
gonista. Tarte horretan bai, era-  
kutsiko dute ikasturte osoan lan-  
du dituzten piezak. Lehenak gan-  
bera taldeko ikasleak izango dira.  
Euskal kantuak *-Triste bizi naiz  
-eta-*, modan dauden hainbat kan-

tu *-Lady Gagaren Bad Romance-*  
eta klasikoak *-The Beatlesen  
Yesterday* eta Mecanoren *Hijo de  
la Luna* eskainiko dituzte.

Perkusio taldekoek Phil Collin-  
sen kantu baten bertsioa egingo  
dute, xilofonoarekin, bateriarekin...  
Akordeoi taldekoek *Lei it be-hey  
Jude* eta *The Lion sleeps tonight*  
joko dituzte, besteak beste; eta  
triki-pandero taldekoek *Kolore  
gabeko* eta *Bi neska-zahar*.

## Nikaraguaren alde, erabilitako 1.000 boligrafo batzeko erronka du Ulma

M.B. | OÑATI

Ulma taldeak beste erronka bat  
dauka esku artean: ekainean  
zehar erabilitako 1.000 boligrafo  
batu gura ditu. Ulma Fun-  
dazioaren bidez, hezkuntzaren  
aldeko apustua egin, eta bat  
egin du *Etagukzergatikez* egi-  
tasmoarekin. Hil osoan batuko  
dituzten boligrafoak Nikara-  
guara bidaliko dituzte, hango  
neska-mutikoen eskolaratzea  
errazteko. *Etagukzergatikez*  
proiektuko kideek bidaliko  
dituzte boligrafoak eskolara.

### Kaxak ipini dituzte

Deialdia egin dute Ulmako bule-  
go eta produkzio planta guztie-  
tan. Erabilitako baina gastatu  
gabeko boligrafoak batuko dituz-

te hilaren 24ra arte. Hori horre-  
la, beheko argazkiko moduko  
kaxak ipini dituzte materiala  
batzeko. "Kampainak iraungo  
duen hilabetean, bazkide eta  
langile guztiek Nikaraguako  
umeen hezkuntzaren aldeko  
proiektuan aktiboki inplikatzeko  
aukera izango dute", esaten  
du Ulmak.

Gainera, boligrafoak batze-  
ko deialdia egin diete herriko  
ikastetxei ere. "Mondragon Ira-  
kasle Eskolako lau ikaslek bul-  
tzatu duten proiektua izanik,  
herriko ikasleei zabaldu diegu  
deialdia", diote Ulmakoek. Era-  
bilitako boligrafoak batzeko  
kaxak ipini dituzte Elkar Hezin,  
Txantxiku ikastolan, Errekalden  
eta Institutuan.



Erabilitako boligrafoak batzeko kaxak. | ULMA

## Bertsoz bertso eskolan ikasitakoa erakutsi zuten gaztetxoek

Gu ere bertsoan lelopean egin  
zuten aurreko asteko eguaztenean  
bertso jaialdia kiroldegiko  
pilotalekuan. Herriko lau  
ikastetxetako 400 bat  
neska-mutikok eskola orduetan  
sortutako bertsoak kantatu  
zituzten: bertso originalak. Batzuk  
instrumentuen laguntzarekin eta  
beste batzuk mozarrotuta.



MIREIA BIKUÑA

## OHARRAK

### DEIALDIA

Irailean Oñatz eguna ospatu  
gura dute, eta dantza taldean  
ibili diren txistulariekin bile-  
ra egingo dute eguaztenean,  
20:00etan, kultura etxean.

### ERREKALDEKO ZOZKETA

Errekaldeko jaietan sarituta-  
ko zenbakiak dira: lehenengo  
saria, 4.526; bigarren saria,  
4.651; eta hirugarren sariak,  
2.206 eta 2.625. Txartelen jabeek  
jai batzordeko antolatzaileekin  
jarri beharko dute hartu-e-  
manetan.

### DEIALDIA

Egubakoitzean egingo dute  
oporren aurreko azken odol-  
-ateratzea, Txantxiku ikasto-  
lako aretoan (18:00-20:00).

## ESKORIATZA

Ane Miren Arrese | Mendiolako auzo alkate berria

## "Gazteak erakarri nahi ditugu, elizateko dinamikan sar daitezzen"

- ▶ Iñaki Madinabeitia ordezkatu du hemendik gutxira Ane Miren Arresek
- ▶ Igor Etxabe, Ugutz Muñoa eta Xabier Lasagabaster izango ditu ondoan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Mendiola elizateak alkate berria du: Ane Miren Arrese. Udalean Elizateetako zinegotzi moduan jardungo duen Iñaki Madinabeitia ordezkatu du Mendiolan jaiotako 40 urteko emakumeak.

**Dagoeneko alkate zara?**

Ez, oraindik ez. Eskoriatzako Udala ekainaren 11n osatuko bada ere, ez dakigu zenbat kostatuko zaien funtzionatzen hasia. Gu, dena dela, dagoeneko hasi gara aldaketa egiteko tramiteekin, eta Iñakik elizateetako ardurak pasa dizkit. Ekainerako dena egina gotea espero dugu.

**Zeintzuek osatzen duzue elkarte berria?**

Lau gara. Ni neu, alkatea; Igor Etxabe, presidenteordea; Ugutz Muñoa, idazkaria; eta Xabier Lasagabaster, diruzaina. Auzoetan, dena dela, normalean alkateak egiten du lan. Lau gara, elkarte-ko estatutuek kargu horiek izatea eskatzen dutelako.

**Ze-nolako lanak izango dituzue aurrerantzean esku artean?**

Argindarra hainbat tokitan jar-



Ane Miren Arrese. | MIRIAN BITERI

"Orain dela 20 urtetik gora egiten zen 'Larger' festa berreskuratu dugu"

tzeko obrak daude aurreikusita. Aurten ez dago aurreikusita bestelakorik; datorren urtetik aurrera begira badaude beste hainbat. Bere egunean, Peñakulu-Uriaga baserrira ez zen Urkuluko ura eroan; Bolibarren egin zen presa baserrira baino beherako dago eta zaio iristen. Behar diren baliabideen bidez ura haraino eroatea da asmoa. Urkulu aldera doan bide zahar bat ere konpondu nahi dugu.

Horretaz gainera, gazteak erakarri nahi ditugu. Bide onetik gabiltzala uste dut; besteak beste, elkarte berria osatzen dugunon artean, ni naiz-eta zaharrena. Gainera, joan den astean *Larger* festa egin genuen. Orain dela 20 urtetik gora genuen festa da; 150 bat lagun elkartu ginen.

**Auzolanetan ere lana egongo da, ezta?**

Bai, beti daude. Urtean birritan egiten ditugu. Gu saiatzen gara, ahal bada behintzat, esku lana kentzen. Esaterako, iaz, bide bat asfaltatu genuen. Gazte askok parte hartu zuten horretan, lehen ez zirenak egoten.

## ARETXABALETAKO

## Abentura parkea, Albiña, Gamarra eta Atxorrotz, aurtengo 'Udaero' egitasmoan

Egun osoko bost ekintza, festa eta lau eguneko irteera izango dituzte gazteek

M.B. | ESKORIATZA

Azken bost urteotako ohiturari jarraituz, *Udaero* egitasmoaren harira antolatutako askotariko ekitaldiekin gozatu ahal izango dute Eskoriatza eta Aretxabale-tako 12 eta 17 urte bitarteko gazteek. Uztailearen 4an hasi eta 24an amaituko da; epe horretan, egun osoko bost irteera, azken festa eta lau eguneko irteera luzea antolatu dituzte bi herrietako udal gazteria sailek, Txatxilipurdirekin batera.

Uztailearen 4an abentura irteera izango dute. Lekunberriko Beigorri parkera joango dira; besteak beste, zuhaitzen gainetik zirkuitua, tirolina eta bestelakoak izango dituzte han. Irteera horren prezioa 10 euro da.

**Orientin lasterketa Urkulun**

Handik bi egunera, Orientin lasterketa egingo dute Urkulu inguruan; 5 pertsonako taldeak osatuko dituzte, eta mapa eta iparrratza eskuan dituztela lehiatuko dira. Ibilbide zuzena egiten duen lehen taldea izango da irabazlea. Lasterketan parte hartzeak bi euro balio du. Uztailearen 7an, ostera, Albiñara joan eta parrilada egiteko asmoa dute.



Joan den urtean Degurixan izan ziren gazteak. | ESKORIATZAKO GAZTERIA ZERBITZUA

Uztailearen 11n, *Udaero*-n dagoeneko klasiko bilakatu den irteera izango dute: Gamarrako igerilekuena, hain justu. Bost euro ordaindu beharko dituzte interes dutenek. Uztailearen 14an Atxorrotzera joango dira, bazkaldu ostean; asmoa da Uxarran kanpamendua jartzea eta bertan gaua igarotzea eta izarrak ikustea. Irteera horretara joateko 2 euro ordaindu ordaindu behar dira, eta plazak mugatuak dira.

Egun osoko irteerez gain, uztailearen 18an azken festa eta

kontzertua egingo dute herriko musika talde gazteekin. Azkenik, uztailearen 22tik 24ra bitarterako, kostaldera irteera antolatu dute. Arrasatekoekin batera egingo dute hori. Ekimen horren kostua 40 euro da.

Ekintza horietan guztietan parte hartu gura dutenek izen-emate eskaera bete behar dute, eta diru sarreraren ziurtagiriarekin edo diruarekin gazteleku edo gazteria zerbitzuetara joan beharko dute. Izena emateko azken eguna ekainaren 30a da.

## ARETXABALETAKO

**Ekainean arratsaldeetan egongo da zabalik herriko KZgunea, 16:00etatik 20:00etara**

Ekainean arratsaldeetan egongo da zabalik Aretxabaleko KZgunea, astelehenetik egubakoitzera; hain justu ere, 16:00etatik 20:00etara. Metaposta ezagutzeaz gain, Izenpe txartela lortu eta IT txar-teleko azterketak egin ahal izango dira. Ekainaren 8an, 13an, 23an eta 29an egingo dira azken horiek. Horretaz gainera, honako ikastaroak egiteko aukera izango da, besteak beste: Internet, e-Administrazioa KZgunea, QR kodea, Writer, Draw, Facebook eta Twitter.

**Martitzenera arte eman daiteke izena Murruxok hilaren 12an egingo duen Gorbeiko irteeran**

Aretxabaleko Murruxok Gorbeia mendira irteera antolatu du ekainaren 12rako, domeka. Barazar mendatetik (Bizkaia) egingo dute mendizaleek igoera, eta, gurutzera iritsi ostean, Murgiarantz (Araba) abiatuko dira. Autobusa 07:30ean irtengo da, Azbe lantegi pareko geltokitik. Interesatuak martitzena, hilak 7, baino lehen eman behar dute izena Murruxok Durana kalean duen egoitzan, 19:00etatik 20:00etara. Irteerak 15 euro balio du.

## OHARRAK

**'VIVAMAZONIA' FILMA**

Aste Berdearen barruan, *Vivamazonia* filma emango dute egunean, hilak 9, Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan.

**ODOL ATERATZEA**

Astelehenean, odola ateratzen izango dira osasun etxean, 16:30etik 20:00etara.

**MUSIKA EMANALDIA**

Martitzenean, Musika Eskola-ko ikasleen flauta eta biolin emanaldia izango da Arkupen, 18:30ean. Eguaztenean, berriz, piano (17:30) eta perkusio (19:00) emanaldiak egingo dira.

**AMAIA IRURE IRABAZLE**

Oñatin egindako Gipuzkoako bertso paper lehiaketan Kurtzebarri eskolako ikasle Amaia Irure izan zen irabazlea, *Lore sorta bat egin duzu* gaiarekin. Eskolakoek Irure zoriondu gura izan dute.

*Lanerako gertu!*

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Oñati gestio heziketa

[www.mondragon.edu/gep](http://www.mondragon.edu/gep) [www.mondragon.edu/enpresagintza](http://www.mondragon.edu/enpresagintza)

**GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012**

**Izenematea Ekainaren 1etik 10arte**

**Matrikulazioa Uztailearen 4tik aurrera**

| MGEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | OÑATI Gestio Heziketa                                                                                                                                      |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak</li> <li>• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.</li> <li>• Sareko Informatika Sistemen Administrazioa.</li> <li>• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua.</li> <li>• Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa</li> <li>• Industri Ekipoaren Mantenimendua.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazioa eta Finantzak</li> <li>• Idazkaritza</li> <li>• Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a</li> </ul> |
| <b>Kontsulta pertsonalak:</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                            |
| 943 71 21 91<br>E-posta: <a href="mailto:aarriaran@eps.mondragon.edu">aarriaran@eps.mondragon.edu</a>                                                                                                                                                                                                                                                               | 943 71 80 09<br>E-posta: <a href="mailto:enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu">enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu</a>                          |

**ELGETA**

## Ikasturte amaierako ekitaldiak prestatzen hasiak dira eskolan

Espaloiko jaialdia ekainaren 17an egingo dute; aurretik, irteera egingo dute Txuri Urdinera

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

San Juan bezperan, ekainaren 23an, emango diote amaiera ikasturteari Herri Eskolako neska-mutikoei. Aurretik, irteera, jaialdia eta bazkaria egingo dituzte. Jaialdia Espaloian egingo dute ekainaren 17an, 15:00etan. Ikasturte amaierako bazkaria, berriz, 23an egingo dute.

### Irteera ekainaren 10ean

Datorren astean irteera egingo dute. Ekainaren 10ean hustu egingo da eskola. 2 eta 3 urteko geletako neska-mutikoei Eloorrion egingo dute goiz pasa. Baserri bat ikustera joango dira eta Elgetara itzuliko dira bazkaltzeko. Lehen aldia da eskolak

irteera antolatzen duena adin horretako umeendako. Gainerako eskola-umeak Donostiako Txuri Urdinera joango dira. Bazkaria eta aldatzeko arropa eraman beharko dituzte. Ekainaren 12an, berriz, Abaltzisketan egingo den eskola txikien jai dago; guraso elkarteak autobusa antolatu du.

### Bilera guraso berriekin

Bederatzi ume sartuko dira datorren ikasturtean 2 urteko gelan. Eskolako arduradunek bilera deitu dute guraso horiendako. Ekainaren 8an, eguaztena, egingo dute, 16:00etan. Gelako tutorea eta eskolako zuzendaria izango dira bileran.



Elgetako umeak mozorrotuta. | L.Z.

**ANTZUOLA**

## Bi hitzaldi eta trikiti kontzertua asteon

Eguenean izango dira hitzaldiak eta eguaztenean trikiti kontzertua

**USOA AGIRRE** | ANTZUOLA

Datorren eguenean, ekainak 9, bi hitzaldi izango ditugu herrian. 17:00etan, erretiratuen elkartearen, *Erretiro aktibo eta solidarioa* gai moduan hartuta egingo dute hitzaldia, Kutzaren Gizarte Ekintzak antolatuta. Hitzaldia helburua da erretiratuei informazioa ematea hiritarren arteko parte-hartzearen inguruko ekimenen eta boluntario-tza elkarten gainean. Bigarren hitzaldia, berriz, 18:00etan izango da, herriko eskolan. Eider Arzelus eta Enara Agirre antzularrek egingo dute hitzaldia guraso eta seme-alaben arteko erlazioen gainean. Titulu hau du hitzaldiak: "Erlazionatzen, komunikatzen gara gure seme-alabekin?".

Eguaztenean, bestalde, Edurne Iturberen trikiti ikasleek

kontzertua eskainiko dute. 19:00etan izango da, Torresoroako aretoan.

### Juanina Garaik jarraituko du

Antzuola Kirol Elkarteak baieztatu du Juanina Garaik arrasatearrak jarraituko duela datorren denboraldian ere futbol talde nagusiko entrenatzaile moduan. 2010ean hartu zuen taldearen ardura, eta, lehenengo denboraldian "lan ona" egin ostean, Garaik jarraituko du hurrengoan ere. Bestalde, klubaren asmoa da harrobiko jokalariek egingo dute hitzaldia mailan beste talderen bat sortzea.

Talde horiekin batera, emakumezkoen taldeak eta futbol zortziko infantilen taldeak ere jarraipena izan dezaten nahi du klubak.



14 lagunek –horietatik bat bazkide ez dena– izan ziren Kultur etxean egin zen batzarrean. | JOKIN BEREZIARTUA

**ARAMAIO**

## "Euskara elkarteak krisian daude eta Txirritola, tamalez, ez da salbuespena"

Eguenean egin zuen Txirritolak urteroko batzar orokorra eta, besteak beste, hiru juntakide berri proposatu ziren; euren oniritziaren zain daude orain

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Joan den eguenean egin zen Txirritola euskara elkartearen urteroko batzar orokorra. Honako gaiak landu zituzten, besteak beste: 2010eko eta 2011n orain arte egin diren ekitaldien balorazioa, 2010eko balantzea eta zuzendaritza talde berria izendatu eta karguak berritzea. Kultur etxeko bigarren solairuan egin zen batzarra eta 14 lagun hurbildu ziren, horietako bat oraindik bazkide ez dena.

### Elkartearen eraginkortasunaz

Batzararen amaieran Txirritolaren filosofiaz eta helburuez aritu ziren berbetan: gogoeten artean, honako galdera planteatu zuen orain arte elkartearen presidente izan den Xabier Herrartek: "Euskara elkartearen jarduna nola egin daiteke eraginkorra

herriarrei begira?". Horrez gain, orain bi urte egin zen planteamendua ekarri zuen gogora: "Zenbateraino komeni da, hau da, noraino da komenigarria bizirautea mugatzea? Batzuetan etenaldi bat ona izan daiteke, elkarte arnasberritu dezakeelako. Hori bai, ez dakit esaten Txirritola egoera horretan dagoenik". Horren harira, bazkide batek honako gogoeta egin zuen: "Euskara elkarteak krisian daude, inguruko herrietara begiratu besterik ez dago. Eta Txirritola, tamalez, ez da salbuespena".

Batzarreko beste ondorioetako bat izan zen herriarrek, oro har, ondo erantzuten dutela Txirritolak antolatzen dituen ekintzetan. Baina argi dute, era berean, ez direla Udalaren kultura agenda betetzera mugatu nahi; haize berriak behar dituzte.

### Juntakide berriak proposatu

Azken urtean zuzendaritza taldean izan diren Olatz Altuna, Eskarne Ugarte eta David Jauregik beste urtebetez jarraituko dute eta beste hiru juntakideak bozketa bidez aukeratu ziren atzoko batzarrean, Txirritolak egun dituen 107 bazkideen artean. Horien oniritzia behar da orain datorren urtera arteko zuzendaritza taldea osatzeko. Hala, azken bi urteotan juntakide izan diren Xabier Herrarte eta Rosa Mondragonek zuzendaritza utziko dute.

Diru kontuei dagokienez, azkenik, osasuntsu dago Txirritola. Azken urteko balantzea negatiboa izan da –700 euro inguru galdu dira–, baina dirua ez da aitzakia ekintza ezberdinak antolatzeko. Diru-laguntzei esker, ekintzak antolatzeko orduan ez da inongo erreparorik izan.

Otsiak. Eta gaineratu du: "Gugan jarritako konfiantza eta itxaropenari ez diogu bizkarrik emango. Ahalegin guztiak egingo ditugu aurrera egiteko, baita laguntza eskatu ere".

### Jaiak gertatzeko lanak

Aurretik aurre duten lanari ekin aurretik jardunean daudenekin elkartu dira, "jakiteko zer dagoen martxan eta bukatzeko". Argi dute Gatzagaren garapen eta etorkizunari begira egingo dutela lan, baina, lehenengo, hainbat jairen antolaketari helduko diote: auto igoera, San Juan bezpera, San Martinak, Andramaixak eta San Milixanak.

**LEINTZ GATZAGA**

## Lanean hasteko gertu daude udalbatza berria osatuko dutenak

Zapatuan hartuko dute kargua eta herriarrek jarritako konfiantzari ez diote hutsik egin gura

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Zapatuan, hilak 11, eratuko dute datozen lau urteotarako udalbatza eta Gatzagako Hautesle Elkartearen kideek karguak hartuko dituzte. Mexikotik etorriko da Eugenio Otsoa, jardunean dagoen Eusebio Villarrek emango dion koroa hartu eta alkate izendapena jasotzeko.

Maiatzaren 22an 121 boto jaso zituen gatzagarrek osatutako taldeak, eta PPK bakarra. "Oso gustura gaude emaitzekin, batez ere herriak adierazi digulako herriko jendearekin nahi duela. Batzuetan gaizki ulertuak egon arren, gureari gure artean tiratu behar diogula guztiok garbi daukagula adierazi digute emaitzek", dio



# Kantari

## eman izena!

Udazkenean egingo dugu KANTARI. Beraz, Debagoiengan bizi bazara, 1999 eta 2003 urteen artean jaiotzen, eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazauden, animatu eta eman izena.

**Gutxienez hiru lagun eta gehienez bost laguneko taldeak** osatu beharko dituzue. Abestiak zozketa bitartez banatuko ditugu.

Oraindik izena eman ez baduzu bete beheko eta eraman Goienako edozein egoitzetara.

• Internet bitartez ere eman dezakezu izena ondorengo helbidean: [www.zugaz.com](http://www.zugaz.com)

**Aurten gurasoekin bilera informatiboak egingo ditugu:**

- Arrasate: ekainaren 7an, Kulturaten 18:30ean.
- Bergara: ekainaren 7an, Kultura etxean 18:30ean.
- Oñati: ekainaren 6an, Gaztelekuan 18:30ean.
- Aretxabaleta: ekainaren 6an, Arkupen 18:30ean.

Beharrezkoa da datu guztiak betetzea!

### izen emate txartela :

Talde bakoitzean hiru pertsona izango dira gutxienez

Taldearen izena:

Harremanetarako pertsonaren izena:

Harremanetarako telefono mugikorra:

Helbide elektronikoa:

| Izena                | Abizena              | Jaiotze data         | Ikastetxea           |
|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |

**Informazio gehiago:**

- [zugaz.com](http://zugaz.com)
- Tel.: 943 25 05 05

ANTOLATZAILEA

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA



# KIROLA



Asier Mugarza oñatiarra Clio Sport autoaz. | XABIER URTZELAI



Mekanikoak Bernardo Cardinen Ferrariari bultza egiten, irteera puntura eramateko. | XABIER URTZELAI



Aitor Zabaletaren autotik ateratako erretratuan, zaleak Bergarako pilotua animatzen, Gorlako Igoerak.

## AUTOMOBILISMOA

# Gorlako Igoerak Zabaleta eta Ramirez liderrago egin ditu

- ▶ Eguraldiak lagunduta zale asko batu zituen, berriro, Gorlako Igoerak
- ▶ Antolatzaileek zorrotz jarraitu zituzten ipinitako segurtasun neurriak

XABIER URTZELAI | BERGARA

Aitor Zabaletak (Lola BMW) jaun eta jabe jarraitzen du Gorlan (02:33:47), etxean, eta baita Euskadiko Mendiko Sariko txapelketan ere. Eta, gauza bera esan genezake Aitor Ramirez (BMW 320 ST) oñatiarraren gainean ere, turismotan lehenengo (02:49:96). Eurak izan ziren eguneko protagonistetako batzuk, baina ez bakarrik.

Irteera puntuan ikusmin handia sortu zuen Bernardo Cardin asturiarraren Ferrari Modena 360 autoak. Ikustekoa motorrak ateratzen zuten hotsa, baina entrenamendu txanda hastearekin batera amaitu zen espektakulua, sailkapen orria jasotzearekin batera bistan geratu zelako pilotu beteranoak ez zuela autoa estutzeko asmorik –edo ohitura; Ferrariak sailkapenaren erdialdean amaitu zuen proba –auto hori aproposagoa da zir-

kuitutarako–, eta batek baino gehiagok apusturen bat edo beste galdu zuten.

CM kategoriari dagokionez, Ruben Nogueiras eta Joseba Iraola izan ziren kategorian horretan nor baino nor gehiago. Entrenamenduko txandan Nogueirasek direktzioaren besoetako bat hautsi zuen, eta ez zuen lehenengo

txanda baino lehenago autoa konpontzerik izan. Hala, txanda bakarra eginda (02:47:18) Oñatikoa bigarren postuarekin konformatu behar izan zen, Iraola azkarraoa izan zen-eta (02:46:95).

FL kategorian, berriz, Txus Jaio (BMW E30) azkar ibili zen (02:57:23), baina deigarria da igoratan lehenengoz parte hartzen

dabilen Ander Corcuera ondo estutu zituen autoak dituen 360 zaldia (Vw Golf 1.8 GTI) lortutako bigarren postua, Jaiorengatik bi segundura.

A kategorian Josu Lertxundi (BMW M3) nabarmendu zen (02:57:28) eta David Ardions hirugarren izan zen sailkapenean (Mitsubishi EVO), hura ere bi

segundura. Arratsaldeak izan zituen istripu txikiei dagokionez, aipatu dugu Nogueirasek izan zuen arazo teknikoa. Horrez gain, Eskoriatzako Joseba Frutos erretiratu egin zen Citroen AX autoa kolpatu ostean, eta Inhar Amenabar aramaioarra azkar ibili zen jabetu egin zelako haren aurretik zihoan Xabier Agirrek autoa irauli zuela.

### Jende asko proba jarraitzen

Gorlako Igoerak jendetza batu zuen igoerako kurba bakoitzean. Federazioak, eta antolatzaileek, zorrotz zaindu zituzten segurtasun neurriak eta kurba itxietan ikusten zen hori nabarmen. Baina ez Gorlan bakarrik, joan den astean Aian ere hala egin zuten; Udanako igoeran pasatakoaren ostean, zorrotz jarri dira.

Zorrotasun horrek pilotuei ere eragin die, garbi adierazi dietelako ez dituztela onartuko alde batetik bestera derrapatzen joaten diren horiek, eta horrek ikusle batzuen haserrea sortu du. "Ikuskizunaren kontrako legeari ez", zioen pankarta jarri zuten Gorlako lehenengo paellan. Baina, igoerak lasterketak dira, eta antolatzaileek ez dituzte nahi erlojuaren kontra lehian ibili beharrean autoarekin zeharka –neurrigabe– ibiltzen diren horiek. "Bergarako antolatzaileok pozik amaitu dugu, jendeak errespetatu egin dituelako segurtasun neurriak, eta baita komisarioek esandakoak", adierazi digu Xabi Zabaletak.

### DATUA

# 2.33

MINUTU

Aitor Zabaleta izan zen eguneko gizonik azkarrena. Gorlako Igoeran hark du errekorra (2.21) baina beste sasoi batzuk ziren haiek, eta beste kontrario batzuk zituen.

### ESANAK

"Lortutako garaipena baino haratago, zaleek lasterketan izan duen jarrera eskertu nahi dut"

AITOR ZABALETA | IRABAZLEA

"Ikusleek errespetatu egin dituzte segurtasun neurriak, eta komisarioek esandakoak"

XABIER ZABALETA | ANTOLATZAILEA

## TXIRRINDULARITZA | Euskal Herriko erlojupekoa Bergaran | 24



igoerako lehenengo paellan. | JOSETXO ARANTZABAL



Roberto Gomez bergararra, lehenengo paellan. | X.U.



Zabaleta, irten aurretik. | JOSETXO ARANTZABAL



David Ardions (Mitsubishi EVO) igoerako lehen metroetan. | X.U.



Aitor Arnaiz oñatiarra (R5GT Turbo) irtetzeko zain. | JOSETXO ARANTZABAL

### SAILKAPENA

1. Aitor Zabaleta 02:33:47
2. Joseba Iraola 02:46:95
3. Ruben Nogeiras 02:47:18
4. Aitor Ramirez 02:49:96
5. 'Lebeti' 02:57:08
6. Txus Jaio 02:57:23
7. Josu Lertxundi 02:57:28
8. Ander Corcuera 02:58:33
9. Iban Tarcisio 02:59:00
10. David Ardions 02:59:10
11. Josetxo Duperou 02:59:49
12. Jon Etxeberria 03:00:49
13. Asier Mugarza 03:02:52
14. David Pelaez 03:04:48
15. Aitor Arnaiz 03:04:60
16. Andoni Murgaza 03:05:26
17. Joseba Garcia 03:07:89
18. Jon Arregi 03:09:66
19. J. Antonio Insausti 03:09:88
20. Xiker Ayerza 03:11:01
21. Inhar Amenabar 03:11:01
22. Oier Gorrotxategi 03:11:31
23. Mikel Otxoa 03:11:72
24. Iñigo Peña 03:11:88
25. J. Manuel Prieto 03:11:98
26. Joseba Mitxelena 03:12:72
27. Iñaki Cancelo 03:12:87
28. Kepa Karmona 03:13:05
29. Aitor Rocha 03:14:42
30. Emilio Huerta 03:14:83
31. Alex Goñi 03:14:86
32. David Hernandez 03:15:08
33. Roberto Gomez 03:15:35
34. Egoitz Mujika 03:15:65
35. Josu Gerekiz 03:16:98



**INHAR AMENABAR**  
ARAMAIO, R5 GT TURBO

"Kotxeak ondo erantzun dit eta eguraldiak ere lagundu egin du. 2. mangan aurrekoak istripua izan du eta segundo batzuk galdu ditut, baina oso gustora ibili naiz".



**AITOR ZABALETA**  
BERGARA, LOLA DIAMANTE

"Antolatzaileek segurtasunean egindako ahaleginak ikuskizun polita izaten lagundu du. Pozik nago, kotxe askok parte hartu dute eta eguraldiak ere lagundu du".



**AITOR RAMIREZ**  
OÑATI, BMW 320ST

"Oso gustora ibili naiz, errepidea egoera onean dago eta eguraldiak lagundu egin du. Parte-hartze handia izan da eta antolakuntzak lan handia egin du".



**ANDER CORCUERA**  
ARRASATE, VW GOLF 1.8 GTI

"Oso gustora ibili naiz, zirkuitoa oso polita da. Bigarren mangan hanka altxa behar izan dut, baina hirugarrenean topera joan naiz eta sailkapenean 8. postua lortu dut".



**MIKEL OTXOA**  
ARETXABALETA, BWM TOURING

"Giro ikaragarria egon da eta eguraldiak ere asko lagundu du. Bi mangan ofizialean denbora berdina egin dut, ehunenetako diferentzia baino ez da egon".

TXIRRINDULARITZA

# Asier Maeztuk 'hegan' egin zuen Bergarako erlojuaren kontrako zirkuituan

Asier Maeztu, Omar Fraile eta Aitor Rey artean banatu zituzten erlojupeko txapelak

XABIER URTZELAI | BERGARA

"Esan beharreko guztiak aurrez esanda daude, lasterketan animuak eta erreferentziak ematea baino ez dago", zioen Jon Odriozolak (Bidelan-Kirolgi) Euskal Herriko Erlojupeko proban azken txirrindularia, Maeztu, irten aurretik. 13:00ak pasatxoan irten zen eguneko azken ziklista, faborito nagusia.

Azken detaileak ondo zaindu, ura hartu eta bizikleta ikusgarriaz irteera puntura gerturatu zen Maeztu, 15 kilometroko zirkuituari hiru itzulitan hegan egiteko. Hortik aurrerako 35:20 minutuak bihotza estutzen pasa zituen ziklista olinpikoak [Zilarra 2004-ko Olinpiar Jokoetan, jazarpen proban], baina beste batzuetan baino gutxiago, autotik zuzendariak, Odriozolak, erreferentzia garbiak ematen zizkiolako. Talde bereko Mikel Bolibarri segituan hartu zion minutuko alde -helmugan 1:35-, baita bigarren sailkatu zen Azysako Mikel Ilundaini ere -helmugan 1:28. "Baina auto barrutik lasterketak beste modu batean bizi izaten dira, bizikletan doanak ez duelako ondo jakiten jasotzen dituen erreferentziak egiazkoak diren ala ez. Askotan, motibatze-edo ez da egia osoa esaten", adierazi zuen Maeztuk garaikurra jaso ostean.

Bada, haren pedalkolpe bakoitza jarraitu zutenek garbi zuten jasotzen zituen erreferentziak egiazkoak zirela, gutxiatik ez zituen-eta aurrekoak harrapatu.

**Omar Fraile eta Aitor Rey**

Elitean Asier Maeztu izan zen onena, baina goizeko lehenengo

saioan, gazteenean, Aitor Rey (Asfaltos Olarra) izan zen azkarrrena (25:04). Hor, aipatzekoa da Bergarako Sumofic taldeko Mikel Aristik eta Eneko Lizarralde egindako lana, bosgarren eta seigarren: "Gipuzkoakoan ez genuen proba honetara sailkatzea lortu, baina azkenean gonbidatu egin gaituzte. Hala, guretako pozgarria izan da etxean korritzearekin batera aurrealdean ibiltzea, hor egoteko gauza gine-la erakustea", adierazi zuen Lizarralde (25:48). Bergarako onenaren saria, baina, Aristik jaso zuen (25:28). Domekan, berriz, gazte mailako lasterketa irabazi zuen Aristik Donostian.

23 urtez azpikoetan, Seguros Bilbaoko Omar Fraile gailendu zen (35:43), nahiko eroso, gainera. Frailek duela hilabete gutxi erakutsi zuen, Gorka Igoeran, aldapa gora bikain moldatzen dela, baina zapatuan beste ezuste bat eman zuen santurtziarrak, erlojuaren kontra trebea dela erakutsiz. Ziklista osoa da, eta Euskaltelen ere jabetu dira horretaz; fitxatu dute dagoeneko.

DATUA

44.1

KILOMETRO ORDUKO

Batazbesteko hori egin zuen Maeztuk zapatuko erlojuaren kontrako proban. 26 kilometroko zirkuitua osatzeko 35 minutu eta 20 segundo behar izan zituen.

ESANAK

"Lasterketara gonbidatu egin gaituztenez guretako garrantzitsua zen denbora ona egitea"

ENEKO LIZARRALDE | ZIKLISTA

"Lasterketa ondo antolatuta egon dela uste dut; auto-ilada luzerik ez dut ikusi; hori ere garrantzitsua da"

IKER SANCHEZ | ENTRENATZAILA




Eneko Lizarralde bergararra, goizeko lehen orduan, sahesbidetik Bergarara sartzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Jon Garate, domekako lasterketako irabazlea. | J.A.



Bidelan-Kirolgi Unai Iparragirre Labegarietako zuzenean, atzean Olinpiar Jokoetan.



Lasterketan kategoriatuak irabazleak, podiumean. | X.U.



Omar Fraile, lasterketa irabazlea.

ASIER MAEZTU | ELITE MAILAKO IRABAZLEA

"Bizikleta gainean ez dugu jakiten erreferentziak benetakoak izaten diren"

Olinpiar Jokoetan domina bat eskuratu zera den dakien Asier Maeztuk (Donostia, 1977) iazko arantza ateratzen ahal izan zuen Bergarako lasterketan. Berriro ere zentratuta dago kirol horretan, eta lasterketan egindako denborak erakusten du hori.

**Kanpotik, lasterketa hasi eta berehala garbi ikusi da gaur ez zenuela kontrariorik izango.**

Nik ere banituen zuzendariak emandako erreferentziak, baina halakoetan ez dugu jakiten erreferentzia horiek benetakoak diren ala ez. Batzuetan ziklista motibatze, ala gauzak txarto badoaz egia osoa ez esateko, guk jasotzen ditugun erreferentziak ez dira beti benetakoak izaten. Eta, zalantza hori izaten dugu [Barre]. Dena dela, ziklistak, proban zehar dituen sentazioei esker, nor-



Asier Maeztu. | X.U.

malean, jakiten du ondo dabilen ala ez dabilen horren ondo. Eta, gaur hasieratik sentitu naiz ondo eta imajinatzen nuen denborek ere hori adieraziko zutela.

**Gustura, horrenbestez.**

Bai, gustura geratu naiz. Haizea zakarrago hasi da nire txanda iritsi denean, eta alde horretatik aurretik irten direnek abantaila txiki bat izan dute; baina, topera egin ahal izan dut proba dena, eta zorionez, haizeak ez du proban eragin handirik izan.

**Ibilbidea, zer irudi zaizu?**

Polita, oso polita. Lehenengo kilometroetan egia da errepeidea ez zegoela egoera oso onean, konponketa lanak zirela-eta hainbat zulo zeudelako.

Saihesbidean, berriz, azkar joateko tarte ederra zegoen, eta hor ahalegindu naiz denbora irabazten, azkar joaten. Antzuolara bidean dagoen saihsbide zatian, baina, tunela baino lehenago, malda gogorra zegoen, eta hori gogorra egiten zen topera igotzen. Indarreko zirkuitua zela iruditu zait.





riozola. | XABIER URTZELAI



azi ostean, pedalei eragiten. | X.U.

## ERLOJU AURKAKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

### GAZTEAK

1. Aitor Rey 25:04
2. Xabier Bengoetxea 25:08
3. Asier Unanue 25:22
4. Luis Pascual 25:25
5. Mikel Aristi 25:28
6. Eneko Lizarralde 25:45
7. Jon Armendariz 25:47
8. Eder Saez de Ocariz 25:48
9. Xabier Gorrotxategi 26:09
10. Aitor Alonso 26:14

### 23 URTEZ AZPIKOAK

1. Omar Fraile 35:43
2. Igor Merino 36:24
3. Illart Zuazubizkar 36:25
4. Sergio Ruiz 36:45
5. Beñat Txoperena 36:56
6. Raul Martinez 37:25
7. Ioritz Urdangarin 37:41
8. Sergio Rodriguez 37:44
9. Alain Gonzalez 37:57
10. Loic Chetout 38:10

### ELITE MAILA

1. Asier Maeztu 35:20
2. Mikel Ilundain 36:48
3. Asier Bolivar 36:55
4. Ivan Gonzalez 37:46
5. Iban Leanizbarrutia 37:53
6. Mikel Elbusto 38:14
7. Unai Iparragirre 38:25



Cipris (irabazleak) urdinez, bigarren sailkatu ziren Mc Auenekin. | IMANOL GALLEGO

### FUTBITOA

## Eskoriatzako Cipris taldeak gol bakarragatik irabazi du aurtengo finala

Partidua (4-4) emaitzarekin amaitzu bazen ere, luzapenean Ciprisek Mcauenek baino gol bat gehiago sartu (5-6) eta garaipena lortu zuen

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Aurtengo Zaldibarko futbito txapelketako sariak Eskoriatzara egin zuen ihes. Antolatzaileek behin eta berriz zioten bezala "aurtengoa oso final parekatua izan da". Lehen zatian Cipris taldeak aurrea hartu zuen eta bazirudien finala erabakita zegoela, baina bigarren zatian Mcauen taldeak gogor ekin zion eta partidua berdintzea lortu zuten arrasatearrek.

Bi taldeek jokaldi bakoitza borrokatzen zuten eta Zaldibarren batu ginenak ere zirrara horren parte izatea lortu zuten. Markagailua etengabe aldatzen zen, eta falta edo jokaldi polemiko bakoitzak jendearen protestetan edo txaloetan eragiten zuen. Partiduko berdinketa horrek luzapena derrigortu zuen.

Azken hamar minutuetan tentsioa igarri egiten zen. Arrasatekoek gol bakarra sartu zuten bitartean, Eskoriatzarrek bi sartu zituzten, (5-6). Azken minutuetan Mcauenek aldeko kórner bat izan zuen. Tentsioa nabaria zen, eta akaso horrek eragin handiegia izan zuen. Berdinketa lortzeko aukera galdu ostean, partidua bukatua zegoen. Gol bakarrak erabaki zuen finala.

Bien arteko lehia biziaren ondoren cava, eta sarien txanda iritsi zen. Aipatzekoa, jokaturako final lehiakorren ondoren bi taldeen arteko harremana. Mcauen taldeko Aitzolek zioen moduan "hobeto jokatu dute eta emaitza bidezkoa izan da". Bigarren gelditu diren arren, pozteko arrazoi ugari dituzte arrasatearrek, finalerdietan aurreko

urteko irabazlea garaitu zuten-eta. Hala ere, aurtengoa Eskoriatza joan da.

### Aratz izan zen gakoa

Zalantzarik gabe bera izan da finaleko jokalaririk garrantzitsuenak. Haren gaztetasuna medio, Aratzek lan handia egin zuen Ciprisek garaipena lortu ahal izateko: lau gol sartu zituen eta partidua irabazi zuen jokaldi garrantzitsu guztien parte izan zen. "Gustura jokatu dudana final bat izan da, eta emaitza ikusita, poztasuna erabatekoa da" zioen Aratzek; jokalaria onena izendatu zuten.

Finalaren aurretik Lasagabasterrek eta Driblingek jokatu zuten txapelketa hirugarren postuan amaitzeko. Lasagabasterrek irabazi zuen (3-1).

JON ODRIOZOLA | BIDELAN-KIROLGIKO ZUZENDARIA

## "Faborittoa zarenean asko izaten da galtzeko, eta gutxi irabazteko"

Bidelan-Kirolgi zuzendari Jon Odrizola (1970) pozik zen taldeak egindako lanarekin. Harekin jarraitu genuen, auto barrutik, Maezturen lana.

### Helburua beteta.

Bai, gustura geratu naiz taldeak egin duen lanarekin. Iaz ere asmo horrekin joan ginen txapelketara, baina gauzak ez ziren ondo irten. Gaur, berriz, lehenengo eta hirugarren egin dugu, oso pozik. Asko poztu naiz Maeztugatik, baina baita Bolivarrengatik ere, duela



J.Odrizola. | X.U.

gutxi erorketa izan zuelako, eta ondo errekupekatzen dabilako.

### Ezzen hitzordu erreza zuendako.

Horrelako lasterketak, etxean, arraro samarrik izaten dira. Faborittoa ginen, eta hala-koetan gutxi izaten da irabazteko, eta

asko galtzeko. Beste batzuetan, berriz, alderantziz gertatzen da.

### Ibilbidea, gustuko?

Bai, gustatu zait. Bazirudien erraza zela, baina sahisbideko aldapan asko gogortzen zen proba.

### KARATEA

## Kyokushinkai txapelketa Bergarako labegaraietan

Zapatuan, Kyokushinkai karate txapelketa egon zen Labegaraietako kiroldegian. Saioa (Arrasate), UDA (Aretxabaleta) eta Giartzu (Bergara) taldeko 77 gazte karatolari lehiatu ziren. Parte-hartzaileek kata eta kumite modalitate ezberdinetan jardun zuten, bertaratu zen ikuslegoaren txaloak piztuaz.



JOSETXO ARANTZABAL

## ERRUGBI

# Bera Bera nagusitu da nazioarteko zazpiko txapelketan; kadetetan, Getxok irabazi du kopa

Zilarrezko kategorian, arrasatearrak hirugarren geratu dira, Ordizia eta Elorrioren atzetik

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Errugbi partiduak izan ziren nagusi zapatuan, Arrasateko Mojatetik berdeguneetan. Goizean, kadete mailako Euskadiko Zazpiko Errugbi Kopa jokatu zuten. Bizkaia aldera joan zen titulua; hain justu ere, Getxok irabazi zuen. Arratsaldean, oster, Nazioarteko Zazpiko Errugbi Txapelketako XIII. edizioa jokatu zuten han.

Aurrenekoan txapelketan parte hartu zuten 10 taldeak hiru multzotan banatu ziren. Elkarren kontra indarrak neurtu, eta bigarren faseari begira, hiru kategoriaz ezarri ziren: urrezkoa, zilarrezkoa eta brontzezkoa. Urrezkoen barruan, Bera Berak irabazi zuen; Bordeleko Etutians Club eta Hernanirekin aurretik. Zilarrezkoan Ordizia irten zen garaile, Elorrio bigarren, eta Arrasate hirugarren. Brontzeko kategorian Gaztedik irabazi zuen, La Unica eta Getxoren aurretik.

## Mikel Guembe, jokalar onena

Mojategin jokaturako partiduen ostean, Herriko plazako karpan elkartu ziren jokalaria. Bera Bera taldea saritzeaz gain, txapelketako jokalar onena ere izendatu zuten; hain justu ere, Bera Berako Mikel Guembe.

Sari banaketaren ostean, pozik azaldu ziren Bera Berakoak. Arrasatera urtero "gustura" etortzen direla jakinarazi ziguten. Euskal Herri mailako taldeendako "nahitaezko" hitzordua dela esan zuten;

lehen nahiz bigarren mailako taldeendako. Horren harira, txapelketan erakutsitako maila "ona" nabarmendu nahi izan zuten.

## Kadetetan, lau talde

Kadete mailako Euskadiko Txapelketan lau talde lehiatu ziren: hain justu ere, Gernika, Hernani, Getxo eta Arrasate/Durango taldeak. Norgehiagokak 10:30ean hasi ziren, eta Getxok bi garaipen eskuratu zituen talde bakarra izan zenez, euren taldeak izan zen titulua.

Gainerakoek partidu bana irabazi zuten; Arrasate-Durangoen kasuan, Gernikaren kontra nagusitu zen 21-5. Getxoko mutilen kontra jokaturakoan 7-22 irten ziren debagoiendarrak galtzaile. Hernanirekin izandako lehian, oster, 0-31 galdu zuten.



Bera Berako mutilak plazako karpan, saria jaso ostean. | MIRIAN BITERI



La Unica eta Gaztediren arteko lehia. | M.B.



Plakaketa baten ostean, jokaldia jarraitzen. | M.B.




**IZKO ARMENTAL**  
BERA BERA

"Aste osoan asko entrenatu dugu. Talde ona ekarri dugu, nahiko gaztea. Irabazteko gogoz etorri gara, eta garaipena lortu dugu. Oso gustura gator urtero Arrasatera".



**ANDY WOSNIAK**  
ARRASATE

"Taldea ona geneukan baina kanpoan maila altua zegoen; asko dago hobetzeko. Datorren urteari begira, gehiago egiteko gertu egon beharko gara".



**MIKEL LARRAÑAGA**  
ZARAUTZ

"Ondo ibili gara. Lehen fasean, talde indartsuen kontra lehiatu gara; biak galdu ditugu eta morala jaitsi zaigu. Gaztedi eta La Unicaren aurka, oster, irabazi dugu. Pozik gaude".



**RAMON BARRUTIA**  
ANTOLATZAILEA

"Txapelketa oso ondo joan da. Maila handia egon da partaideen artean, eta eguraldiak ere lagundu du. Giro ederra egon da. Datorren urtean egingo du oster ere".

## ARRANTZA

# Jose Antonio Novoa oñatiarra, aurtengo arrantzale onena

Infantiletan, Mikel Lopezek eta alebinetan, Alaitz Lazkanoiturburuk irabazi dute txapelketa



Laguntzaileak izan zituzten arrantzaleek. | JOSETXO ARANTZABAL

M.B. | OÑATI

Jose Antonio Novoa irabazi zuen, zapatu arratsaldean, Oñatin egindako herri mailako arrantzale txapelketa. Hiru amuarrain hartu zituen. Bigarren, haren seme Mikel Novoa izan zen, beste horrenbeste arrainekin; eta Iñaki Urtazar hirugarren geratu zen, bi amuarrainekin.

Arantzazu errekan egin zuten Pago Uso elkarteak eta Alzu dendak antolatutako txapelketa, 16:00etatik 19:00etara; San Pedrotik Olaterra bitartean. Infantiletan, Mikel Lopez izan zen txapelketa, eta alebinetan, Alaitz Lazkanoiturburu. Hiru amuarrain hartu zituen bakoitzak.

Txapelketa amaitzean, merienda egin zuten han bertan parte hartu zuten lagunek. 32 partaide izan ditu dena aurtengo edizioak; horietako asko gaztetxeak eta oñatiarrak guztiak.

## MENDIA

## Egubakoitzean Eskoritzan egingo den Gabez Takarran probarako izenematea zabalik dago

Eskoriatzako kirol elkarteak antolatuta Debagoienean gauez egiten den Gabez Takarran izeneko lehenengo mendi lasterketa izango da egubakoitzean, hilak 11. Lasterketak 20 kilometro izango ditu, eta mila metro pasatxoko desnibel positiboa; Atxorrotz eta Asentzio igoko dituzte parte-hartzaileak. Izenematea zabalik badago ere, antolatzaileek jakinarazi dute egunean bertan ere eman ahalko dela izena, 22:00ak baino lehenago.

## MENDIA

## Hilaren 19an egingo dute Txikirri-Txikirri ibilaldia, hildako mendizale eskoriatzarren oroimenez

Txikirri-Txikirri 8. mendi ibilaldia izango da ekainaren 19an Eskoriatzan. Bi urtetik behin egiten den irteeran hildako mendizale eskoriatzarrek gogoratzen dituzte. Egunean bertan eman ahal izango da izena plazan, 06:00etatik 07:00etara. Horrekin batera, bost euro ordaindu beharko dituzte mendizaleek. Honakoa izango da ibilbidea: Eskoriatza, Lete, San Juan Portaleta, Kurtzebarri, Degurixa, Mugarriluze, Leizargarate, Bentafria, Pagoeder, Jarindo, Albina, Kurtzeta, Asensiomendi, Lasa, Apotzaga eta Eskoriatza. Informazio gehiago gura dutenek 943 71 43 27 telefono zenbakira dei dezakete.

Iban Perez | Triatleta

# "Akuatloia ez da modalitate ofiziala eta, gainera, trantsizio gogorak dituen lasterketa da"

- ▶ Iban Perez uztailaren 16an jokatu den Plentziako akuatloia prestatzen dabil
- ▶ Oñatiko duatloia da gustukoaren duen lasterketetako bat; hiru aldiz egin du dagoeneko

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Igerian umetan hasi zen Iban Perez oñatiarra. Gero, triatloien munduan sartu zen. Gaur egun, Plentziako akuatloia prestatzen dabil eta, gainera, bere bizipenak [goiena.net/blogak/leihoa](http://goiena.net/blogak/leihoa) blogean kontatzen ditu.

**Nola erabaki zenuen triatloien munduan sartzea?**

Igeriketa mundutik nentorren. Lehenengo ahalegina 17 bat urterekin egin nuen; Oñatiko duatloia egin nuen, hiru asteko prestaketarekin. Eskola bukatzerakoan igeriketa mundua ere bukatu nuen; gero, korrika talde baten sartu nintzen Gasteizen. Hala, federatu egin nintzen duatloiak egin ahal izateko.

**Hortaz, igeriketa izango da ondoen moldatzen zaren modalitatea.**

Bai, duda barik. Igeri egitea ez zait batere kostatzen. Astebete ezer egin gabe egon arren, 45 minutu lasai egiten dut. Igeriketa taldean 15 bat urtez ibili naitenez, egia da, baita ere, agudo aspertzen naizela uretan; ez, ordea, beste modalitateetan.

**Nola moldatzen zara entrenatzeko?**

Denbora librean, egunero saio bat egiten dut. Interneten begiratzen dut planifikazio bat, eta horren arabera. Eta kontuan hartu behar da zenbat denbora duzun. Izan ere, ez da berdina korrika egiteko edo igerian egiteko behar duzun denbora. Denbora luzean daukadanean bizikletan ibiltzera joaten naiz.

**Oñatiko Triatloi Taldean zaude. Talde polita osatu duzuela esan daiteke.**

Giro ona daukagu, familia handi bat bezala gara. 43 bat lagun gaude taldean, eta aurten bi neska daude –orain arte bakarria egon da–. Senpereko triatloian, zapatuan taldekako lasterketa egiten da; aurten, adibidez, talde mistoa egitea lortu dugu, lehen aldiz.

**Zer dago Oñatin horrenbeste triatleta egoteko?**

Oñati batendako asko dira, bai. Proiektu erakargarria daukagu. Izan ere, talde bezala, batzen gaituena Oñatiko duatloia da. Duatloia antolatzea polita da, goizeko hamarretatik ibiltzen gara antolakuntza lanetan, denetik egiten.

Aurten 20 urte bete ditu Oñatiko lasterketak. Ez da egin den lehenengo duatloia –Gernikan 87an egin zen–; baina Euskal Herriko duatloi zaharrenetarikoa eta horrenbeste urtez jarraian egin den bakarrenetarikoa da.



Iban Perez oñatiarrak Plentziako akuatloia egiteko asmoa du. | A.E.

**Oraineku artean Plentziako akuatloia daukazu. Zer da hori?**

Nazio arteko federazioak modalitate ofizial bi ditu: duatloia eta triatloia. Bestalde, badaude azpimodalitate batzuk: triatloi krosa –mendiko bizikletarekin–, neguko triatloia –igeri egin beharrean mendiko eskia egiten da–, kuadratloia –piragua gehituta–... eta akuatloia, korrika eta igeri –2,5 km korrika, 1.000 metro igeri eta 2,5 korrika.

**Triatloietan trantsizioak garrantzitsuak dira. Nolakoak dira horiek akuatloian?**

**"Korrika egitetik uretara sartzea aldaketa gogorra izaten da"**

**"Idazteko zaletasuna daukat eta nire ekarpena egin gura izan dut"**

Aldaketa nabarmenena da ez dela horrenbeste traste eraman behar –bizikleta–. Trantsizioak ez dira horren ikusgarriak izaten, baina nahiko kuriosoak dira.

Norbaitek inoiz egin badu korrika eta gero uretara sartu, jakingo du oso aldaketa zakarra dela. Erritmo altu batetik uretara sartzea kosta egiten da. Normalean, triatloietan lehenengo igeri egiten da; baina gerta daiteke hondartzan korrika egin beharra uretara iristeko. Eta, halako kasuetan, aldaketa nabaritu egiten da. Bada, pentsa 2,5

kilometro korrika egin ondoren nola nabaritzen den aldaketa.

**Irailaren 16an izango da Plentziako akuatloia.**

Bai; oraindik ez da ofiziala, baina ziurrenik egingo da. Plentzian egiten da EAeko akuatloi bakarria, eta, horregatik, Euskadiko txapelketa izaten da.

**Zergatik da bakarra?**

Ez da modalitate ofiziala, horregatik izan daiteke. Oso gutxi ikusten da eta ez da horren erakargarria. Igerian ondo dabilen jendearendako egokiagoa den modalitatea da, eta, agian, jendea igerian ez da hain ondo moldatzen. Bestalde, lehen esan dugun moduan, trantsizioak gogorak izaten dira.

**Zein asmorekin joango zara Plentziara?**

Modalitate berria da niretako; hortaz, probatzera joango naiz. Gainera, belauna ez daukat oso ondo, eta bukatzea izango da asmoa. Disfrutatu eta ondo pasatzea.

**Blogen munduan ere ibiltzen zara. Nolatan hasi zinen?**

Hasi nintzen orain dela 6 urte, Goienak eskaini zidan aukera aprobetxatuta. Idazteko zaletasuna daukat eta nire ekarpena egin gura izan dut. Mundu hau asko aldatu da, gaur egun askoz ere erraztasun gehiago ditugu eta dinamikoagoa da.

**Bi zaletasun bateratu dituzu blogean: idaztea eta kirola.**

Nire etxeko leihotik ikusten dudana kontatzea da asmoa, eta, kasu honetan, kirolak garrantzi handia dauka nire bizitzan. Maratoia egin nuenean, adibidez, atzerako kontaketa bat hasi nintzen egiten (42 kilometrotik behera). Oso polita izan zen.

**Tropela.net atarian ere idazten duzu.**

Bai, aurten hasi naiz. Ez dakit nola sartzen naizen horrelakoetan! Twitter bidez eztabaidak izaten genituen, eta tropelean idazten zutenek esan zidaten animatzeko eta tropeleko blogari izateko.

**Orain arte jokatuak lasterketatik zein da gustukoaren duzuna?**

Oñatiko oso gustuko dut. Hiru aldiz egin dut, baina azken bi urteetan ez dut egin. Arrigorriagako duatloia baita. Distantzia luzeko bakarria da EAEn (20 korrika, 80 bizikletan eta 10 korrika). Eta azkenik, Calellakoa. Ironman distantzia duen lasterketa da, baina taldeka egiten da. Berezia da, aitarekin eta beste lagun batekin egin nuelako. Hori 2009an izan zen eta iaz epaile moduan jardun nuen Calellan.

## HEZIKETA

## Bideojokoak, finean, jokoak dira, baina umeei ondo erabiltzen erakutsi behar diegu

'Pegi' katalogazio sistema europarra gomendatzen du Iratxe Esnaolak

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Teknologia berriei buruz idazten du Iratxe Esnaolak *Guraso.com* atarian eta bideojokoan erabilerari buruzko hausnarketa egin du azken kolaborazioan. Fenomeno sozial ikaragarria dela eta izango dela ziurtatzen du eta ohartarazten du hezkuntza sistemak ez duela bideojokoan garrantzi-irizpideetan eskurik sartu. "Ondo egongo litzateke, bideojokoan onurak eta kalteak kontrolatzeko", adierazi du.

### Pegi katalogazio sistema

Faktore pedagogikorik kontuan hartzen ez denez, erabilera zaindu beharra dagoela ikusten du Esnaolak: "Erabileraren arabera bilakatuko baititugu onuragarri edo kaltegarri". Bideojokoan deskribapena irakurtzeko, zein adinetako umeendako diren zaintzeko eta gustukoan dituzten akziozko bideojokoan egokitasu-



Bideojoko bilduma bat apalean. | GRISEO MITRAN

na aztertzeke aholkatzen du Esnaolak. Gomendioak ere egiten ditu: McDonalds [www.mcvideogame.com](http://www.mcvideogame.com) edo Agains All Odds [www.playagaininstallodds.com](http://www.playagaininstallodds.com), esaterako.

Arduratuta dauden gurasoendako tresna baten berri ere emana

du Esnaolak: Pegi katalogazio sistema europarra [www.pegi.info](http://www.pegi.info). "Adinaren araberako sailkapena egiten du, baita edukien katalogazioa ere (...). Erabiltze hutsa izan daiteke, zergatik ez, bideojokoak aukeratzekoan aplikatu daitezkeen irizpide bat".

## 'Gurasoak' izeneko irratsaioa abiarazi dute Bergarako Txapa Irratian

Bi astean behin heziketa kontuei eskainitako 30 minutuko saioak egingo dituzte

L.Z. | ARRASATE

Txatxilipurdi elkarteak Bergarako Txapa Irrati (97,25) librea-rekin batera ekoiztutako saioa da eta *Guraso.com* webgunea hartuko du abiapuntu nagusi. Irratsaioak Lander Juaristi eta Aizpea Otxandiano izango ditu esatari, eta dagoeneko egin dute lehenengo saioa; entzungai duzue *Guraso.com* webgunean.

Helburua da irratsaioa Internet bitartez ere zabaltzea; sare sozialen bitartez, *Guraso.com* atari digitalaren bitartez zein Txatxilipurdik dituen webgune ezberdinen bitartez. "Nahi duzuen orduan eta egunean entzuteko", adierazi du Lander Juaristik.

### Irratsaioko edukiak

*Gurasoak* hiru atal nagusik osatuko dute: alde batetik, gurasoendako interesgarriak diren albisteak jorratuko dituzte, eta, bestetik, agendaren berri emango dute; hitzorduak, ikastaroak, deialdiak... Gainera, *Guraso.com* webgunean diharduten 17 kolaboratzaileen lana ere izango dute hizpide. Psikologoak, abokatuak, pediatrak, hezitzaileak, dietistak, irakasleak, logopedak... askotariko espezialitateak. Kolaboratzaile horiek elkarrizketatuko dituzte *Gurasoak* irratsaioan eta haien kolaborazioen berri emango dute. Lehen saioa entzungai dago; hurrengoak ere zintzilikatuko dituzte.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: [guraso.com](http://guraso.com)



[guraso.com](http://guraso.com)

## ADITUAREN ESANETAN

## Euskal Herriko surfa goi mailakoa da

Iker Etxeberria

Arizmendiko irakaslea

Azken hamarkadetakoa ibilbidearen poderioz, Euskal Herriko surfa nazioarteko surfaren mapan kokatu da. Gure hondartzak, Mundakako ezker olatua, bertan egiten den txapelketa eta, jakina, maila gorenera iritsi diren euskal surfariak –Aritz Aranburu eta Hodei Collazo, munduko surf txapelketaren zirkuituan eta Kepa Acero edo Axier Muniain surf librean– horren guztiaren adibide eta, era berean, bultzatzaile dira. Agintariak konturatzen hasiak dira turismoa erakartzeko elementu indartsua dugula surfa eta oraingo erreferente apala besterik ez bada ere gure herria, konturatu gabe erreferente izatera iritsi dela mundu mailan. Horregatik, iturri hori ustiatzen hasi dira gure kostaldeko hainbat eta hainbat txokotan.

### Gurean 9.000 surfari inguru

Dudarik gabe, surfa modan dago. Parte-hartzaile kopurua gorakoa da modu esponontzialean. Horren adierazle da, esaterako, Euskal Herriko Surf Federazioa bildu diren 3.000 kirolariak. Kopuru handia da, baina jakin badakigu euskal surfariak askoz gehiago direla; kalkuluen arabera, gaur egun gure herrian 9.000 inguru dira.

Formazioaren alorrean ere pausoak ematen ari gara. Arizmendi Ikastolako TAFYD heziketa-zikloan, adibidez, hainbat irteera egiten ditugu urtero joko-molde hori ezagutzeko eta menperatzeko. Era berean, Federazioak urtero surf-entrenatzaile ikastaroak antolatzen ditu eta Mondragon Unibertsitateak surfaren marketin eta kudeaketaren gaineko gradu-ondokoa eskaintzen du; modalitate horren gainean munduan ematen den bakarreneretako.

Gaspe jendea erraz erakartzen duen jarduera da. Osagai

guztiak ditu: inguru naturalean praktikatzen da; bakarka egiten da, eta ez da derrigorrean beste norbaitekin geratu behar; material gutxi behar da; ez da garestia; marka ezagunek bultzatzen duten moda erakargarria eskaintzen du; eta ez da gogorregia.

### Surflari gero eta gehiago

Bilatzen hasita, alde negatiboren bat ere badauka. Gure hondartzetara begiratu baino ez dago, surfariz josita daude eta olatu beraren bila surfari multzoa ateratu ohi da. Hondartzetan eta itsasbazterretan olatu sortak noizbehinka datoz baldintza aproposak sortzen direnean. Gainera, udaberrian, udazkenean eta neguan itsasoko uraren tenperatura asko jaisten da eta bilatzen dugun konfort mailatik urrutitatu geratzen gara gurean. Ondorioz, surfari asko ditugu eta olatu kopuru mugatua, batez ere, eguzkiak berotzen duenean.



Arizmendiko ikasleak surf ikastaro bat egiten. | ARIZMENDI IKASTOLA

## Surfean hasteko gomendio batzuk

Surfean hastekoa bazara, lehenengo gomendia da materiala hasiera-hasieratik ez erostea. Alokatzeko aukera dago, eta baliatu aukera horretaz. Surfa gustuko duzula ziur zaudenean, orduan erosi materiala. Bestetik, etxetik atera aurretik aztertu egun horretan itsasoaren baldintzak zeintzuk diren; izan ere, zure mailarako aproposak ez diren baldintzak izaten badira, komeni da uretara ez irtetea. Komenigarria da hasieran ikastaro bat egitea. Irakasle batek asko lagunduko dizu eta saio bakoitzari etekin hobea aterako diozu. Eta ez ahaztu: sasoi onean egotea ezinbestekoa da.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: [arizmendipro.eu](http://arizmendipro.eu)




2.0 PROFESIONALAK

# KULTURA



Tailerrean parte hartu dutenek era guztietako ariketak egin dituzte asteburuon. | JOSETXO ARANZABAL



**ANA PEREZ**  
AKTOREA

**"Antzerkiak pertsona malguak sortzen ditu, komunikatzeko gogoia dutenak"**

Ana Perez irundarra izan da antzerki tailerreko irakaslea. Lehenengo egunaren amaieran hitz egin genuen harekin.

**Nola joan da eguna?**

Oso nekatuta gaude, egun intentsua izan da. Baina partaideak eurak oso motibatuta egon dira, eta horrek zeu ere barreiatzen zaitu. Gustura nago.

**Nola planteatu duzu tailerra?**

Besteak beste testua era fisikoan lantzeko gorputza nola kokatu landu dugu. Abiapuntua da hitzek eta soinuek forma bat dutela, eta horiek euren baliokide fisiko dutela.

**Gaur izan dituzun ikasle gehienek esperientzia zuten antzerkian. Nabaritu duzu hori?**

Noski baietz, duten prestutasuna nabari da, eta hori aldeko dugu denbora aprobetxatzeko orduan. Tratamendua berbera da, baina ikuspuntu ezberdin batzuetatik. Badute oinarria, lantalde ona dago.

**Antzerkirako jaiotze egin behar da, ala ikasiaz joan?**

Biak. Jaiotzen joan zaitezke egiten ari zaren heinean.

**Ze onura dakartza antzerkiak?**

Pertsona malguak sortzen ditu, komunikatzeko gogoia dutenak, komunikazio kalitate handiarekin. Emozioetatik gertu lan egitean bizitza ulertzeko modu sentibera sortzen du. Burua bila jartzen dizu; esna, oso sortzaile.

## Antzeztea, besteen azalean jartzearen artea, nahiz eta bestea haizea edo azukrea izan

- ▶ Hamalau pertsonak hartu dute parte asteburuan Aramaion egindako antzerki tailerrean
- ▶ Askotariko testuak landuz, hitzak baino, hitzok esateko modua izan da landu dutena

TXOMIN MADINA | ARAMAIO

Nola jokatuko zenuke haizea edo sua izango bazina? Eta beruna, esnea edo altzairua izanez gero? Ez dira egunerokoan entzuten diren galderak; bai ordea asteburu honetan, Aramaion egin duten antzerki tailerrean entzundakoak.

Doke antzerki taldeak antolatuta egin dute tailerra zapatuan eta domekan. "Orain arte gure inguruan eta Erdi Aroan kokatutako antzezlanak eroan ditugu agertokietara, baina beste era bateko lanak ere jorratu gura ditugu, eta horretarako egokia iruditu zitzaigun ikastaro bat egitea", azaldu digu Dokeko kide Mariasun Pagoagak.

**Ana Perez irakasle**

Ikastaroa emateko ez dute edonolako irakaslea aurkitu. Ana Perez izan da berau: antzerki munduan profesional moduan aritutakoa, Europan zehar ere ibili izan da lanean.

Hamalau pertsonak hartu dute parte ikastaroan: gehienak Dokekoak bertakoak izan dira, baina egon da kanpotik etorri denik ere. Tailerrak iraun duen egun eta erdian, era guztietako ariketak egin dituzte, baita era guztietako testuak landu ere. Besteak beste, *Xalbadorren heriotzean* kantua erabili dute material moduan, baina baita Shakespeareren *Lear Erregea* antzezlanaren eta Machadoren testuak ere.

Garrantzia, testuetako hitzei beharrez, hitzok esateko moduari eman gura izan die Ana Perezek, eta horixe da landu dutena. "Sentsazioak, emozioak lantzea izan da egin duguna, baita hutsuneak isiltasunarekin eta gorputzarekin nola bete ere" azaldu digu Pagoagak.

Testuak irakurtzeko orduan, jarrera izan da landu dutena testu bera era inuzentean, Hitlerrena eginaz edo mozortuta errezitatuz. Tailerreko ardatzetako bat gorputza eta bere mugimenduak izanik, egindako ariketak nahiko fisikoak izan dira. Nekea ekarri du horrek, baina etorkizunerako baliagarriak izan daitezkeen bideak ere zabaldu dizkie

tailerrean parte hartu dutenei. "Asko ikasi dugu asteburuan, orain baina, ikasitako horiek barneratzen joan behar gara, guk geuk geure aldetik landuz" diosku Mariasun Pagoagak.


**Proiektu berria eskuartean**

Seguru ikastaro honetan ikasitakoak baliagarriak izango zaizkiela Dokekoei euren hurrengo proiektua aurrera eramateko. Gaia zein den esan gabe, aurreratu dute komedia bat izango dela, Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzitakoa. Apur bat itxaron beharko dugu, baina, agertoki gainean ikusteko, asmoa da eta datorren urtean estreinatzea.



**ITZIAR ROSADO**  
ARRASATE

"Oso ondo joan da tailerra, oso interesgarria izan da. Lehenengo aldia da horrelako zerbait egiten duguna. Dena berria izan da, eta seguru baliagarria izango zaigula".




**J. M. VELEZ DE MENDIZABAL**  
ARRASATE

"Egun betea izan da, jipoi ederra hartu dugu bai teoria aldetik eta baita fisikoki ere. Uste dut oso saio probetxugarria izango dela. Irakaslearekin asmatu dugu".



**MONTSE LOPEZ**  
GASTEIZ

"Hamar urtez ibili naiz antzerki talde *amateur* batean, beti ikertzen, beti ikastaro berriak egiten eta uste dut gaurkoa interesgarria izan dela oso".



**JOSU JAUREGI**  
ARRASATE

"Ez zait egun nekagarria egin, ondo ibili naiz eta gauza asko landu ditugu. Asko gustatzen zait agertokira igotzea, eta gaur hemen ikasitakotik zerbait aterako da".



**ITZIAR REKALDE**  
GASTEIZ

"Gorputzarekin, arnasketarekin testura nola hurbildu ikastea zen gaurko abiapuntua, eta gaurkoa lehenengo frogia izan da. Orain ikasitakoa lantzea tokatzen da".



Basati tabernan White Shadow taldearen kontzertua. | JOSETXO ARANTZABAL



Biteri plazan egin zuten parrillada jaten. | GORKA MORRAS

gaueko kontzertuei egin zien lekua; ospakizunak ez zuen etenik.

Gaztetxean, 22:30ean hasita, 200 pertsona inguru batu ziren Slambit, Itziarren Semeak, Sermonds eta The Motherfuckers taldeak entzuteko. Slambit Berlinetik etorri zen Elkartasun Egunean parte-hartzeko. Antolatzaileek partaide guztiak zoriondu dituzten arren, Slambiten kasua berezia dela adierazi dute: "Gainontzeko guztiak bezala, hauek ere ez dute dirurik eskatu, baina hauek Berlinetik etorri dira". Musutruk ibili ziren talde guztiak, eta jai antolatze lanetan ibili den lan-talde zabalak esker-tu zuen hori; hortaz ondorioa argia da, guztiak gozatu zuten egunaz eta presoan senideei laguntzeko diru dezente batzea lortu zuten.

## Herrian errotu den Elkartasun Eguna hasi da datorren urterako data berri baten bila

Asmo berdinarekin baina manifestazio gabe ospatu dute presoan aldeko eguna

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

"Mila esker eguna posible egin duten guztiei", adierazi du antolatzaile lanetan ibili den Aitor Urizar *Mutxin*-ek, ohetik jaiki berri. Askori luzatu zitzaizen zapatua, Elkartasun Eguna horretarako aitzakia eman zuelako.

Eguerdian herritik zabaltzen zen txorizo usainari jarraiki, Biteri plazan 160 pertsona batu ziren parrillada on bat egiteko asmoarekin. Lehenago, bertso-poteoa eginez hasi ziren eguna girotzen. Otorduari hasiera emateko Jokin Labayenen eta Beñat

Gaztelumendiren bertsoek presoek bizi dituzten egoerak ekarri zituzten gogora. "Gurekin ez dauden arren, gure buru eta bihotzetan daudela adierazi nahi diegu", adierazi zuten antolatzaileek.

Jandako guztia digeritzeko denborarik eduki gabe, guztia

jaso eta tabernetara egin zuen salto Elkartasun Eguna. Iluntz, Mondra, Taupa eta beste zenbait tabernatan –hamahiru guztira– zuzeneko musikaz gozatzeko aukera egon zen. Esan beharrik ez dago tabernak lepo bete zirela eta arratsalde iskanbiltsuak

**Hurrengo urtean asmo berriak**

Egunak izan zuen arrakasta ikusita, eta formulak funtzionatzen badu ere, antolatzaileak jai hori antolatze beste data baten bila dabilta. "Ekainak ekintza gehiegi ditu, eta horregatik nahi dugu beste egun batean egin"; ez zaie arrazoirik falta, egun berean herrialde txiroren elkartasun eguna, errugbi txapelketa... Hala, hurrengo Elkartasun Eguna udan egingo dutela jakinarazi dute.

Horrez gainera, aurtengoan egun ludikoago bat antolatu duten arren, hurrengo urtean manifestazioa berreskuratuko dutela adierazi dute.

# Kantari

## Gurasoendako bilera informatiboak

Parte hartuko duten umeen gurasoendako bilera informatiboak egingo ditugu:



### Arrasateko eta Aramaioko gurasoendako:

Arrasaten, ekainaren 7an, Kulturaten Jokin Zaitegi aretoan, 18:30ean



### Bergarako, Antzuolako eta Elgetako gurasoendako:

Bergaran, ekainaren 7an, kultura etxean, 18:30ean



### Oñatiko gurasoendako:

Oñatin, ekainaren 6an, gaztelekuan, 18:30ean



### Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako gurasoendako:

Aretxabaletan, ekainaren 6an, Arkupen, 18:30ean

Informazio gehiago:

- zugaz.com
- Tel.: 943 25 05 05

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldeak KANTARI karaoke ikuskizuna antolatuko du Debagoiengan, hirugarren aldiz.



Labayen eta Zuazubiskar, egubakoitzeko kanporaketan | XL

## Labayen eta Zuazubiskar, Binakako Sariketako finalera

Gainerako hiru bikoteei gailendu zitzaizkien Uberan jokoan egon zen kanporaketan

X. I. | BERGARA

Ostiralean egon zen jokoan Debagoieneko Binakako Bertsolari Sariketako bigarren kanporaketa Uberan. Afari goxo baten ondoren izan zen saioa eta giro epel batez gozatzeko aukera izan zuten

bertaratuek. Lau bikote aritu ziren saioan: Eñaut Uriarte eta Iñigo Arzelus; Paula Amilburu eta Xabi Igoa; Enaitz Alustiza eta Maddi Labayen; eta azkenik garai- le izan ziren Jokin Labayen eta Ane Zuazubiskar.

Saio txukun eta umoretsua izan zen, bertsolariak ondo erantzun zizkioten eta Maria Izagak jarritako gai. Aipatzekoa da bertsolari gazteek erakutsitako maila.

### Hurrengo saioa, Aramaion

Hilaren 19an izango da finala Arrasateko Gaztetxean. Bertan, Labayen eta Zuazubiskarrez gain, Oñatiko Urko Egaña, Josu Igartua, Gorka Larrea eta Joseba Lasagabaster ere ariko dira. Laugarren eta azken bikote finalista ostiral honetan jakingo da, Aramaion, Urribarriko elkartearen 20:30ean hasiko den saioan.

## 'Río de Luna': umeez eta haien gurasoez

Dantzaren bitartez mundua ikusteko beste modu batzuk daudela erakutsi gura du Da.te dantza taldeak eta helburu horrekin, *Río de Luna* ikuskizuna eskaini zuten atzo Bergarako Zabalotegi aretoan. Txikienei zuzendutako ikuskizunean, euren eta gurasoen arteko harremanak jorratu zituzten era ikusgarrian.



JOSETXO ARANZABAL



JOSETXO ARANZABAL

## Argazki sarituak, Aroztegin ikusgai

Egubakoitzean banatu zituzten Bergara Hiria 27. argazki lehiaketako sariak: zuri-beltzeko argazkirik onena Manu Barreiroen *Vicky* izan da, eta koloretako argazkirik onena aldiz, Agustin Busseloren *Platycnemis latipes*. Argazki sarituak, eta lehiaketara aurkeztutako beste 38, Aroztegin egongo dira ikusgai hilaren 19ra arte.

# energia gutxiago, bizitza+

Energia aurrezteko keinu bakoitzak planetan ondorio bat eragiten du.



Zure zain gaituzu El Boulevardko ingurumen arloko jardunaldietan. Parte hartu ekainaren 1etik uztailearen 5era arte eta etorkizun iraunkorraren aldeko konpromisoa hartu zeure gain.

Parte hartu ere  
[www.el-boulevard.com](http://www.el-boulevard.com)  
web gunean




BUSCADOR TEMÁTICO DE ECOLOGÍA, FLORA Y FAUNA

Bizitzaz beterrik, ZUTAZ beterrik.

[www.el-boulevard.com](http://www.el-boulevard.com) • [www.tublogelboulevard.com](http://www.tublogelboulevard.com) • • Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440



## Gremioen gida



## Jatetxeen gida



# NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

## Osasun zerbitzuen gida



## Profesional liberalen gida



Iragarkia jartzeko, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



## GURE MUSIKA TALDEAK

GORA  
GORA  
KIDS

Gora Gora Kids taldea, Bergarako gaztetxean, aurtan eskaini duen zuzenekoan. | JULIO CALLEJA

# "Egiten duguna jolasa da; ondo pasatzeko asmoz egindako demoa"

- ▶ Zuzenak eta gertukoak diren mezuek hasieratik engantxatzen dute
- ▶ Biniloan kaleratuko dute bigarren lana eta uztailean grabatuko dute

MAIDER ARREGI | OÑATI

Musikari haize freskoa eman dio Gora Gora Kids taldeak. Doinu single eta azkarrek erakargarri egiten dute. Arkaitz Villar bateria-jotzaile oñatiarrak ondo pasatzeko helburuarekin sortutako proiektua dela kontatu digu:

**Hard rock, garage, post punk eta surf doinuak demoan.**

Garage-rock diskoa da. Abesti motzak eta azkarrak dira, erraz entzuten direnak, konplikazio bakoak. Oso basikoa da egiten dugun rock-and-rolla. Taldekide bakoitzak estilo propioa dauka

eta hori abestietan igarri egiten da. Dibertitzeko diskoa da!

**David Attenborough, umorerik ez zaiuz falta!**

Kantua txantxa bat da, jolas bat. Guk taldea denbora-pasa moduan daukagu eta egiten duguna jolasa da; hori islatzen dugu. Animalia batzuk izango bagina bezala, jolas bat irudikatu dugu kantuan. Attenborough BBCko Felix Rodriguez de la Fuente da.

**Zure Begiak kantuan Stooges-en gitarra zikinen eragina nabari da.**

Ramones edo Stogges taldeen post punka igartzen da. Doinurik gogo-

rrena daukan abestia da.

**Uaouh, Miauh & yeah!**

Gure arima islatzen du diskoak, jolas arima hori. Gure bat-batekotasuna mantentzen du izenburuak. Dena kasualitate batetik irten da; ez geneukan ezer egiteko asmorik eta pixkanaka kantuak egiten hasi ginen eta zuzenekoak eskaintzen. Gure letrak umoretsuak eta gertukoak dira, garrantzi txikiak. Desamodioari ere abesten diogu modu naturalean eta gure buruari barre eginez.

**Abesti azkarrenak, sinpleenak eta zuzenenak dira arrakasta izaten**

dutenak kasu askotan.

Uste dut jendea *super banda* perfektuekin aspertuta dagoela. Publikoak beste zerbait eskatzen du. Gu ikusten gaituenak ez du aparteko punteatzerik ikusiko, ez gara musikari profesionalak. Jendeari gustatzen zaiona abesti zuzenak eta motzak dira; erraz entzuten direnak, ondo pasatzeko. Badu bere xarma...

**Rock-and-rolla mundua aldatzeko bidea da?**

Musika bizitza ulertzeko bidea da. Guk ez dugu mezurik bidali nahi, helburua ondo pasatzea da, beste barik!

**Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez abesten duzue.**

Euskaldunak garena eta euskaraz bizi garena argi daukagu, baina horrek ez du esan nahi beste musikaririk ez dugunik entzuten. Euskaraz bizi garen arren, beste hizkuntza batzuk ere erabiltzen eta entzuten ditugu. Beste hizkuntza batzuek ere eragina dute gure bizitzan.

**The Rolling Stones handiari keinua.** *Under my thumb* abestiaren bertsioa da *Lur azpian*. Berdin ez jotzeagatik, erritmoa pixka bat aldatu diogu, baita letra ere.

**Abesti berriak prest?**

Azarorako bost abesti grabatu nahi ditugu, single binilo formatuan. Asmoa da urtero zerbait grabatzea. Abesti berriak gure zuzenekoetan ere entzun daitezke: ekainaren 17an, Ondarroako Kafe Antzokian eta uztailearen 8an Oñatiko Antton tabernan izango gara.

## ZERTZELADA



**UAOUH, MIAUH & YEAH!**

**Estiloa:** Garage-rock.

**Egilea:** Gora Gora Kids (Donostia 2010).

**Argitaletxea:** Autoekoizpena.

**Iraupena:** 23 minutu.

60ko hamarkadako garageari omenaldia

**G**ore Gore Girls taldeari keinu edo omenaldiak Gora Gora Kids-en estiloa eta gustuak deskribatzen ditu: atzoko eta gaurko garage-rocka. Donostiako talde honen lehenengo lanak dituen 7 abestietan, musika egin eta honetaz disfrutatze dute gogo transmititzen dute, 23 minututan zehar, lau hizkuntza desberdinetan abestutako garage doinuak (*David Attenborough*) eta surf ikutuak dituzten abestiak (*I wanna say*) aurkitu daitezke Uaouh, Miauh & yeah! vol.1 izeneko maketan. Lan honetan, The Sonics, edo The Cynics klasikoaren eragina antzematen da eta baita Black Lips bezalako taldeena. Rolling Stones taldearen *Under My Thumb* bertsioa ere egin dute, hori bai, abestiari heuren labela jarri.

ANDER MONEDERO





# Datorren urtean hasiko da Internet-telebisten uholdea

Frantzia eta Alemaniako eredia hartuko da Espainiako Estatuan, Hbbtv izenekoa

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Telebista eta internet bateratzeko joera dagoeneko errealitatea da eta estatuen arabera alternatiba ezberdinak daude. Espainiako Estatuari dagokionez, Hbbtv izeneko estandarra erabiliko da, Frantzia eta Alemaniako bera, eta honen bitartez telebista banda zabalera handiko konexioetara lotu eta eskarrieko bideoak, webguneak edota aplikazioetarako sarbidea egongo da.

2012 urterako espero da zabal-kundea Estatuan. Fabriketatik ateratako telebisten ia %70 dagoeneko konektatzeko prest daude baina gaur egun erabiltzaileen %20ak bakarrik erabiltzen du zerbitzu hori. Honenbestez, fabrikatzaileek Espainiako Gobernua-ri eskatu diote ahalegina egin dezala eta konpainiekin adostu dezala herrialde osoan erabiliko de estandar teknologikoa. Europa mailan eredu bakarraren aldeko apustua egiten dute fabrikatzaile gehienek, Hbbtv hori.



Alemaniako Hbbtv telebista bat. | GOIENA

# Froga garbirik ez garuneko minbizia eta sakelakoak lotzeko

Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak emaniko datuek ez dituzte zalantzak uxatzen

J.B. | ARRASATE

Agentziaren txostenean bertan diote "gizakietan uhinek duten eraginaz froga gutxi badaude ere, esperimentatutako animalietan nahikoa froga" ba omen dagoela. Osasunaren Mundu Erakundeak Minbiziaren Ikerketarako Nazioarteko Agentziaren txosten hori eskuan hartuta egin du iragarpena. Hala ere, minbizi-eragileen eskalan, sakelakoaren erabilpena kafearen, kobaltoaren nahiz zenbait kolore arnterren arrisku-maila berean aurkitzen da. Albistea nabarmentzeko modukoa da Osasunaren Mundu Erakundeak lehen aldiz eman baitu iritzia bat sakelakoei buruz baina beti ere "lepora dakizkioke" edota "ikertzen jarraitu beharra dago" moduko esaldiak erabiliz. Ikerketa luze bat eskatzen dute agentziatik, informazioa falta dela, eta hori dela gaur egungo eginbehar nagusia. Ikerketa gauzatu duen agentziaren

buruek orain OME-ren esku utzi dute gomendioak egitea. Datu moduan, esan dutena da 2004tik hona %40 hazi dela garuneko minbizia izateko arriskua sakelako telefonoa asko erabiltzen dutenen artean baina zehaztu dute erabilpen horrek ez daukala zertan minbiziarekin lotura izan. Hala eta guztiz ere, animaliekin eginiko ikerketak dira kontuan hartu dituztenak eta haietan ere ezin izan dute frogatu sakelakoen uhinek ADN eralda dezaketarik ala atomo eta molekulak hautsi. Agentzian 14 herrialdeko 31 zientzialarik hartzen dute parte. Honekin batera, minbiziaren aurkako erakundeetatik eta baita Espainiako Osasun Ministeriorik ere, diote garuneko minbizi kasuak areagotzen dabilzala esateko besteko ebidentziarik ez dagoela oraindik orain, nahiz eta azken urteetan sakelakoaren zabalkundea benetan handia izan den.

# Gerra-motibo izango dira 'ziber-erasoak' Pentagonoarentzat

Txinatik eraso egin diete azken asteetan GMaileko kontu askori, AEBko gobernukideenak barne

J.B. | ARRASATE

Internet medio, Estatu Batuak eta Txinaren arteko liskarrak ez dira kontu berria baina oraingoan Googlek piztu du gatazka. Bilaketa enpresak salatu berri du Txinatik hainbat eraso jaso dituztela Gmail postan eta tartean Estatu Batuetako Gobernuak ofizialen zenbait kontu eta giza-eskubideen hainbat aktibista txinatarren kontuak lapurtu dizkietela.

## "Espiontza", Clintonentzat

Hori ikusita, Estatu Batuetako Gobernuak Idazkari Nagusiak, Hillary Clintonek, "espiontza" kasutzat hartu du gertaera eta ikerketak abiatu dituzte Google-ekin batera. Honekin batera, The Wall Street Journal egunkariak joan zen astelehenean gaia borobiltzera datorren albistea kaleratu zuen, azalduz aurki Pentagonoak doktrina berria kale-ratuko duela eta aurrerantz

ziber-erasoak ere gerrako ekintza moduan izango direla hartuak eta, ondorioz, erantzun belikoa eman. Txinako gobernuari dagokionez, gezurtatu egin dituzte akusazio guztiak eta esan du Txinako Gobernuak ere antzerako erasoen biktima izaten dela. Iaz Txinako Internet erabiltzaileen %60ak jasan zituen mota bateko edo besteko erasoak eta %30ari lapurtu zizkieten pasahitzak 2010ean.

## Txinako Inteligentzia

Googlek, bere aldetik, ez du Txina erasoen erantzule egiten. Hala eta guztiz ere, erasoen jarraipena eginda Txinako Jinan eskualdetik egin dituztela esan du, iaz Txinatik egindako beste eraso baten leku bera. Kasu honetan, Txinako gobernuak ukatu egin du bertan Inteligentzia Militar-erako instalaziorik izatea nahiz eta formazio profesionalerako zentroak egon badauden.

# Lainoko zerbitzua aurkeztuko du gaur Applek, streaming zerbitzuetarako urrats berria

J.B. | ARRASATE


Egongo da sorpresarik baina sagartxoaren konpainiak dagoeneko azaldu ditu gaur hasiko den Applen Garatzaileen Mundu Bileran (WWDC) aurkeztuko dituzten zenbait nobedade. Mac OS X sistema eragilearen zortzigarren bertsioa da horietako bat, Lion izenekoa. Ordenagailuen sistema eragilearen berrikuntzez gain, aldi berean, litekeena da gailu eramangarrietakoa ere berritzea eta iOS 5 aurkeztea, iPad, iPod Touch eta iPhone-erako. Esames gehien baina iCloud delako zerbitzuak

eman du, streaming-erako zerbitzari berriak.

## Musika lainoan

Zerbitzuak lainoan eskaintzea izango da Applen hurrengo urratsa eta musikaren streamingean sartuko litzateke, sarean biltegitzeko lekua eskainiz.

Oraindik ez da argitu aurkezpenean Steve Jobsek parte hartuko duen ala ez, bajaran aurkitzen baita urtarrietik. Hemen go iluntzeko 19:00etan hasiko da ekitaldia ohiko keynote eta jakin-minarekin.



Ebentua hartuko duen aretoan, prestaketa lanak. | APPLEINSIDER

# Facebookek 700 milioi erabiltzailetik gora ditu munduan

Azken datuek erabiltzaile kopurua zifra horren bueltan kokatzen dute. Hain zuzen, Brasilen hazi da gehien erabiltzaile kopurua, ia bi milioi erabiltzaile berri egin dira azken urtean baina Indonesia, Filipinak, Mexiko eta Argentina ere asko igo dira. Indonesian bakarrik 38 milioi erabiltzaile daude. Gehien hazi diren beste herrialdeen artean daude India, Kolonbia, Egipto eta Turkia, guztiak erabiltzaile hazkunde oso nabarmenarekin.

# Creative Commons lizentzia eskaintzen du Youtubek dagoeneko

Orain arte lizentzien kontua nahiko alde batera lagata izan dute Youtuben, lizentzia bakarra baitzegoen, Youtubeko standard bat. Bada, aurrerantzean Creative Commons lizentziekin ere igo eta partekatatu ahal izango dira bideoak. CC-BY lizentzia da eta edukiaren kopia eta mola-daketa baimentzen ditu baina betiere jatorrizkoaren egilea aipatzen bada. Sei CC lizentzietatik bakarra ahalbidetzen du Youtubek momentuz.

## TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



## Pretty Woman

Julia Roberts-en barre disdiratsua eta Richard Gere-n dotoretasunak arrasatu egiten dute telebistan. Joan den igandean 3,5 milioi pertsonak ikusi zuten *Pretty Woman*.

Garai honetan telebista munduan audientziak dira errege eta TVE kateak jakin badaki zein den arrakastaren giltza. Igande arratsaldean *Pretty Woman* emititzea erabaki zuten eta bete-betean asmatu zuten. Argi dago oraindik ere film klasikoak audientzietako izarrak izaten jarraitzen dutela.

Plana ezin hobea da: palomita hartu, sofan eseri eta filma ikusi. Baina egia esan behar bada, nahiko aspertuta gaude igandeko betiko filmekin. Beste aukera batzuk ere badira. Eta merezi duten filmak ere asko dira. Betiere kalitate minimo bat izaten badu, ez zaigu axola pelikula bera hamar mila bider ikustea. Dialogoak buruz dakizkigu eta hurrengo eszena zein den ere badakigu. Ez gaitu aspertzen. Behin eta berriz, eszena berdinek hunkitzen gaituzte eta, berriz ere, hunkitzea prest gaude. Ikus-entzuleak bere iritzia eman du eta, oraingo honetan ere, klasikoek irabazi dute.

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 6



## Kirol kontuak, 'Harmailatik'-en

20:45

Besteak beste, Gorlako igoera eta Euskal Herriko erlojupekoa ikusteko aukera izango duzue astelehenan *Harmailatik*-en.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:10 Berbetan

14:45 Berriak

15:15 Sakonduz

15:50 28.Klip

16:15 Gipuzkoa kultura

16:45 Berriak

17:15 Leku txiki bat

17:45 Erreportajea: Azpeitiko Rallysprinta

18:25 Onein

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Harmailatik

21:30 Magazinea

22:30 Harmailatik

23:15 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 7



## Pello Urizarri elkarrizketa

20:45

Goierrri telebistak ekotzitako *Sakonduz* saioan, aste honetan Pello Urizarri elkarrizketatuko dute; horixe izango dugu ikusgai.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Harmailatik

16:00 Hamaika.bit

16:30 Ikusmira

16:50 Berriak

17:15 Sakonduz

17:50 Bi tartean

18:20 Ikusten

18:55 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Sakonduz

21:15 Magazinea

22:15 Harmailatik

23:00 Magazinea

EGUAZTENA, 8



## Politika kontuak berbagai

20:45

Aste honetako *Tertulia* saioan politika kontuak izango dituzte hizpide gonbidatuek Julen Iriandoren gidaritzapean.

13:15 Marrazki bizidunak

13:35 Kantari

14:00 Harmailatik

14:45 Berriak

15:10 Onein

15:40 Hamaika.bit

16:10 Erreportajea: Zegama Aizkorri maratoia

16:45 Berriak

17:15 Bizitegia

17:40 Bi tartean

18:15 Gipuzkoa kultura

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea


20:45 Tertulia

21:45 Magazinea

22:45 Tertulia

23:45 Erreportajea: Zegama Aizkorri maratoia

EGUENA, 9



## Xabier Leteren omenaldia

22:15

Xabier Leteren euskal idazle, poeta, kantari eta politikariari egingo dugu ikusgai, besteak beste.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Hamaika.bit

15:45 Tertulia

16:45 Berriak

17:15 Ikusten

17:45 Ipupomamua

18:15 Ikusmira

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Bi tartean

21:15 Magazinea

22:15 Gipuzkoa kultura

22:45 Bizitegia

23:45 Magazinea

EGUBAKOITZA, 10



## 'Grises' taldeko bati elkarrizketa

22:15

*Grises* musika taldeko kide bati elkarrizketa egin zioten *Bi tartean* saioan eta berak kontatutakoak entzungo ditugu.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Ur eta lur

15:50 Hamaika.bit

16:15 Ikusmira

16:45 Berriak

17:15 Berbetan

17:45 Ipupomamua

18:15 Leku txiki bat

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Gipuzkoa kultura

21:15 Magazinea

22:15 Bi tartean

22:45 Tertulia

22:45 Magazinea

## ARRASATE IRRATIA

## AHTren aurkako manifestazio nazionalari buruzkoak

Martitzenean elkarrizketa egingo diogu AHT Gelditu! elkarlaneko lagun bati. Izan ere, hilaren 11n AHTren aurkako manifestazio nazionala egingo dute eta horixe izango dugu berbagai. Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratisaioan izango da, goizeko 10:30ean hasita.

## 'Laminen sekretua' liburua zozketatuko dugu, astean

Juan Martin Elexpuruk idatzitako *Laminen sekretua* liburua eskuratzeko aukera izango duzue aste honetako zozketan. Gogoratu parte hartzeko bi bide dituzuela: 943 25 05 05 telefonora deituta edo [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera idatzita. Animatu eta parte hartu zozketan.

## 'Geektonic' teknologia berrien tartea, martitzenean

Martitzenero bezala, oraingoan ere Mainer Arregi etorriko zaigu Arrasate Irratiko mikrofonoetara teknologia berriei buruz berba egitera. Sarean puri-purian dauden albisteak izango ditugu berbagai, beste behin ere *Igo autobusera!* irratisaioaren barruan. Aste honetan ere, ez hutsik egin eta entzun adi-adi albisteak.

## TELE-ALBISTEAK

## Alkatetza utziko dutenei elkarrizketak, gaur hasita

Agintaldiko balorazioa egingo digute; euren unerik gozoenak, zailenak, lorpenak, damuak...

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Debagoieneko bederatzi herrietatik zazpi izango dituzte alkate berriak hurrengo agintaldian. Bada, alkatetza utzi behar duten gaur egungo alkateek euren agintaldien gaineko balorazioak egingo dizkigute *Magazinea*-n.

## Gaiak

Gai hauek izango dituzte hizpide alkatetza utzi behar dutenek: agintaldiko unerik gozoena zein izan den, eta zein zailena, zein lorpenekin dauden gusturen, zein den lorpenik handiena, zer gera-

tu zaien egiteko, alkate izendatzean zer sentitu zuten, zer sentsazioekin doazen, zer sentitzen duten agur esatean, zeri egin behar izan dioten uko alkate zereginak aurrera ateratzeko, alkate berriari zein aholku eman go dioten, damurik baduten, ea gaur egun euren herria duela lau urte baino hobea den, harremanak onak izan diren udalbatzako kideen artean, alkate karguak aukera eman dien herria, herritarrak eta inguruko txokoak hobeto ezagutzeko eta ea orain hobeto ezagutzen duten herria.



Magazinea saioko aurkezle Arritxu Barruso. | JOSU TXINTXURRETA

## Asier Agirrerren eta Inaxio Garroren balorazioak gaur, astelehena

## Banan-banan

Gaur, astelehena, hasiko gara elkarrizketa horiek emititzen eta Aramaioko Asier Agirre eta Aretxabaletako Inaxio Garro izango dira lehenak. Martitzenean Bergarako Agurri Barruso izango

dugu, eguaztenean Antzuolako Pedro Iturbe eta Leintz Gatzagako Eusebio Villar, eguenean Oñatiko Lourdes Idoiaga eta egubakoitzean Arrasateko Ino Galparsoro. Horiek guztiak *Magazinean* izango dira, 19:45ean.

## ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Ximun Leturia Lete**

Maiatzaren 11n, 9 urte. Ximun, zutaz ahaztu ginela uste zinun? Zelan ahaztu gure mutiko haundixena, zu be Arrasatekoa zara! Berandu, baina hemen doiaz gure mila patxuak. Naroa, Garazi, Libe, Ion, Noa eta familia danan partetik.



ARETXABALETA  
**Xabier Etxenautia**  
Ekainaren 11n, 61 urte. Zorionak, aita! Aurten urtebetetze jai espeziala preparatu dotzugu ezta? Ondo pasatu eguna eta urte askotarako. Txokolatezko patxuak Arantz eta Doltzaren partetik. Muxu potolo pilo bat familixako beste guztixon partetik.



ARETXABALETA  
**Arkaitz Kerejeta Abril**  
Ekainaren 10ean, 8 urte. Zorionak txapeldun! Zure aita-amaren eta Ainhitzeren partetik.



ESKORRIATZA  
**Xuban eta Juan Luis Markaide**  
Ekainaren 10ean, urtebete. Zorionak, bikote, eta muxu potolo bat etxeko partetik! Ondo pasatu eguna!



ARRASATE  
**Ariane Bartolome Alvarez**  
Ekainaren 9an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik!



ARRASATE  
**Aurken Lopez Lopez de Bergara**  
Ekainaren 9an, 2 urte. Zorionak, bihurritxo! Ederto pasatu eguna. Bigarren atzamarra altxatzen ikasi behar duzu, txapeldun! Muxutxo goxo-goxoak, etxeko eta Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, rubio!



ARRASATE  
**Olatz Garmendia eta Nelson Ferreira**  
Olatzek, 17 urte ekainaren 2an eta Nelsonen, 14 urte ekainaren 8an. Zorionak eta belarrietatik tiratuz bat patxo bana sudur puntan! Zuen familia zoragarriaren partetik.



ESKORRIATZA  
**Lur Arana**  
Ekainaren 7an, 32 urte. Zorionak, aita! Egun zoragarria pasatu eta opari asko jaso! Patxo asko Unai eta amatxoren partetik! Mua!




ARETXABALETA  
**Ian Moran Olea**  
Ekainaren 6an, 5 urte. Zorionak zure amatxo, Dana, Maddi, Nora eta Markelen partetik.



OÑATI  
**Maren Agirre Zoilo**  
Ekainaren 6an, 5 urte. Zorionak, printzesa. Belarritik bost tirakada eta muxu potolo bat etxeko eta bereziki Izaroren partetik.




ARRASATE  
**Alaitz Bergaretxe**  
Ekainaren 6an, 5 urte. Zorionak eta patxo handia familia guztiaren partetik!



ARAMAIO  
**Unai Ormaetxea Arriaran**  
Ekainaren 5ean, 3 urte. Zorionak, *terremoto!* Ondo pasatu zure egunien eta hiru belarri tirakada Basautiko familiaren partetik!



ARETXABALETA  
**Ariane Perez Ramos**  
Ekainaren 5ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi-handia gurasoen eta amamaren partetik.



ARETXABALETA  
**Aimar Gonzalez Moreno**  
Ekainaren 5ean, urtebete. Zorionak eta patxo handia familia guztiaren partetik!




OÑATI  
**Iraia Ugarte eta Amaia Goitia 'Goitti'**  
Iraiak ekainaren 4an eta 'Goitti'-k ekainaren 13an beteko ditzuzte urtiak. Zorionak, *majak!* Urtiak pasatu arren betiko bizipozarekin jarraitzen dozue. Gora zuek!




BERGARA  
**Ekaitz Ena Laskurain**  
Ekainaren 4an, 5 urte. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian eta patxo handi bat aita, amatxo eta familixako guztixon partetik.



OÑATI  
**Ainhoa Inza**  
Ekainaren 4an, 31 urte. Zorionak, Ainho!! Mila kilo zorion eta mila kilo muxu Unax, Uxue, Elaia eta etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta bazkari goxua prestatu eh!



OÑATI  
**Miren eta Imanol**  
Ekainaren 3an, 11 urte. Zorionak, bikote. Oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat familixako danan partetik.



OÑATI  
**Amama Rosi**  
Ekainaren 3an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat, familixako partetik.



OÑATI  
**Danel Iñurritegi Guridi**  
Ekainaren 3an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Laztan asko etxeko danon partetik eta bereziki Liberen partetik. Oso ondo pasa ezazu zure eguna. Ostiraleko goxokiak zure kontu!




ESKORRIATZA  
**Enara Urrutia Lasagabaster**  
Ekainaren 2an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat amatxo eta aita xoren partetik.



BERGARA  
**Maddi Gallastegi Etxeberria**  
Ekainaren 2an, 2 urte. Zorionak, pitxin! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo bat etxeko eta laguntzaren partetik.



BERGARA  
**Andoni Gomez Familiar**  
Ekainaren 2an, 3 urte. Zorionak etxeko guztien partetik eta oso-oso ondo pasatu zure urtebetetzean.



BERGARA  
**Haizea Mujika Beistegi**  
Ekainaren 2an, urtebete. Zorionak eta muxu handi-handi bat aita eta amatxoren partetik.



BERGARA  
**Lander Alzola Altzereka**  
Ekainaren 1ean, 6 urte. Zorionak, Lander. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Muxu handi bat familixako guztien partetik!



OÑATI  
**Ander Bastian Rodriguez**  
Maiatzaren 31n, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat familixako danan partetik.



ARRASATE  
**Suhar Macias Luarizaristi**  
Maiatzaren 31n, 7 urte. Zorionak, *rubio!* Etxeko txikixenai zorionak eta patxo pilo bat familixako danan partetik! Zuk indako pastelan zain gaz!



ARETXABALETA  
**Aitziber Zufiria**  
Maiatzaren 30ean. Zorionak, Aitz! 40 urte, aurren! Madril, Londres edo Otxagabian, berdin da non, ederto ospatuko dugu eta! Muxu handi bat kuadrilako guztien partetik. Aupa Valentine's Party! Aupa K. Otxagabia!



OÑATI  
**Paula Zelaia**  
Maiatzaren 29an, 3 urte. Zorionak, potxola, jada 3 urtetxo! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat aita, amatxo, Jon eta familia guztiaren partetik.



OÑATI  
**Elisabet Erostarbe**  
Maiatzaren 29an urtebetetzea. Zorionak, ama eta ondo pasatu zure egunean! Ondiok zure kontura inbiun bazkari itxoiaren gauz. Patxo handi bat!



ARRASATE  
**Raul Garcia Garcia**  
Maiatzaren 29an, 31 urte. Zorionak, aita! Patxo handi bat Eider eta etxeko guztien partetik!



ARETXABALETA  
**Lorea Belategi Martinez**  
Maiatzaren 28an, 6 urte. Etxeko errealizari zorion beroenak seigarren urtebetetzean etxeko guztien partetik. Batez ere Aratz, Hodei, Markel, Goiatz eta Maddiren partetik. Gora erreala! Eta Barça... apurtxo bat ere!

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitez [goiena.net](http://goiena.net) atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezu bat bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitez GOIENAKO ordezkari zure batera.

JAIOTAKOAK


BABESLEA

# IKUSI MAKUSI



## Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



**Manex Arana Garitano**

Bergara 3,950Kilo. Maiatzaren 29a. Gurasoak: Maider eta Joxu. Argazkian, Manex bere anaitxo Peiorekin ageri da.



**June Urtaza Ronda**

Oñati 4,120Kilo. Maiatzaren 27a. Gurasoak: Aitor eta Amaia. Argazkian, Amarekin



**Lander Duarte Uribe**

Aretxabaleta 3,060Kilo. Maiatzaren 28a. Gurasoak: Koldo eta Leire. Argazkian, sehaskan goxo-goxo



**Ane Arregi Arakama**

Arrasate 3,830Kilo. Maiatzaren 28a. Gurasoak: Antton eta Eva. Argazkian, ama eta aitarekin



**Aretx Urzelai Agorria**

Aretxabaleta 3,780Kilo. Maiatzaren 29a. Gurasoak: Ibai eta Idurre. Argazkian, ohean gustura



**Jone Martin Uribesalgo**

Eskoriatza 3,540Kilo. Maiatzaren 31. Gurasoak: Karlos eta Edurne. Argazkian, aitatzorekin



**Hodei eta Enaitz Aranburuzabala Kortabarria**

Arrasate 2,900 eta 2,880Kilo. Ekainaren 1a. Gurasoak: Iker eta Ainhoa. Argazkian, sehaskan elkarrekin



**Itxasne Herrero Barrena**

Elorrio 3,100Kilo. Ekainaren 1a. Gurasoak: Pepe eta Eider. Argazkian, sehaskan lo



**Alex Familiar Rivero**

Arrasate 2,800Kilo. Maiatzaren 31. Gurasoak: Jorge eta Belen. Argazkian, aitatzorekin

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

|                        |                    |                    |              |
|------------------------|--------------------|--------------------|--------------|
|                        | Elgoibarko auzoa   | Omango hiriburua   | Kolpea       |
|                        | Palestinako hiria  | Artoaren lasto     | Bi gehi bi   |
|                        |                    |                    |              |
|                        | Moiak              |                    |              |
|                        | Zuhaiketa mota     |                    |              |
| * Armenia-ko hiriburua | Kirikinoa          |                    |              |
| Aramaioko auzoa        | Kristauen bilgunea |                    |              |
|                        |                    |                    | Tona         |
|                        |                    |                    | Burruntzali  |
| Jan-edate              |                    |                    |              |
| Asturiasko hiria       |                    |                    |              |
|                        |                    |                    | Nor atzikzia |
|                        |                    |                    | Artsenikoa   |
| Barazki hostotsua      |                    | Arto irinezko opil |              |
| Astindua               |                    | Kontso-nantea      |              |
|                        |                    |                    |              |

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| V | I | S | O | R | R | A | N | I |
| O | T | A | T | A | Z | A | V |   |
| K |   | S | E | L | I | A | V |   |
| E | Z | I | V | K | I | L | E |   |
| T | A | T | O | X | E | R | E |   |
| A | U | K | I | R | T | R | A |   |
| K | A | S | A | N |   |   |   |   |
| A | L | A | M | A | R |   |   |   |
| T | M | S |   |   |   |   |   |   |

BILA-BILA 7



## Edonork segitzen du lotan!

Argazkiko iratzargailuak dirua txikitzen du esnatzen ez bazara... Bukatu da ohean buelta eman eta loadia luzatzeko aukera. [www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



## "Fragoneta" Audi, Mercedes eta BMWengatik aldatu dugu"

DIONI MARTIN | CAMELAKO KIDEA

Batzuentzat harrigarria izan daitekeen arren, Camela da, La Oreja de Van Goghen atzetik, azken hogeitun urteetan Espainian disko gehien saldu duen bigarren taldea. Eta noski, salmentek dirua ekartzen dute, eta diruak, horrelako adierazpenak egiteko aukera. [www.20minutos.es](http://www.20minutos.es)



Max. 20°

Min. 14°

Egunak aurrera egin ahala zaparradak ugaritu eta trumoiak joko du. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2011-06-06

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

## HAMARREKOA

**Jorge Fernandez** 1972ko uztako arrasatearrak sekulako salto eman du azken hamarkadan: basket jokalaria eta irakasle izatetik, telebista aurrean milioika ikusle biltzera. | TXOMIN MADINA

## "Zortea sekula ez dator bakarrik; bila joan behar da, landu"

### 1. Jaiki eta ispiluan begiratzean, zer pentsatzen duzu lehenengo?

Madriren nagoanean: "Kaka, bizarra moztu behar dut!". Bilbon, aldiz, nire semearengan.

### 2. Lesio batek sekula ez du izan horrenbesteko etorkizunik.

Erabakigarria izan zen: errekupe-ratutakoan jokatzeko gai izan arren, bizitza birplantarazi zidan. Hasierako asma, baina, ez zen aurkeztele izatea, modan sartzea baizik. Beti diot ez dagoela onik ekarriko ez duen gaitzik.

### 3. Zortearekin lan egiten duzu: bakarrik dator ala bila joan behar da?


Bakarrik ez dator inoiz; bila joan behar da, landu. Ez dut zortean sinesten: lanean baizik, konstantzian, sakrifizioan eta esfortzuan.

### 4. Hamar egun etxe bat eraberritzeko: magia ala eraginkortasun handiena?

Denetik. Telebista magia da; baina egia da lan eta sakrifizio handia dagoela. Beti esaten da lantaldea garrantzitsua dela; bada, saio horretan, beste batzuetan baino garrantzitsuagoa. Gehien kostatu zaidan saioa da, baita poztasun handien eman didana ere.

### 5. Kanpaikadak ematea aurkezle moduan gailurrera heltzea da?

Sari bat da urtean zehar egindako lanagatik, baina telebista egiteko modu bezala ez zait gustatzen: presio handia dago, dena oso lotuta, eta ni ez naiz ni izaten. Gaizki eginez gero, gainera, akabo!



JON POZO

## LEHENDAKARIA BANINTZ

### "Terrorismoa eta krisia nire helburu"

"Lehendakari guztiak egiten saiatu direna, eta saiatuko direna, egiten saiatuko nintzateke: ETaren kontrako borrokan jarraitzea; eta krisia arintzea eta lanpostuak sortzea. Ea alderdi berriekin eta hauteskundeetan jasotako boto piloarekin egonkortasun politikoa lortzen den."

### 6. Audientzien gerran denak balio du?

Gerran ere ohorea badago, audientzietan ere ez luke denak balio behar. Nire ustez, nire kateak bai, baina kate eta zuzendari batzuek ez dute askorik errespetatzen. Gustatuko litzaidake kate guztiok elkar errespetatu eta muga batzuk ez gainditzea.

### 7. Batzuek komunean dute Oscarra. Non dago zure Ondas saria?

Egongelan, beste sari batzuekin. Irabaztea gailurra izan zen: bi saio hain ezberdin aurkezteko gai izateagatik eman zidaten. Gainera, aurretik zeinek irabazi zuten ikusita...

### 8. Nerabe, ama ala amamek, nork geratzen zaitu gehien kalean?

Amamek! Ilusioa aitaitek egiten didate. "Guapo!" eta halakoei ez diet kasurik egiten, baina adineko gizon batek dionean zure zain egoten dela, dibertitzen dela, ilusioa egiten dit.

### 9. Irakasle lanetan ere ibili zinen garai baten. Nolako maisua zinen?

Ikasleei galdetu behar! Urtebetez eman nituen klaseak Gasteizko moja ikastetxe baten. Bokazioa behar da eta konturatu nintzen ez zela nirea. Umeak gustatzen zaizkit, baina eguneroko 40, eromena da!

### 10. Nola ikusten da Arrasate urrutetik?

Aspaldi ez naiz joan, baina tristeago; akaso, gaztaroarekin alderatzeagatik. Atentzioa ematen didana da gauzak ez direla aldatu: jende bera, ordu berean eta taberna berean. Dena den, gustatzen zait bueltatzea.

## BIHARAMUNA

ELENA LAKA



## Kobratu eta etzan

Erretiratuak "kobratzeko eta etzanda egoteko gauden", adierazi zuen Elgetako alkate izateko aukera handiak izanda bigarren geratu zenak, politikatik erretiratzen zela iragartzean. No, neure artean, ederra eskapada elgetarrena. Antzinako eibartarren *pueblo soberanuak* bete-betean asmatu du, Plazabarren antza etzaulkia eta kobratzeko kontua ipintzeko asma kitzikatzen zebilen ez dute alkate aukeratu. Kontxo, bururatu zitzaidan gero, badaude ba makinatxo bat erretiratu, kobratu bariko lanetan edo plazer hutsezko jardun aktiboetan ondoto mugitzen direnak. Tira, begitandu zitzaidan, izan zintzo zeure buruarekin, aitortu kobratzea eta etzanda egotea ere atsegin duzula. Bai, baina orduan bezero izan nuen prostituta bat etorri zitzaidan gogora: bere lana etzanda egotean eta kobratzean zetzala azaldu zidan. Bapo, ondorioztatu nuen, prostituta, erretiratu, alferra edo beste edozer izateko, ez da agian elegantzia handirik behar, baina hauteskunde galtzaile izateko bai. Hautagaiari ipin dakiokkeen estilo frogarik gorena hauteskundeak galtzea da. Kobratzea eta etzanda egotea helburu dituela aitortu duen honek, elegantzian, kale.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51